

# EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN  
ERRI AKADEMIA

XI Zenbakia.

1990  
Jorrailla-ekainilla

## AURKIBIDEA

	Orr.
Etxeberria tar Patxi. Gaztañaga tar J	1
Euskerazko izenak Erdiaroko idazkeran. B. Latiegi.	4
Goi-Yakintzaruntz urbiltzeko. Urrestarazu, Andoni.	13
Filosofi gaietarako iztegi txikia. L. Egia.	16
B. Latiegi'ren Elizaren <b>Historia</b> eun urtez. A. Arrinda.	27
Ni naiz <b>eta</b> i aiz. A. Zatarain.	33
"H" ren arauak. Asier Etxaburua	38
Akatsak <b>eta</b> erderakadak. J. Gaztañaga.	40
Aetzen Uskaraz. Josu Cabodevilla.	41
-Ko, -Rako, -Tarako. J. Gaztañaga	50
"Kresala"ko Itxas berbak. A. Zubikarai.	54
Garmendia-Kortadi tar Jon. S. Muniategi	61
Manterola'ri Omenaldia. Gamiz.	62
Zeleta. S. Muniategi. (Atzeko azalaren barruan)	

**Zuzenbideak:**

**GETARIA 21 - DONOSTIA**  
**C. LARREATEGI 14 - BILBAO**



# ETXEBERRIA'tar PATXI: APAIZ ETA JESULAGUN IDAZLEA

Andoain'go "Berdillegi" baserrian jaio zan 1900'eko Jorraillaren 23'an Etxeberria ta Tolosa'tar Patxi. Andoain'go ta Gasteiz'ko Apaizgaitegietan burutu zituan eliz-ikasketak eta, bereala apaizturik, Ezkioga'n eta Itxaso'n egin zituan erri-apaizari zegozkion erretoretza-lanak.

Euskal-idazle geienen antzera, izenordeko bat baiño geiago erabili zituan: "Abalegi'ko Pi", "E'tar P.", "Utsa", "Ibiltari" eta abar, bere izen-abizenaz gaiñera.

Garaiz asi zan idazten euskeraz. Onela, "Euskal-Esnalea" aldizkaria aztertu besterik ez dago, zenbait idazlan aurkitzeko. Txantxetan ere 1921'gn urtetik asita beintzat. Aldizkariaren sarreratzat edo oiñarri-irizitzat ar genitzake onako idazlan auek, ain zuzen ere lenengo orriari datozenez: "Maite? Bai, mingaiñez!", "Euskera, nola ikasi?", "Irakatsi euskeraz", "Euskera-gaiak: Al, noiz?", "Euskeraren ugartasuna" eta "Dirua biotz".

Zirikada bizi ta zorrotzak dira, euskaldunak zuzpertz nairik idatziak, euskeraz ikas zezaten, ez zekitenek; eta obeto ikasi ta geiago erabil zezaten, zekitenek. Gure andoaindarrak bezain maite izango ba'genu euskera, euskaldunik geienok beintzat, ez leukake galdu-bildurrik gure izkuntzak.

"Izkirimiriak" ere idatzi zituan Aldizkari berean 1923'an, gutxienez iru aletan. Baita "Bear zaitu" kontakizuna ere, Ameriketa'ra joan nai zukean mutillari, Euskal-lerria'k bear dituala mutil jatorrak eta bertan lan egiteko gogoia pizteko asmoz idatzia.

"Euskaldun argitsuak: Elustiza'tar Juan Bautista" idatzi zuan 1927'an, Bergara'ko seme musikariaren berri emanez.

Lan sakonago ta astunago bati ekin zion garai berean. Ain zuzen, Virgilio'ren "Eneida" izeneko olerki-lan luzea euskeratu zuan eta oso-osorik "Euskal-esnalea" aldizkariaren argitaratu 1928'gn urtean, ENEIS izena jarrita.

Izkuntza ikasteko erraztasun edo doai berezia zuan gure andoaindarrak. Ez da arritzekoa, bada, gazteleraz gaiñera, latiña ta gerquera ere ongi ikasi izana eliz-ikasketak burutzekoan. Latiña ongi jakin bear beintzat, euskeralpen au zeatz eta egoki egin aal izateko. Beljika aldean frantzelera ta urrena ingelera aixa ikasi zituan. Urrena, berriz, Sortalde urrutienara joan zanean, txinera ta Filipineta'ko "Tagalo" izkuntza beren izkelgi edo adarrekin ere ikasi zituan, guztira amabi izkuntza ortxe-ortxe menperatzeraiño.

"Basetxea Irakasle" ipuia saritu ta argitaratu egin zioten "Euskal-Esnalea"n 1929'an. Gero 1930'ean "Baretxoa irakasle" idatzi zuan aldizkari berean; ipui mamitsua benetan.

Aldi artan indartsu zabaltzen zuten ARGIA asterokoa, eta 1929'an beintzat, Etxeberria apaiza jarri zioten buru. Zenbat idazlan argitaratu ote zituan bere ardurapeko astekarian? Nork jakin lezake?

Eta orra gure apaiz euskal-idazle trebea, eskuarteko lanak zearo utzirik, bide berriak artzen: "Jesus'en Lagundia" dalakoan jesulagun sartu zan. Euskal-lerria ere utzi bearra gertatu zitzaion, luzaro baiño leen gaiñera, jesulagunak erbestera-tu zituzteneko aldia bai-zan. Beste jesulagun askorekin, Beljika aldera jo bear 1931'n.

Beljika'tik... Txina aundi ta urrutira egatu zan 1940'an, Wuhu lurraldean Jesus'en Berri Ona zabaltzera joanik. Antxe jarraitu zuan jo ta ke, arik-eta Mao'k misiolariak gogorrean uxatu zituan arte. Andik nora? Txineraz Taiwan eta bestela Formosa esaten diogan ugartera toki-aldatu zan. Eta urrengo egaldian, berriz, Filipineta'ko Hollo ugartera.

Txineratik euskeratuta bidali zuan "Tao - Te Txing" idazlana 1962'an eta EGAN aldizkarian 1968'an argitaratu zioten. Antziñako txinatarren pentsakizunak dira, esaera labur eta sakon-mamitsuak. "Shanghai'ko ziñopa" ere aldizkari berean atera zioten 1957'an, andik bidalia noski.

Idazlan ugari argitaratu zituan baita "Euzko Gogoa" aldizkarian ere. Aipa ditza-gun batzuk bederen. "Antzekoak" idazlanean, Idazteuna edo Liburu Santuak, eta antziñateko beste errialdeetako zenbait oitura ta esaera alderatzen ditu, antzeko gauzak aztertuz. "Jerusalen'go Biblia" eta "Itun Berria, oc-mintzairan" idazki laburrak dauzkagu 1956'an urtean.

Zinea dala-ta ere idatzi zituan aldizkari ta urte berean. "Yolasak benaz" idaz-tian zineei buruz mintzo zaigu. Eta zinearentzat izen berria asmatu zuan, Txina'n esaten ziotenaren arauera: "Itzalberria", itzalen erabilkera berezia ta berria bai-da bere sakonean. Eta gai bera erabilliz, "Tetsuo'ri Eskutitza" eta "Zazpi Samourai" japonarren oiturak argituz.

"Itzalberri" itza dala-ta Etxeberria'k berak "Euzko Gogoa"n ematen digun azal-pena, jakingarri danez, ona emen: "Txina'n nintzala, eta batez ere, gorrien pen-pera yausi ondoren, lau urte luzez iya ezer egiteko eukerarik gabe etxe-zuloan egon bear izan nizun artan, amaikatxo eta amaikatxotan gure izkuntza ederraren zuztarrak agirian ipintzeko "burutazioak" izaten nitun. Burutazio itz au, Andoain'en asko esaten zan. Orain ez dakit esango duten. Nola nai ere, ez da ain egoki sortutako itza. Orra bada: Txina'n zinearentzat "Tximist-itzal" asmatu nun, txinatarrek esaten duten erara.

Baiña igazko udazkenean arrebaren etxean nintzala, Andoain'en, orain an zabaldu oi duten esnea gendun lelo, lpar-Amerikarrek duan ematen duten au-tsezko esnea, edo, esne auts-biurtua. Orduantxe, nere ezkon-anaiak, esne orri "esne-berri" deitu zion. Ez, noski, itz eder bat asmatzeko asmoz, baizik-eta, eus-keraz bear bezela itz egiteko gogoz. Nere ezkon-anai ofek, espaiñeraz iya ezer-to ez daki.

"Orduantxe neri ere auxe gogoratu zitzaidan: Tximist-itzal baiña kinemarentzat "itzalberri" obe nitek. Eleberri, pestaberri, amaberri, eta abar bezela. Orain arteko itzalak nolakoak izaten ziran badakigu. Kinema ere itzal bai'litz artu liteke. Argaz-kiz artzen dituzten gayak itzalian sartzen dituzte beinfzat, eta antxe daude mintza mee-mee batean, berriro argiz gure begien aurrera ateratzeko. Lenbizi asmatu zunak, —prantziarra zala uste det— "kine" deitu zion: berri artan beste izen obe-rik ez zulako. Zuk "kine" zer dan badakizu; eta, ibiltzen dana, eta diranak, kine-makoak bakarrik ez dira". (Euzko Gogoa, 1956'ko Azilla-Gabonilla, 120'gn orrian).

Geiagorik ere argitaratu zuan "Euzko Gogoa" aldizkari bitxi ta txalogarri artan. Esaterako, "Dabid'en Eresia" izenpean, Gelineau'ren doiñuz abesteko eran jarriak, bi eresi edo salmu, 17'gna ta 47'gna, ain zuzen ere 1957'ko Epaila-Jorrailla alean. Ale berean dago "Aserrea" idazlan mamitsua, "Utsa" izenordekoz izenpetuta. Eta Orrilla-Garagarrilla alean dauka beste kontakizun polit bat, "Sau-ro" izenekoa, Sortalde urrutiko giroa adierazteko egokia.

Kontakizun atsegin eta mamitsua da "Belko" izenekoa, Erroma'n zebillenean idatzia, eta euskaldunak eta erromatarak aipatzen ditu. Obeki esanda, Uxua ta Txurdin neskatxak eta Urko ta Zinko euskaldunak zaintzen, Belko abertzaleak Erroma'n antziña egin zituan ibillerak edesten dizkigu; maisukiro edestu ere, garai aietako giroa ezagutaraziz. Euzko Gogoa'n dago au ere, 1956'ko Irailla-Urrilla alean.

Jakingarriak dira 1958'an Euzko Gogoa'n argitaratu zituanak ere. "Arranegi", Erkiaga'ren izen bereko eleberria ezagutzera emanez idatzia. "Batasunera" ta "Osokerak" idazlan biak, berriz, Olabide ospetsuaren gorazarrez idatziak daude, euskal idazle berari berariz eskeinitako alean. Azkenik Jesusen Lagundik "euskal-idazleak" argitaratu zuan 1958'an.

Besteak beste, olerkari ere bagenun Etxeberria, eta ez nola-naikoa. Onela, 1933'ko Olerki-sariketan lenengo sana irabazi zuan BOST LORE izeneko olerki txalogarriaz. An-emenka asko ditu azken-aldian argitaratuak, baiña aurkitzen zailenak aipatuko ditut, beste idazlanak ere orregatik izendatu bai-ditut, antziñakoak diralako.

"Euzko Gogoa"n argitaraturik daude "Eskale gaztea" eta "Zinko'ko aitona" 1957, eta "Zameza Aba'ri" jesulagun ospetsuari eskeiñia 1956'an. "Intxaur ezea" ta "Nik ez!!!" 1959'an agertuak. Urrena, "Egan" aldizkarian atera zituan "Lizarra" 1956'an eta "Shanghai'ko ziñopa" 1957'an.

Aipaturiko aldizkarietaz gaiñera, "Goiz-Argi", "Zeruko Argia", "ZER" eta "Karmel"en ere ba-ditu olerki ta bestelako idazkiak argitaraturik. Bere misio-lanak uzten zizkion tartean ederki erabiltzen zituan euskal-lanerako, argi baiño argiago ageri danez. Ez dugu eredu txarra.

ARGIA asterokoan Zuzendari izan zanean egingo zituan, noski, izkutuko ta ixilkako lan ugari, bere izenik ezertarako jartzeke. Beste Van aundi bat ere burutu zuan bere burua ta izena asko arrotu gabe. Ain zuzen Olabide aundiak euskera-tutako IDAZTEUNA aipatu nai nuke. Euskeralpena bere osoan, bai, Olabide'ri zor zaio, arek burutua danez, baiña azken-begiratua nork eman? Tartekako utsuneak, itzuli gabeko ataltxoak, bearrezko oar argigarri ugariak, nork egin zituan?

Etxeberria'tar Patxi, gizaki burutsu ta argiak oi diran antzera, arrokeriarik gabeko gizon apala genun bai ageriko itxuraz, bai bere izketaz eta bai bere jarduera guztiz. Misio-lurralde urrutietatik etor-erazi ta IDAZTEUNA gertutzen jarri zuten bere nagusiek. Nork jakin zenbat ordu sartu zituan Erroma aldean lan ori burutzeko? Eta IDAZTEUNA osoro aztertzean, Etxeberria'ren aztarna auxe besterik ez duzu aurkituko, antes azken-orrialdean bere olermenaren ikutuz izkutatuta, "GALLURTXOA" idazburuaren azpian:

"Olabide'tar E aimun Aba, Gasteiz'ko seme azka a!  
Idazti Deunen zure itzulketa au, lan aundi bikain baka a.  
Argitalpena zuzen-bea ez ibilli da andoainda a:  
Aren izena Etxebe ia... izango bait-du aka a...  
"Urte, etxe, iri, ikus au en-o ian, Eldu zaigu Dagonilla:  
Eguna, be iz, zortziga ena, ez bedi egon isilla.  
Yaingo Yaube'ri Aintza betea Yesulagunek nai billa:  
Amaitze onek so beza Arentzat Goraidi txit biribilla".

Arretaz egin bearreko lan izugarria burutu zuan, IDAZTEUNA edo "ITUN ZAR ETA BERRIA" oso-osorik argitaratzeko, Biblia osoa bai-da. Zor genion eskerrik artu gabe joan zaigu. Ixillean lan egin zuana, ixillean eta iñor oarkabean joan ziztaigun 1989'go Gabonillaren 3'an, beste euskaldun misiolari ospetsuaren egun berean, Xabier'en egunean alegia. Toledo'tar Nekane'k D. V. egunkarian idatzia izan ezik, nork aipatu du?

Izkuntza asko zekizkian, guztira amabi-edo bai. Arriturik, zerbait esaten genionean, betiko erantzuna: "Bai, besteak zerbait lardaskatu, idatziz eta aoz, baiña... biotzean maite ta "jakin", euskera bakarrik".

Aspertzeko ta etsi gabe 89 urteren buruan lan egin zuan Etxeberria jesulagun eta idazle trebea, Aitak oparo sariturik, gerta bedi betiren betiko atsedean betean zoriontsu.

Erresil'en 1990'ko Epaillaren 23'an.

**GAZTAÑAGA'tar JESUS'ek**



# EUSKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN 867'ko LARRUKI BAT

## II

Jarrai dezagun larruki zaar orrek dakarzkigun izenen azterketa:

RECONCO.—"Alia terra in Reconco iuxta terra de S. Mames". "Beste alor bat Reconco'n, San Mames'en lurraren ondoan"; edo, agian obeki, "San Mames'ko alorraren ondoan", "San Mames" ori toki baten izena dala bait dirudi, dokumentu ortako beste esaldi baten doñura: "In S. Mames uno agro": "San Mames'en alor bat"

"Reconco" ori, izan daiteke "Rekon'go", ots, "Rekondo'ko"; baiña nere ustez REKONDO da, Euzkadi guztian ain zabaldurik dagoan toki-izena eta abizena. Rekondo; ERREKONDO'ren aldakuntza.

SAN MAMES, toki izena zala seguruaski, esan-berri dut. Beraz Done baten izena da. Baiña mundu guztian errez eta ugari biurtu dira toki-izen Doneen ize-nak.

Futbolzalea ba'zera, Bilbao'ko Futbol-taldearen jolastegia ekarriko dizu eskierki San Mames'en izenak gogora.

Nor zan San Mames? Mozarabeen liturgi-egutegian agertzen zaigu Done ori, baña ez zan berez, —mozarabitarrak ziran bezala—, bisigota, sortaldetarra bai-zik, Kapadozi'ko Zesarea'n (gaurko Turki'ren erdian) jaioa, eta III mendean, Aurelianus Erroma'ko inperatorearen agintaritzapean, (270-275), gizaseme gazte zalarik ziñopa Kristo'ren omenez erailla. San Mammete, edo, soilki, San Mama ere esan oi zaio.

Azkar eta naro zabaldu zan Done onen izena kristaudia-zear. Ez da arritzekoa, gertari bitxiz beterik bait dago bere kondaira.

Entzun bitzate "atletik-zaleek":

Amabi urteko mutikoa omen zan Mames, Zesarea'ko gotzaiaren esanera, Aureliano inperatorea Eliza zigortzen asi zanean.

Zesarea'ko jentillek berebiziko sarraskia egin ornen zuten kristauen artean. Mames mutikoari ordea, oraindik gaztea zalako, barkatu ornen zioten bizia.

Ez zan ikaratu Mames. Alderantziz Kristo'ren berriona zabaltzen asi zan uri trakets artan.

Baiñan bere itzaldiek ez bait zuten erantzunik jasotzen, zerutiko abots batek, mendiko basa-piztietei berriona aldarrikatzera joateko agindu zion, eta, ortarako, eliz erre batean aurkitzen zan ebangelioen liburuaren billa len-bait-len asteko.

Ezin ordea Mames'ek eliz artan libururik idoro. Orduan, zerutiko abots arek, "errautsen artean makil bat billatzen asi adi", dasaio. Aurkitzen du makilla, jotzen du makillaz lurra, eta orra or lurra jo duan tokitik ebangelioen liburu ura non agertzen zaion!

Liburua artuta, mendian, Leize-zulo batean jartzen da bizitzen, eta bigaramonean an ditu leizaren aurrean basoko pizti guztiak. Baita gogorrenak ere, artzak, otsoak eta leoiak adibidez, ebangelioa entzuteko zai.

Orrela igaro zituan 5 urte, egunero piztietei ebangelioa aldarrikatuz, eta artzuloe-tako eztia janez. Pozik uzten zioten gaiñera pizti emeek beren errapeetatik esnea xurgatzen.

Kapadotziko Jaurleak, berreun zaldizko gudari bidali zituan mendira, Mames arrapatzeko. Abegi gozoz artu zituan onek bere aurka bidalitako zaldun aiek, eta baita ezti gozoz alikatu ere.

Egunero bezala, oitura zuten orduan, an agertu ziran piztiak leze-aurrera. Baita zaldunak ikaratu ere, eta Mames'i, laguntz'eske, oiuka asi!

Arriturik ikusi zuten zaldun ikaratuak, pizti aiek nola Mames'i entzuten zioten. "Ez zaitezte, adiskideok, abere oiek baiño buruz gogorrangoak izan", dasaie Mames'ek.

Ta, aiek baiezkoa erantzun ziotenean, "goazen urira. Nik lagunduko dizuet eta guztiok izango dugu Kristo'ren omenez bizia emateko zori ederra".

Zesarea'ko bidean, uritik igesi zetorren apaiz bat aurkitu zuten, eta berak bataiatu zituan zaldun aiek danak. Bataio ostean, Zesarea-bideari ekin zioten; eta, oraingoan, baita apaiz igeslariak ere beraiekin.

—Asarretu zan Jaurlea. Apaiza eta berreun gudariek beren buruzagiarekin gogorki zigortuak izan ondorean, ziñopak lez galdu zuten lepoa.

—Amazazpi urteko Mames gaztearentzat izan ziran zigorketarik ikaragarrienak: sutan guritutako burniak, iztar-besoetako ezurrak beren zokoetatik ateratzeko erabilli oi zan "equuleus" izeneko tresna, eztitan bustirik "termita" izeneko txingurri-zulura jaurtia izatea..

Ezpetxe illuna, zigorketa-ondorean. An ordea, baiturik zeuden gaizkille, lapur, eta eraille gafto guztiak egin zituan kristau; eta, miran baten bidez, iare ta aske atera zituan danak espetxetik.

Andik laister il ornen zan pake gozoan San Mames.

Ez dut nik Euzkadi'n San Mames'en izena daraman baseliza askorik ezagutzen. Zuk bai, irakurle? Idatzi eidazu, bateren bat ezagutzen ba'duzu, Santu orrenganako eraspina gure aberrian noraiño zabaldu zan jakin dezagun.

\* \* \*

ORVANO.—Aldizkari ontan bertan, onen aurreko zenbakian, **Orbanianos**, bi aldiz, agertu zitzaigun. Egin gendun bere azterketa.

Caro Baroja españiar españizaleak, itz ori ORVANO, latina dala esango dizu: **Orbanus**. "Orva" gizakume baten izena zala, eta "anus" jabetasuna adierazten duan laterazko atzizkia. ORVANO, ortaz, Orvano'rena dugula.

Ez da Mitxelena latinzalea, Caro'ren asarre agertuko. Zer esanik ez gaur-egun-go filologilariak!

Gaur egun, euskera gaixoa al danik geiana larru gorrian — eta al ba'litz ezur gorrian — uzten saiatzea modan dagoan gauza bait dugu!

Filologilari eta edestilari oiek, geienak beintzat, Euskalerriko Unibersitatean aziak dituzu. Baiñan atzerritarrez eta atzerrizalez betetako Unibersitate ori, irakur-

le, benetan ote da Euskalerriko Unibersitatea? Izatekotan, soilki, Euskalerriko diruz bizi dalako izanen da.

ANO lateraz, "Anus"en ablatibu-era da. Ori ez diet Caro Baroja'ri eta Mitxelena'ri ukatuko. Baiñan "NO" euskeraren atzizki toki-adierazlea da. Eta ori ez didate neri Caro Baroja'k eta Mitxelena'k ukatuko.

Era orlan, larrukiko ORVANO au, Orba-No dugu, "orba-toki". ORBA berriz, euskeraz, gaztelarazko "madroño" dela diosku Kerexeta'k. "Madroño", "gurbitza" da euskeraz. Beste izen batzuk ere ematen dizkiote iztegiek. "Orba" edo "gorba" esaten dionik ordea, ez dut bat bakarrik aurkitu.

Alatagutziz, Orbaizeta bezala ORBA'z asten diran euskal-izen urgariak, ORBA gizakume baten izena ez baiña izadiko gauzaren baten izena dala adierazten digute. Lopez Mendizabal'ek nai duan bezala ABAR ote da? Orrela ba'litz ORBANO, "abarrategi" izango litzaiuke.

EBRO.—Arrigarria egiten zait 876'ko idazti batean Ebro izena ikustea; garai artan ibai orri IBERO esaten bait zitzaion. Orrelabadare, argitasun osoz dasaigu gure larruki onek: "In terra de Orvano in cannare Ebro ("cannare" ori, "canale" da: "ubidea").

IBERO izena zertik sortua ote dugu? Erreka baten izena izateaz gaiñera bada Naparroa'n erri bat. Ibero izenekoa, Aita Ebangelista buruñurdun ospetsuaren jai-terria.

IBERO, "IBERUS", ibai baten eta erri baten izena izateaz gaiñera, bada enda edo etnia baten izena ere. Iberoarrak, Afrika'tik etorri ornen ziran "IBERIKA" esaten zaion erdiugarte edo panintsulara, eta gaurko Alikante'ren inguruko lurraldeetan bizitzen jarri. Gero, andik, meazki-aroaren asieran euskotarren lurraldera iritxi ornen ziran Ibero ibaiaren ibarrean gelditzeko. Geroago, keltak, kelziarrak, agertu ornen ziran eta Santander-aldera bultzatu omen zituzten len etorritako iberoar aiek; eta orrela sortu zan erromatarrek Kantabria esango dioten lurraldeko jendea.

Beste batzuk, kantabritarrak iberoarrak ez baiña keltiarrak dirala esango dizute.

Ez'zazu ez batzuengan ez besteengan uste geiegirik ezarri; garai zaar artako jendeetaz eta gertakizunetaz oso gutxi bait dakigu era ziurrean.

Danadala, egia dirudi, euskotarrak, autrigoiak bereiziki, bi enda atzerritar aiekin naasi zirala.

Ibero ibaiaren ertzetan euskotarrak irten ziran garaille, kanpotar aiek euskotartu bait zituzten. Kantauri'n alderantziz, atzerritarrek berenganatu zituzten ango biztanle autrigoiak, agian, an autrigoi euskotarrak urri ziralarik, mendi-alde ura erdi-utsik zegoalako.

Badirudi beintzat erromatarrek onuntz etorri ziranean, kantauritarrek eusko--usairik geiana galdua zutela.

IBERO, "i" - "bero", "ur-bero", esan nai duala irakurria izango zera. Ez det uste orrela danik, naiz Urberoaga izeneko baiñu-etxe bat Bizkai'n egon.

Etimologi orrek gaiñera Ibero erriaren izena argitzeko ez digu balio.

Lopez Mendizabal'ek bi ataka irikitzen dizkigu argiketa ori egin aal izateko; ez oso nere gustokoak:

—"Ibar", "iber", ira, garoa, eta "o", atzizki toki-adierazlea ornen dira. Ibero, beraz, "garadi" edo "irati" izango genduke. Etimologi orrek ez luke Ibero ibaiarentzat balioko.

—"I", gaztelerazko "junco" eta "bero", gazteleraz "plantel". Era orlan Ibero "iitegia" litzake, ii ugari dagoan tokia. Ez zait au ere Ibero ibaiarentzat etimologi egokia iduritzen, naiz iaak errekonduan azitzen diran landareak izan.



Nere ustez, izen ori onela zatitutu bear dugu: "**Iber**"-"**o**". "**O**" atzizki toki-adierazlea dala badakigu, baiñan "iber" zer izan daitekean ez dakit. IBAR ote da? Ez diot ori batere oiñarririk gabe. **Iber** guztiak baskoien eta karistioen lurretan bait daude, "A", "E" errez biurtzen dan lurretan.

Eta asko dira IBER daramaten toki izenak! **Iber** Getxo'ko auzoa; **Ibera**, Araba'ko Arangiz'en; (**beralde**, Uarte Arakill'en; **Iberburu**, Mungi'n baserri bat; eta abar.

Izen oiek danak baskoi eta caristitarren artekoak diralarik, **Iber** ori ez ote da Bardulitarren **Ibar** bera? Orrela ba'litz Barduli'n **Ibar** daramaten izenak, **Iber** daramaten **beste** aien senideak izango lirake.

Eta edesti zaarreko iberoar aiek, nondik edo zertik artu ote zuten beren endaren izena?

Gure **Ibero** ibaietik, erantzun izan da gaur-egun arte. Orain, edestiaurrelariak, izena, Andaluzi'ko ibai baten izenetik jaso zutela dioskute.

Ez bata eta ez bestea, nere ustez. Giza-endeen, giza-leiñuen, giza-sendien eta gizakumeek sortutako erri eta errixken izenak leenagokoak izaten dira bá, ibaien izenak baiño.

Orain ere gure baserritarrek, Gipuzkoa'ren sortaldekoek adibidez, ez dizute "mutiko ura Ori'a'n ito zan" esango. "Cegama'ko errekan ito zan" esango dizute. Edo "Beasain"go errekan", "Tolosa'ko errekan", "Andoain'go errekan", "Orio'ko errekan"... Kontatzen ari dirana non gertatua izan, ango erriaren izena emango diote errekeri.

Ameriketako ibaiek ere beren ibarretako indi-endaen izenak daramazkite. Ez, auek aienak. Ala, **Dakota**, ibai baten eta indi-enda baten izena da. Ibaiak ordea, endagandik artu zuan izena; ez, alderantziz. Dakota ibaia, "Dakotatarren ibaia" da: "Dakotar's River". Giza-enda da aurrena, giza-enda da nagusi, giza-enda da lendabizi; gero dira ibaia, eta mendiak, eta ibarrak, eta lurak...

Gaiñera, iboroarrek beren izena Andaluzi'ko errekakokor batetik artu zutela esaten duten oiek, ez ote dakite, an urrun-alde artan, Europa'ren muga-mugan, Kaukas-Mendietan. IBERIA bat badala?

EBRO izena bera, ez ote da IBER izenaren aldakuntza bat? "Ibero" - "Ibro", (izki gogorren arteko "e" ori oso errez galtzen bait da). Eta "Ibro"tik, "EBRO"!

Guzia, "in timere et tremore" esana.

\* \* \* \*

BORUEVA.—"Terras (...) in Boruevan". Bureba, **Oka** ibaia ezetzen duan aran zabala, **Oka** eta **Obaren** mendien artean gaur Burgos'koa, eta len Araba'rena eta gero Iruño'ko erregeena izana, mende luzeetan euskeraz mintzatu ziran autrigoien bizitokia.

Ara ere, meakien aroaren asieran etorri ornen ziran iboroarrak. Eta gero keltziarrak, keltak, aiek kantauri itxasora bultzatuz; eta Bureba'n ere, ango autrigoi euskaldunak, nási omen ziran bi errialde oietako jendeekin. Baiñan garaille irten! Jende aiek Bureba'n, laister izan bait ziran euskaldunduak.

XVI mendearen asieran, Araba'ko lege zarraren zati bat idatzia izan zanean, arabarrek, idazketa ura zuzen egiña ote zegoen epaitu zezaten, Batzar Nagusietako beste ordezkari batzuen artean, bai al dakizu nongoak aukeratu zituzten? "Los dos representantes de Miranda, (gaurko Miranda de Ebro), y los dos representantes de la merindad de la Bureba". Nonbait irakurria dut ori. Ez naiz oroitzen non, baiñan saiatuko naiz, eta esango dizut non, nik jakiten dedan bezain laister.

**Oka** ibaiaren beste izen bat "**Vesga**" ornen da (1). "**Vesga**", "**wesko**",

---

(1) "Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco". "Bureba" atalean.

"guesko", "gesko"tik ote dator? Orrela deitzen bait zioten arabitarrek euskotarrari: "guasko", "güesko"; ugaritasun-eran, "**guaskuyin**": "euskotarrok".

Euskal-izen ugari aurkituko dituzu, oraindik Bureba'n, baita errien izenen artean ere: "En el alto Oka están intactos **Arralucía, Arreituri, Lamia**; en la llanura pueblos como **Arce, Arcefoncea, Mirabeche, Encio, Oña, Obarenes, Briviesca, Val de Azo, Oca, Zurita, Barcina, Qintanabide (1)**."

Ori erri eta toki nabarmenen izenen artean! Jakiña da Errietako eta toki nabarmen oietako izenek anitz azkarrago galtzen dutela beren jatorrizko itxura, iturri, menditxo, baso txiki, erreka koxkor, larre, belardi alor eta oien antzeko txoko izkutuek baiño. Arras interesgarria izango litzake Bureba'ko eta Okamendien bi aldeetako toponimia biltzea.

Okamendien egoan bait dago adibidez URKIZA; **Arlanzon** ibaiaren alboan: Antxe bertan jaiotzen da euskal izena daraman Arlanzon ibai ori, eta, naiz mendiaren beste aldean, ez andik urruti euskal izeneko beste bat: **Oka** deritzan ibaia. Ortik ote datorkio izena? UR-KITZA, "ur-ugari-tokia"? Ez dut uste. Eskierki Urkiza ori URKI TZA bait da "urki-asko-tokia".

Okamendien alboan, Bruxula mendatearen iparaldera dago gure edestian oroi-pen negargarritzko erri bat: ATAPUERKA. An izan giñan euskotarrok garaituak 1050'ko Iraillarren 1'ean. Borrokaldi artan il zan Naparroa'ko V Gartzia. Garaillea, Gaztela'ko lenengo erregea, Fernando I'a, izan zan. Bi errege aiek anaiak ziran, Naparroa'ko III Santxo Nagusiaren semeak.

ATAPUERKA, ori "arta-puarka", "artegi" edo "arditegi" dala, noizbait irakurria dut. Nik ordea, ATA, zalantzarik gabe, "ate", gaztelerazko "puedo" dalako, eskiertasun askorik gabe, erri aren egiazko izena "Ata-Pueda", edo "Ata-Puedo" gaurko izkeran, izan daitekela esango nuke. Euskeraz eta gazteleraz, itz beraren birkuntza. "Ata-Puerta". Orrelako birketak gertatzen bait dira.

Baiñan "pueda" oso itz ezaguna ta egunero erabili oi dana izanik, "peurka" nola biurtu dan ez bait dut ikusten, "puerka" orren azken "erka" "erreka" izan daitekela nioke, zu, irakurle, nere ausardiz asarretuko ez baziña. "P" zer dan jakitea, dugu gaitza. "K" baten aldakuntza?

Ortaz, Atapuerka "Atako-Erreka" ote dugu? Edo, "Atape-Erreka" agian? "Atapeko-Erreka"? Nork jakin!

Danadala, Atapuerka izen orrek, jatorriz euskalduna bear du, "erdlaroa ondo sarturik ere, an oraindik euskeraz egiten bait zan" (2): "Bureba era autrigona. Los autrigones conservaron su lengua hasta bien entrada la edad media". Egia.

Alatagutziz, ez naiz Bureba'ren etimologia ematera ausartzen.

"**Bureta**" euskal abizena, "B" erdergarri batekin "Ureta"ren aldakuntza dala diosku Kerexeta'k. Ortaz "Bure-Ba", "Ure-Ba" izango genuke: "Urbe" edo "Urpe".

"**Burueta**" berriz, "**Muñoeta**" omen daiteke, "muño askoko tokia". Eta baita "**Iradi**" ere; "uru", ira, garoa, ornen da bá, Lopez Mendizabal'en ustez.

**Borunda**, Naparroa'ko aran baten izena da. Badu gure larrukiko Borueba'rekin antza-pixka bat. "Oru", aipatu dugun Lopez Mendizabal'ek dionez, "olo", gaztelerazko "avena"ren aldakuntza dugu, **Borunda**, ortaz, "B" erdergarri bat, "olo", eta "da" atzizki toki-adierazlea izango genduke: "olo-tokia".

Ta..., bide ortatik joz, BORUEBA, (eusko sarkaldean "A" atzizkia "E" biurtzen dalako, "b-olue-ba" ote dugu? "b" protetikua kenduz gero, "olu-eba"? "Oluba"? "Olube"? "Olupe"?

Parregarria iduritzen zait itzekin ora orlan jostaketan ibiltzea. Alper-alperrrikako jardunketa gaiñera: idiaren adarretatik esnea atera naiean ibiltzearen antzekoa.

Badugu gaiñera BOLU, euzko-toponimo edo toki-izenetan ugari. "OIo"tik ez

(1) "Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco". "Bureba" atalean.

(2) Kerexeta'k, "Euskal Abizenen" liburuan.

baña "bolo"tik ote dator Borueba'ren izena? "**Bolo**", "**bolu**", errota da. Garrantzi txikiko gauza, **Bureba** bezain aran luze zabal bati izen-emateko!

Mitxelena'k, ez du **Bureba'rik** aipatzen, agian euskal-abizena izan daitekeanik uste ez zualako. Nik ezagutu dut Perez de la Bureba zeritzan arabatar bat. **Burunda'rik** ere ez dizu aipatzen Mitxelena'k. **Burundano**, bai, aipatzen du, **Burunda** ez baiñan izen ortako "**Burunda**" ori zer izan daitekean esateke "ano" atzizkiak mintzatzen danean.

Aitortu dezagun bá, apal-apalki, ez gerala Bureba'ren etimologia argitzeko gauza.

ELDUARA: Seguruaski, gizakume baten izena dugu, esaldi osoan —larruki onen idazleak— giza-izenak ematen dizkigula bait dirudi: "Tres vineas meas in costa de Berceia; una est iuxta vinea de Seseguto, de alia pars de vinea de S. Johannis, alia vinea iuxta vinea de ELDUARA, de alia pars vinea de Belliti, et tercia vinea iuxta vinea de Flaino, de alia pars vinea de ipso Flaino":

Euskeraz: "Iru masti, nereak, Berceia'ko maldan (1); bata, Seseguto'ren mastiaren alboan, Donibane'ren mastiaren beste aldetik; beste mastia, ELDUARA'ren mastiaren alboan, Belliti'ren mastiaren beste aldetik; eta irugarren mastia, Flaino'ren mastiaren alboan, Flaino berorren mastiaren beste aldetik".

Izen zerrenda ortan, "Donibane", edo gizakume baten izengoitia edo baseliza baten izena dugu seguruaski. Ta baselizek, alboan erantsia, bizi-toki bat maiz izaten zutelako, eta euskalerrian, norbaiti, bizi dan etxearen izenez deitzea oituzko gauza dalako, gure larrukiko "Donibane" ori baleike baselizaren saiets-etxe artan bizi zan baten izengoitia izatea. Berdin esan genezake ELDUARA'ri buruz, itxuraz, izen orrek, etxe baten edo auzo baten izena bait dirudi.

Izen orren gorputza, ELDU itza dugu, izen askotan agertzen dan itza: **Eldua, Elduaien, Eldurain, Elduain, Elduaran, Elduraien, Eldoien, Eldos...**

Ez da erreza ELDU zer dan jakitea. Lopez Mendizabal'en iritziz, "larre" ornen da. Nik ordea itz ori, zentzu orrekin, ez dut gure iztegietan aurkitzen. ERDO'ren aldakuntza ote da? **Erdoza'tik** asita, izen asko bait ditugu, Euskalerrian, "erdo" aurrizkitzat dutenak.

Baña ez dugu orrekin ezer askorik aurreratzen, "**erdo**" "eldu"ren aldakuntza dala, eta "**larre**" esan nai duala, ber-esaten bait digu Lopez Mendizabal'ek.

Ez da beraz ifior, "eldu" zer dan, eskierki dakianik.

\* \* \* \*

Mitxelena aitatu dut-eta, ataltxo au amaitu-aurretik zerbait esan nai nuke Mitxelena'ri-buruz.

Esan dedanez, "ANO" atzizkia ikertzerakoan, beste izen askoren artean onako izen-sail au damaikigu Mitxelena'k:

(1) Zentzu ori, erdiaroko latera baldarrean bakarrik izan zuan "costa" itzak. Ez erromateko latera txukunean. "Costa: clivus, latus montis", diosku iztegi ospetsu batek: ("Glossarium Mediae et Infimae Latinitatis conditum a Carolo Dufresne Domino de Cange. Cum supplementis integris Monachorum Ordinis S. Benedicti, D.P. Carpenterii, Adelungii, aliorum, suisque digessit G.A.L. Henschel".

Ona euskeraz, izen-buru anpatu orren esan-naia: "(Goi)-Erdiaro ta Bee-(Erdiaroko) Later-itzen Bilduma, Karla Dufresne Cange'ko Jaunak eratua ta Donebenito'ren Anaidiko Lekaideen, D.P. Carpenter'en, Adelungio'ren, beste batzuen, eta baita bereak dituan geigarriz ere, G.A.L. Henschel'ek argitara emana". 9 liburu dira. Aurrenekoa, 1840'koa; azkenekoa, 1850'ekoa Dana'k, Paris'en argitaratuak.

Iztegi oni, "Cangius" esan oi zaio, eta orrela esango diot nik ere beti.

"En la reja de San Millán hay los siguientes ejemplos: **Andiggana, Antezana, Arcillana, Argillana, Audicana, Durana, Erdongana, Eurtipiana, Licingana, Logrozana, Lopeggana, Maturana, Meiana, Mandoiana, Paterniana, Suvillana, Urvillana, Villavizana, Guzkiano, Kerrianu, Lubiano, Mengano, Zeriano, Zurbano; Adanna, y Erretanna** (actual Retana) están esaritos con doble "N".

Dakusazunez, Mitxelena'k, "ano"z eta "ana"z amaitzen diran izenak zerrenda berean sastzean, eta "ANO" "ANA" atzizkiak atal bat berean aztertzean, bi atzizki oiek atzizki bat bera dirala adierazi nai digula dirudi. Eta, ortan, zuzen dabil, seguruaski; **"ana"** **"ano"** biak atzizki bat bera bait dira... maiz-aski.

Neretzat ordea, atzizki ori ez da, ez laterazko "anus", ez izkuntza berortako "ana"; euskerazko "rena" atzizki jabetasun-adierazlea baizik; baiñan fonetika-eran amana; euskerak, euskera mintzatuak, "A"z edo "E"z amaitzen dan itz baten atzetik datorrenean, RENA orri "RE" jan egiten bait dio: "aitarena", "aitana" biurtzen dugu: ("txapel ori aitana da"), "Felipe'rena, Felipe'na": ("Txapel ori ez da Felipe'na"); "aizkorarena", "aizkorana": ("aizkoran kirtena").

Eta "a" mugizki edo artikuluaeren aurretik "i" bat aurkitzen ba'da, "re" ez ezé "a" mugizkia bera ere jan egiten dugu: "Mendiaren", "mendingin" biurtzen dugu: ("Mendingin muturra elurrez zuri dago"). "Iturri ondotik dator" esaten dugu, naiz "iturriaren ondotik dator" idatzi.

Ortaz, Mitxelena'k damaigun zerrenda ortan agertzen diran ANA batzuk nere ustez, "re" kendu zaion euskerazko RENA dira. Adibidez, **Eurtipiana, Eurtipiana-rena da, Paterniana, Paterniana-rena da.**

Beste batzuetan, argi-argi, "ANA" ori GANA da (bardulitar-baskoien GAIÑA eta GAÑA) Orrela, **Arcingana, Arzin-gaña da.**

"ANO" berriz, izen oietako batzuetan "NO" atzizki toki-adierazlea dugu: **Zur** zurba edo basa-mizpiritokia da; (orrela esaten bait diote gazteleraz ere arabarrek oraindik basamizpiriari: "zurba").

Zerrenda ortako beste izen batzuetan "ano" eta "ana" oiek zer izan daitezken jakitea, ez da ain gauza erreza.

Baiñan izen oiek Donemillan'en lekaidetxeari Araba'ko erriek ordaintzen zien burni-barren zerga damaigun larrukikoak dira, 1025'ekoak, eta aztertuko ditugu banan-banan XI mendeko larrukietara iristen geranean; oraindik orain IX mendekoetan bait gabiltza.

Ala're, Naparroa'ko V Gartzia doakabeaz itzegin dugulako, nai nuke Mitxelena'ren zerrenda ortatik izen bat bereizi: PATERNIANA. Jende ark "IN" agoskatzten zuan eran, PATERÑANA.

Bi aolkulari zituan kutunenak V Garzia erregeak: Oña'ko Abata Eneko Donea, eta AITANO, Naxera uriko Buruzagi zaarra. Biek esan ornan zioten Atapuerka'ra ez joateko aolkua, ikusten zuten bá, dirudianez, beren errege ausarta ura gudara sartzeko prestaturik ez zegoala.

Aolku bera eman zion Domingo Done Silos'ko Abatak Gaztela'ko Errando edo Fernando l'ari, anaiarteko borroka zital ura galerazi naiez, Naparroa'ko III Santxo Nagusiaren semeak bait ziran bi errege aiek. Alperrik.

Atapuerka'n il zan, bere erregea bere gorputzez estaltzearen AITANO zintzo onuragarria. Alperrik izan zan ori ere; laister, Garzia erregea bera erori bait zan illik.

Bere esaneko batek, Fortun Garzia zeritzan euskaldun saldu batek kendu zion ezpataz bizia. Fortun au eta beste auskaldun saldu bat, Santxo Santxez, izan bait ziran borrokaldi artan Leon'go Jaurerriko zaldundiaren buruzagiak. Belar edentsu zikiñak alor guztietan jaiotzen dirala! Baita Euskalerrian ere!

AITANO euskal-izena danik ez dit noski iñork ukatuko.

Ta, "ano" eta "ana" biak atzizki bat bera izanik, AITANO ori ez ote dugu AITANA, ots, "re" galdu duan AITARENA?

Galderatxo bat orain: bi era oietan zein ote zarrena? "Ana" edo "Ano"?

Euskalki batzuetan geiago erabiltzen ote zan bata bestea baiño? "Ano" erabiliagoa ote karistiarren eta baskonitarren artean?

Naxera, Aitano buruzagiaren una, Errioxa'n, Baskoein eta Autrigoien arteko muga-mugan zegoan. Gaur-egun, oraindik, bardulitarren euskeraren gaindik, sarkaldeko eta sortaldeko euskerek badituzte kidesasun bixiak.

Eta baita beste galdera bat ere orain oraindik: "PATERNUS" gizonezko-izena, eta PATERNA, emakumezkoena, sarri agertzen dira gure dokumentu zarretan. Sanctus Paternus, ez da mozarabitarren liturgi-egutegian agiri. Nondik etorri ote zan gugana. Galietan, izen ortako bi Done izan ziran. Iparretik etorria ote dugu bá? Ala, gure dokumentu zarretako Paternus ori..., ez ote da... euskeratik laterara egindako itzulpena? euskerazko ALTANA laterazko PATERNUS biurtua? Bi itz oiek zentzu ber-bera bait dute! Polita litzake ori, benetan.

\*~\*~\*

Baiñan ezin azturik utzi izango dugu, VI mendean, Tours'ko Gregorio eta Poitiers'ko Fortunato gotzai edestilariak dioskutenez, Paterno Donea, Poitiers'en jaioa, mende orren asieran Euskalerrian ebangelioa zabaltzen ibilli zala.

Aren omenez artu ote zan eman Paternus izena? Edota, aurretik emen, "Aitarena", izentzat erabiltzeko oitura bazalako izan ote zan zentzu bera duan Paternus ori ain errez onartua?

San Paterno onen kondairak ere baditu gertakizun pinpiriñak: Bein batean, "lotsarik eta duintasunik gabeko emakume batek, Paterno'ri eta onen lagun bati iseka egitearren, atzeko soñekoak jasota, atzekoalde guzia erakutsi ornen zien. Ez omen zuan ori Jainkoak zigorrik gabe bertan utzi, zauri ustelez beterik gelditu ornen zan bá emakume aren ipurdia, eta ez ornen zuan osaketarik izan, Jainkoaren bi serbitzari aiek ala nai izan zuten arte".

Ona Fortunato gotzaiak nola esaten digun ori: "Inpudica et sine fronte mulier, ut eos pudore afficeret, elatis a tergo vestimentis, posteriora illis sua monstravit. Quod impune non tulit Deus, dum nates eius ulceribus innumeris putruerunt, que sanad non potuerunt, nisi petita a servis Dei Venia".

\*~\*~\*

Aipatu dugun, izen sorta aren ostean itz bixigarriok damaizkigu Mitxelena'k:

"Es digno de señalarse la total ausencia de **h** en ellos, extraña en un documento en que tanto abunda esa letra". "H"z betirik aurkitzen dan dokumentu batekoa dan izen-zerrenda ortan "H"rik ez aurkitzea arrigarria dala, alegia.

Baiña... ori arrigarria ote da? Ez ain arrigarria, Koldo, "H"ak lumalari zaar aientzat batere baliorik ez zuala badakigunontzat.

Koldo Mitxelena'k, ori, naitanaiez jakin bear zuan. Alare, "H"aren alde jeiki zan Arantzazu'ko billera doakabe artan eta bera da, "H"a ikur nagusi duan "el batuari", atea dana-dan iriki ziona.

Mitxelena ez ba'litz "H"aren alde jarri, —H eleneraz ETA dalako—, H ori ikur duan "el batua" eusko-komunista marxitarrek asmatutako txepelkeri utsetan geldituko zan.

Mitxelena ordea, "H"aren eta "el batua"ren alde jarri zan. Eta Mitxelena bait zan orduan euskal-filologilari bakarra, "H"a ta "el batua" jakintza mialleko gauzak zirala uste izan zuan emen, bere burua jakitun agertu nai zuan orok; eta Mitxelena'ren atzetik, "H" (ETA) ikur duan "el batua"ren alde jarri ziran, Eusko Alderdi Jeltzaleko jendeetatik eta Garaikoetxea Lendakariaren Jaurlaritzatik asita... bankalari, finantza-gizon, eta españiar eskubiko politika-gizonetaraño, danak. Danak, "euskal erreboluziaren sinbolo plastikoa dan "H"aren" alde! (1) Mitxele-

(1) Kakotx-arteko itz oiek, Haranburu Altuna'renak dituzu: "Euskal Literatura 72"; 11'n or.

na'k, bere izenaren itzalez, "zientzi-ekintza", "hechos científicos" biurtu bait zitudan "el batua" eta onen "H"a.

Ez da arritzekoa Mitxelena'ren arrakasta; orduango euskerazale ospetsuak, bear bezala Mitxelena'ri aurka egiteko ez bait ziran gauza izan! Bildurrez? giegizko apaltasunez? pakeaganako maitasun okerrez?

Ori esatean gure Lekuona'ta Imanol maixu maitea datorkit gogora. Pakea ezarri naiean ibilli bait zan! Negargarria, Arantzazuko Batzarra amaitzean, euskaltzainiei egin zien itzaldia. (1)

"Ni pake-gizona naiz, erdi-bide baten zalea" esan ornen zion bein Latxaga'ri. Arriturik etorri zitzaidan Latxaga. Ez zitzaion arrazoirik peitzen. Bai bait zekian "el batuaren" bultzagilleak marxistak zirala, eta marxistak, pake-maitale eta erdibidezale, konbeni zaienean bakarrik agertzen dirala, eta konbeni ez zaien bezain laister, pake oro zanpatu ta erdibide guztiak urratuz, ostera beren bidetik jotzen dutela, aurrean arrapatzen duten guztia zapalduz.

Ala jaurti zuten Lekuona bera Euskaltzindiko lendakaritzatik. "Me defenestron", "leiotik beera bota ninduten", idatzi zuan gero Lekuona'k berak.

Gaur, bai Lekuona eta bai Mitxelena, beste munduan daude. Lortu dezaigutela, otoi dagiet, Jainkoagandik, zentzu onaren grazia. Zentzu on zintzoa, euskaldunontzat; eta, naiz euskaldun izan ez, gure politikaren ugelak beren eskuetan dituzten jaun guztialdunentzat. Gure agintariak, geienak, euskotarrak baldin ba'dira ere, euskaldunak ez bait dira! Alata-gutziz, beroien eskuetan daukagu euskeraren etorkizuna.

**Latiegi'tar Bixente**

---

(1) 1969'ko "Euskera" aldizkarian dator. Irakurri ezazu, merezi du-ta.





# GOI-YAKINTZA'runtz urbiltzeko naye an euzkeraz egindako u ats txikiak: ZENTZUMENA - GOGAMENA - ASMAMENA

Au eko atalean oldozmenaren ga antzia oa erazi dugu, bai ta oldozmenetik oldozpena nola dato en, bai ta bi oyetatik oldozketa ere nola sortzen dan. Eta guzia gizonaren adimenenan ari -izateko dagoen bide bikaña adierazteko.

Adimenaren ari-izate ortan ba-dagoz beste azpegiak, begiratzeko ta aztartzeko oso egokiak diranak, bea ak ere gure gogo-bizia obeto ikusi ta ulertzeko. Bertan auetxek ditugu: Zentzumen, gogamen, asmamen, ulermen eta ezagumen; guziak adimenaren eta oldozmenaren beste almenak bezela ikusi ditzakegunak, eta ororen artean gure gogo-biziaren edapena nolako zabala dugun oartzeko. Begira ditzagun guztiak bat-banaka, oro alik eta ongienik ateman al-izateko.

ZENTZUMENA. Zer ote da zentzumena?, gure baitan erabiltzeko dugun zentzumena? Onela edo guzien aldetik onartzen danez: Ona gaitzetik eta egizkoa gezu ezkotik ongi bereiztea; bai ta bi asmo edo gogayak alka enganako azpegian ikustea. Eta esan-nai ortan gizonarentzat zentzumen zuzena izateak duen ga antzia garbi agertzen da.

Jakiña, zentzumena zuzena izan diteke baña oke a ere, zentzumena gure adimenean oldozmena bezela sortzen ez talako; oldozmena adimenean bitartekorik gabe gertatzen da edo gerta diteke; zentzumena ez. Zentzumena ari-izateko, ona ta gaitza, egia ta gezu a bereizteko, asmo edo gogayak ere izatea ezinbestekoa zayo, oyei buruz yardutea berarentzat bea -bea ezkoa dalako; eta ortatik sortzen da zentzumena zuzen ala oke a izan al-izatea. Beraz, gure baitan dagozen adimena ta oldozmena ezinbestekoak ditugu zentzumena jokoan ibiltzeko; baña ez ori baka ik, gure baitan eta guregan ez dagozen beste azpegiak noraezekoak ditugu zentzumena gertatu al-izateko; ta of auxe ere agertzen zaigu garbi: gure baitan dagozen almenak eta oyen lekorean eta gugandik at dagozen beste gogayen artean sortu diteken alkartasuna, zentzumenaren-bitariez burutzen dana. Ta zentzumenetik zentzuna ta zentzua bere egipenak bezela sortzen zaizkigu, zentzuna adiña bezela ta zentzua oarmena legez.

Goazen orain GOGAMEN'aren almena ikustera:

Gogamena oldozmenetik sortzen dan egipena dugu, zuzen-zuzen eta ezinbes-

tekoa bezela dato ela; ta egipen berberak ez diran bi almen oyek ain alkarturik agertzen diralako, ba-dirudi biak gauza bera dirala, ta sa i bi izen oyen bidez, oldozmenarena dana adierazten da. Baña guzia zeatzez begiratu ezkeru, garbi agertzen da oldozmena adimenetik sortzen dala ta gogamena oldozmenetik.

Oldozmenean, noski, goi-goyeneko almena ikusten da, ta gogamena almen ortatik dato en egipen bat legez. Eta egipen ori, enurarik gabe, auxe da: oldozmena gai berezi guztiai buruz erabiltzea, oso egokia zayon jokeraz. Beraz, oldozmeneko gai bakoitzean eta guztietan erabiltzekoa dugu gogamena; ta jokera oyek, ziñez, gure baitan sortu ta erabiltzen dirala ateman bea da. Jakiña, gure baitan dagozen almen oyek eta beren erabiltzea, gure baitan egon a en, guregan eta gugandik at izan ditezken beste egipenak so erazi ditzakete; baña oyek beste azpegiak dira lengoetatik ateratzen diranak lengoetakoekin bat egin gabe; ta o ela lenengoak diran bi oyek, ots, oldozmena ta gogamena gure baitan baka ik dagozenak ditugu, eztabaidarik gabe.

Guzti au esateko gure gogamena erabilli dugu, arean; baña beti oldozmenaren asmoaz nastu gabe; ta orixe gerta diteke gure baitan burutuko ditugun gogamen guztietan; eta gogamenaren egipenean beste azpegi auk ere oaf ditzakegu: gogartea edo gogarketa, ots, gogamenaren ari-izatea bezela; gogaera, ots, gogamena nola burutzen duguna; gogaketa, ots, gogamenaren egipen zeatza; gogalpen, ots, gogamenaren edatzea bezela, gogapen ere dei dezakeguna; gogartu, ots, gogamenaren erabiltzea.

ASMAMENA. Begiraten ja ai gaitzke. Zer da, baña asmamena?; geron ustez onela begira dezakegu: gogamenaren edapena bezela, gogamena erabiltzearen egipena lez. Ongi ateman ditekenez gure gogo-almen guziak beste batengandik sortzen dira gure baitan beti. Ba-dugu oldozmena, bera erabiltzean bereala sortzen da gogamena ta u engoan, bereala, asmamena.

Asmamenaren bidez, gogamenak so erazten dituen asmoak, gogayak, alde guztietatik begiraten ditugu, onak ala txafak, egokiak ala ezegokiak, onartzeko ala astantzeko ote diran ongi oartzeko. Ta berezkuntza oyek egitea, guretat, gure gogo-biziarentzat ain bea a zaigularik, o ela begira dezakegu asmamenaren lana nolako ga antziduna dan gure bizirako, gure gogo-bizirako batik bat, goi-goyenean eramateko ta o ela eusteko ere, zentzundunak geranez o ela ja aitzeko ta mail ortatik, iñola ere, beeratzeko.

Jakiña, gure asmamenak bide oke a be a dezake, ta orduan elduko dan ondorioa guretat guztiz kaltega ia izan diteke; baña o ek ez dio ezer kentzen asmamenaren almenari, ta au gogo-egipen bat bezela baka ik begira dezakegu beti, onerako ala gaitzerako erabillita izango ote dan gogoratu gabe, ots, bere goiko izaeran ikusten; ta o ela gure adimenetik sortutako ondorio guztia berezkoa bezela.

Oldozmen, gogamen eta asmamenetik beste zerbaitera eldu gaitzke; noski, asmo ta gauzak ulertzeko ta ezagutzeko, ta ondorioaz guziaz buruz zerbait, asko ala gutxi, jakiteko. Onela gogo-kate o en azken estunetara eltzen da: ulertzeraño, ezagutzeraño ta jakiteraño. Ba-ditugu, beraz, gure baitan beti beste iru almen auk: ULERMENA, EZAGUMENA ta YAKINTASUN. Egitan, ulermenean eta ezagumenean dago almena, ez yakintasunean; auxe azken elburua bezela agertzen zaigu, aipatutako almen guztietatik eto ia bezela. Ta yakintasun ori, benetan, gure baitan gertatzen dan egipena dugu; arean, gero, yakintasun o en bitartez guregan eta inguruan so ditezken beste egipenetara igaro gaitzke, yakintasun ori gure bizirako egokitasunez erabiltzean; baña emen geron baitan baka ik gertatzen dan izaera bezela begiratzea dugu naikoa, geron baitan edatzen dan neulan eta egokeran yarduteko.

Bea a zaigu ulermena, ezagumena ere so dedin, auxe lenengotik ateratzean, ta biak oso alkartuta bezela agertzen diralarik; bai, beaf-bea a zaigu ulertzea



geron baitan ezagumena ere izateko, ezinbesteko ondorioa lez; eta bietatik, azkenez, yakintasuna lortzeko.

Gogai guzti auek erabiltzean, garbi atera dezakegu geron baitan dagoen gogo-bizia nolako zabala dan, eta ziñez oyen bitartez betetzen dugu egokienik gure barneko bizi ori, geron baitan daramagun goi-goyeneko bizi yaukal ori. Ta guztia o ela begiratzean, beste ondorio au be atera dezakegu: gizonaren tasuna berebizikoa dala, beste bizidun guztiengandik oso goratua dagoela oartzean. Eztago, beraz, ludi ontan beste izaki goituagoa, ta ortik be bere duintasuna nolako nabarmendurik dala ere begiratzekoa dugu. Ta gizonak, guzti ori oartu ondoren, onartu bea du zearo, bere bizian barna duintasun ortan irauteko alegin aundienak bete egin bea dituela, egokia zayonez ongienik bizi-izateko.

Orain arte begira ta aztertu ditugun gogo-almenak, argi agertzen danez, geron baitan bizi dirala, ez guregan, itza izanezik, au galga bietan ari-izan ditekkelako, ateman dezakegu ongi. Alakotz, egokia da ta izateko ere, giza-izaeran ezberdiñak diran bi mail dagozela izaera ori osotzean, geron baitan eta guregan, bakoi-tari dagokion eraz, oartu ditezkenak. Ezta esan bea ik bi galga oyen artean alkartasun aundia dagoela, ta bea a izango zaigu beti alkartasun ortatik so diteken nolabaiteko nastean ez sartzeko, noiz edo noiz oso e az izango eztana; o engatik a eta aundiaz yardutea izango zaigu noraezekoa, asmo guztiak alik eta garbienik ikusi al-izateko. Orixe izango da beti guztiiontzat ari-izateko baldintza bea a, gero ta au erago eldu gaitzeken.

**U estarazu'ta Andoni**





# FILOSOFI GAIETARAKO IZTEGI TXIKIA (III)

## HUMANISMO (II)

Aurreneko "humanismo" ori oraingoz alde batera utzirik, ikus dezagun nolakoan, "humanismo" izenez datorren filosofi eskola. Bi eratako gizalde-zale aipa genezake bertan. Geienek, gizatasuna egiazkotzat arturik, gizona dute beren filosofiaren oinarri. Gizon "illezkorra", oroz gain goretsi bearra, eta guztion eredu bikain dana billatzen dute, giza-edestiaren aldarte eta gorabera guztien artean. Gizona gorapatu naiean Jainkoagandik urutiratzen dira. Bigarren erako gizalde-zaleak bide are okerragotik dabiltza. Erabat saiatzan dira giza-izatea biurritzen. Ez ornen da adimendun, ez omen du moraltasun legearen bearrik sentitzen, eta ez omen dauka Jainkoarenganako barren-joerarik. Ori esan ondoren, gizon izatearen egitasuna ere ukatzen dute. Ez ornen da gizatasunik, Sartre jaunak dienez. Ikus onen "Humanismo y existencialismo" liburua. "Gauza guztien neurri omen da gizona", eta berak ematen ornen dio izate bere buruari. Berak moldatzen, ezer uts dan gizon izatea. Sartre, bide ortatik, Nietzsche-ren "nihilismo" illunean sartzen da.

Esan dezagun azkenik, F. Alquié bere "Humanismo surrealista y humanismo existencialista" itzaldian eta Sartre "Humanismo y existencialismo" liburuan, biok berdin mintzatzen dirala; eta, ala berean, Marx iraultzallearen pentsakera ere, "izatasun-zale" eta "surrealista" diralakoen ondo-ondoan ipiñi ditekela.

## IDEALISMO, IDEALIDAD (Idéalisme, Idéauté/Idealism, Ideality) ELBURU ZALETASUNA, USTE-UTSKERIA

Gaztelarazko "ideal", "idealismo" eta "idealidad" erro beretik datoz, "idea" itzetik alegia. Euskeraz besterik da. "Idea" bera, "juicio" edo "parecer" danez, USTE edo IRITZI esan leike; kanpotik datorkigun bulko edo pentsamentu danez, BURURAKIZUN eta GOGORAKIZUN; gure baitan darabilkigun pentsaketa danez, BURUTAPEN eta GOGAPEN; gure gogoaren sor-gauza danez, GOGAI (pentsagai), GOGOETA, GOGAKIZUN eta abar.

"Ideal" itza ez dijoa bide ortatik, beti beintzat. "Relativo a la idea" baldin ba'da ("lucha de ideas" adibidez) GOGAI-burruka esango, erro berari elduaz; "irreal edo imaginario" baldin ba'da, USTE UTSEZ-KO: "perfecto" edo "sublime" izanda, BIKAIN, GUZTIZ ON, EZIN OBE...; "prototipo" edo "ejemplar digno de imitación" izanda, EREDU, ON-EREDU, JARRAIBIDE...; "aspiración" edo "finalidad" izanda, ELBURU, XEDE, JO-MUGA; eta "quimera" edo "ensueño" izanda,

AMETS, AMESKERI, USTE UTS. Beste gai askotan bezela, ontan ere eskuetan erabiltzekoa da Aita Plazido Mujika'ren Iztegia.

"Idealismo" adierazteko ELBURU erroari eltzen diogu; eta, bidezkoa danean, au da, arrazoizko xedea danean, ELBURU-ZALETASUNA esan ditek; bidegabeskoa edo geiegiatzkoa baldin ba'da, berriz ELBURU-ZALEKERI. Onelaxe, noski, beste zenbait era egokien artean.

"Idealidad" itzari buruz esan dezagun, azkenik, "ez-egi" edo "ameskeri" moduan artzen dala zenbait filosofi liburuetan. Orrela, izakiak dauden lekua egiazko ala uste utsezko toki dan galdetzen dute zenbaitzuek. matematika-zaleek, era berean, "numero" diogun zenbakia egitazko gauza dan ala ez. Ortaz, eta azken esan-nai oni atxikiaz, "idealidad" euskeraz "ameskeri" edo "uste-uts-keria" esan ditekela deritzait.

### **INDETERMINISMO (Indéterminisme/Indeterminism) ALDEAR-EZE**

"Determinismo" itzaz mintzatu geranean, eskola orrek bi eratako jarraitzalle dituala esan degu. Izadiko aldarteak lege jakiñen agindupean gertatzen dirala diotenak; eta, orretzaz gaiñera, giza-egintzak ere fisikazko legeen mendean daudela uste dutenak. Oiek, ao batez, gizonaren askatasuna ukatzen dute. Eskola onen alderantziari "indeterminismo" deritzaio. Alabear-ezezko eskola. Bi aldetatik era genezaioke, giza-askatasuna ukatzen duan "determinismo" itsuari. Metafisikaren eta fisikaren aldetik. **Lege morala**, Santo Tomas Akinotarrak erakusten digunez, ez dago fisika-legeen azpian. Jainkoak izatearekin batean gizonari emana da, bere buruaren jabe dan gizonak aukeran jo dezan. Gizona, askatasunik gabe (barne askatasunik gabe) ez litzake gizon izango. Tximu edo beste animalien bat baizik. Giltzapean eta estuasunik gogorrean dagon gizona bera ere, ez da bere barren baitan iñoren morroi. Iñork ikutu eziñezko bi ondasun bikain bait ditu gogo-mamitan: adimena (berak nai duana pentsa aal izateko) eta naime-na (iñoren eragiñik gabe, jaun ta jabe, aukeratzen duana maite ala gorroto izateko). Orregatik, "determinismo" eskolaren alabear itsua, zearo bazartzekoa da metafisikaren aldetik. Bañan zer dio oraingo fisika berriak, izadiko lege jakiñei buruz? Gogora dezagun Carl Werner Heisenberg fisikari ospetsua. Alemani'ko Wurzburg'en jaio zan 1901'ko abenduaren 5'an; eta bai Leipzig'en (1927-1941), bai Berlin'en (1941-1945) fisika irakasle izan zan Unibersidadean. Fisika'ko Nobel Sana jaso zuan 1932 garren urtean, eta berak argitaratutako liburuetan gai auek sakonki aztertzen ditu: "cuántica" deritzaion mekanikaren fisika-legeak, atom-fisika eta fisikak filosofiarekin dituan arremanak. Aipamen aundikoa da, gaurko egunean, gizon onek atomoari buruz agertzen duan iritzia. Berak dionez, atomoa bera eta atom-osagaiak ezin ditezke antz-irudiz adierazi eta azaldu; ezta ba-diranik sumatu ere, "matricial" izenenko kalkulo bidez ez ba'da. Kalkulo ori Arturo Carley'ek asmatua da (1821-1895) eta asko erabiltzen da matematika-alorreko fisikan. Egia da, noski, gure zentzuek nabaitzen duten izadian fisika-lege jakiñak dirala; eta, izakien arteko txukuntasunean, Jaungoikoaren indarra eta jakinduria ikusten ditugula. Bañan baita (eta au garbi aitortu bearra degu) gizona txunditurik geratzen dala ere txiki-txikitasunaren munduari begira. Heisenberg jakintsuak dionez, atom-osagaien indar-goraberak ezin argituzko illunpean izkutatzen zaizkigu. Ezer gutxi genezake gizonok izadiko lege arrigarrien aurrean; eta, txiki-gauzetan ain errez galtzen geranok, obe degu apal-apalik Jainkoa gurtu, ao betez gezur esaka aritu baño.

### **INDIVIDUALISMO (Individualisme/Individualism) BEREKOIKERIA**

"Individuus" latiñezko itzak "nor bakoitza" edota "zer bakoitza" esan nai du. Gure erri-izkeran "gizon BAKOITZA" diogunean, beste gizon guztien antzekoa

eta, ala berean, beste iñor ez bezelakoa dala adierazten degu. Sagar BAKOITZA, sagar guztiak bezelakoa izanik, bat eta bakarra da. Ba-da beraz arremarik "bakoitza" eta "talde" osoaren artean; eta, giza-taldeen bizitzak erakusten digunez, arremarik oien zailtasunean jaiotzen dira, sarritan, gizarteko liskar ezin konponduak. Eta ez da arritzeko gauza. Izan ere, noiz asten dira "nor bakoitzaren" eskubideak gizartean? Nun bukatzen? Eta, ala berean, zer eska dezaiotzeko gizarteak erritar bakoitzari? Norañoko eskubideak aitortu bear zaizka, erritar guztiek osatzen duten gizarteari? Bi aburu nagusi eta bi alderdi sortu oi dira eztabaida oien berotasunean. Batzuk NORBERE-ZALE dituzu politika kontuan, eta besteak TALDE-ZALE. Eta ortik iskamil guztiak. Alaz ere, eta kristau zentzurik izan ezkerro, ongi elkartu ditezke nazio barru eta nazio arteko goraberak, zuzenbidezko lege sendoen bidez. Bestela berriz, sesio-burrukak bazterrik bazter ugarietako. Ñola pakerik izan giza-gogoak elkar-burrukan diranean? Soaren Kierkegaard (1813-1855), Friedrich Nietzsche (1844-1900) eta Jean Paul Sartre (1905) NORBERE-ZALE purratuak dira; Carl Marx (1818-1863) eta Emmanuel Mounier (1905-1950), berriz, biak zein baño zein, TALDE-ZALE sutsuak.

### INDUCCION (Induction) LEGERA BIDEA

"Inducir" (eragin) eta "deducir" (ondoretu) latinezko "ducere" aditz beratik datoz.

Bata IN-DUCERE (eragin, mugi-azi, norabait eraman, norabidean ipiñi) eta bestea DE-DUCERE (zerbait eraman, ondorea atera, ondoratu). "Deducere", lojika-bidez egiten dan lana da. Ots, sail bereko guztientzat dan lege batetik zenbait ondore ateratzea. "Inducere", berriz, zenbait gertakizunetatik guztientzako legera igotzea. Fisikariak, arria beti abantara berdiñez erortzen dala ikusirik, korputz astunaren eror-legea sumatzen du ( $h = 1/2 + t^2$ ). Lege bidean jartze orri deritzaio INDUCCION. Eta legera jotze orixe da, ain zuzen ere, jakintza guztien oiñarria. "Induccion" deritzaio LEGERA BIDEA.

### INFORMACION, INFORMATICA (Information, Informatique/Information Theory) BERRISIDE-IZTI. BERRIEMATE IZTIA

Ogeigarren mende ontako teknikaren aurrerapen aundiak, ondore asko ekarri dizkigu, eta bat berri-bideen ugalpena. Telegrafoa, urrutizkiña, telex, irratia eta **telebista** dira ezagunenak. Bañan ez degu aaztu bear, tresna bikain oiek egiteko, beste teknika asko ere sakondu bear izan dirala, "máquina calculadora" deritzan kontagaillu'tik "satélite artificial" izeneko itzul-tramankulu'raño.

Pillaka albiste biltzen dira egunean mundu guztitik, eta alik txukunen sailkatu bear izaten dira, lenbailen zabaldu eta ezagutu ditezten. Bañan berri edo izpar dala diogun albistea, gaur milla eratako izan ditekete. Albiste da, noski, irratiaz, telebistaz, eta beste edozein zabal-bidez adierazten dan guztia; bañan baita kontagaillu'ko señalear ere. Tresna oien laguntzaz egiten bait dira usu ta azkar, oraindano ezin egin ziran matematika-konturik zailenak. Eta era berdintsuan neurtzen dira gaur, bai animalari, bai gizakien "sistema nervioso" deritzan kirotzaren goraberak ere. Orregatik, berri-zabalketak zer-ikusit aundia du jakintza askoren aurrerapenarekin; eta jakintsuen azter-lan mamitsuek, ala berean, zer-pentsa pranko ematen diete filosofi-zaleari. Aipa ditzagun gai batzuk.

**Matematika.**—**Sannon** eta Weaver jaunek, 1949 garren urtean, teori berri bat sorriu zuten albisteen zabaltzeari buruz; eta, ori dala bide, gaur albistek neurtu, mugatu eta oso azkar edatzen dira. Teori orrek berak aurrerapen aundiak ekarri ditu beste zenbait jakin-gaietan ere. Izkuntzak ezagutu eta elkarren artean aldeertzeko egiñalean, batik bat.

**Teknika.**—**Gaur** Zabalbide-iztiak, "ordenadores" izeneko antola-gailluen tekni-

ka guztiak biltzen ditu, "cerebros electrónicos" deritzaien Elektron-Buruak gidatzerako. Teknikak erabili oi dituan legeak, beti berberak dira. Lege jakiñak eta zeatzak. Eta beroien zeaztasun ortatik, ain zuzen ere, "Lógica matemática" deritzaion jakintza berria sortu da. Esan dezagun ordea jakintza au, George Boole (1815-1864) matematikari ingelesak askoz aurretik asmatu zuan Aljebra-Lojikaren jarraipen dala. Jarraipen bikaiña, benetan. Gaur eguneko antola-gailluak ("ordenadoras") arrigarri aurreratu dira, eta zearo aldatu dute ola-lantegien eta Estaduen zuzendaritza.

**Gizarte-bizitza.—Ez** da erreza neurtzen, gaur berri-zabalketak daukan indarraren aundia. Mezu asko dator zabalgai Albiste-Etxetara, eta edonoraño iristen dira aidean egunkariak, irrata eta telebista. Bañan zabalkunde ori, gutxi batzuen eskuetan geratuko ba'litz, gizartearen kalde aunditarako izango litzake. Artaz balia bait ditezke Albiste-Etxe berak, Finantzi-Elkarteak eta alderdi bateko politikariak, egiri ez bañan, beren aginte-egarriari laguntzeko. Ortikan letorkioke erriari pentsa-moduko naspillik negargarriena.

### **INFRAESTRUCTURA (Infrastructure/Substructure) AZPI-ERAKUNDEA**

Sozialista geienen izkeran, "infraestructura" edo AZPI-ERAKUNDE esan oi zaio erriko ekonomi tankerari. Erri artako ekonomiak darabilkian era-moduari. Azpiko mail ortan sortzen ornen dira, erriari etorri dakizkioken arazorik larrienak. Estaduari eta beronen dotriñari, berriz, "supraestructura" edo GAIN-ERAKUNDE deitu oi diote. Marx jaunak ez zuan izkera ori egokitza etsi, bere liburuetan dionez.

### **INMANENCIA (Immanence/Inmanence) EGOIZKETA**

Latiñezko "inmanere" aditzak "bertan egon" esan nai du; eta, "panteista" diranen mintza-eran, "inmanere" ITSATSI izango litzake. Jainkoa munduari itsatsita dagola diote, au da, ez dala mundua beste Jainkorik. "Dana jainko", ori esan nai du "panteismo" itzak. Eta sail ortan sar ditezke, zeru-lurren Egille dan Jaungoikoa sinisten ez duten filosofo guztiak. Dana jainko dala esatea, Jaungoikorik ez dala esatea bait da. Niezche'k, Jainkoa il zala esanik, gizona goresteari ekin zion. Gizona zala zion, egitazko Jainko. Guztien elburu eta bide, izadiz gaiñetik jartzekoa. Filosofo orretzaz gaiñera, Marx eta Heidegger'en jarraitzalleak ere, jainko-ukatzalleen talde berean dabilta.

### **INTELECTUALISMO (Intellectualisme/Intellectualism) ADIMEN ESKOLA**

Adimenaren aldeko eskola ontan, Platon'etik Kant bitarteko pentsalari geienak jarri genezazke, geroztikoak alde batera utzi gabe. Oientzat guztientzat, adimena da giza-gogapen eta jakiteen sorburu bakarra. Bera, giza-egitza zuzenbidera eraman dezazken gidaria. "Intellectus" itza latiñezko "intellegere" aditzetik dator ("inter legere"tik alegia) eta, Descartes'en iritzirako, "adimena", eta "ulermena" gauza bere dira. Kant eta Hegel'entzat, berriz, bi gauza desberdin. Onoko itz ezagunen bidez edierazten du Leibniz'ek eskola onen mezua:

Ez da ezertxo ere adimenean aurretik zentzuetan egon ez danik adimena bera besterik. Zentzuek (ikusmenak, entzumenak, usaimenak, gustamenak eta ikumenak) kanpoko gauzak sentitzen ditu eta adimenak, berriz, sentipen oiek "irakurri" edo "ulertu" egiten ditu, buru-barrengo gogaiak eratuaz. Ori da ADIMEN-ESKOLA jatorraren erakutsia.

### **INTENCIONALIDAD (Intentionalité/Intentionality) XEDE-ASMOA**

"Intención" itza latiñezko "intendere" (IN TENDERE) aditzetik dator, eta "nora-baiteko joera izan" esan nai du. Euskeraz joera ori, "gogo", "nai", "xede", "asmo" esan ditek.

Gizonok barrenek barrenean darabilzkigun asmoak, garrantzi aundiko gauza dira moraltasun kontuan. Gure egintzak (baita berenez txalagarrienak ere) onak izateko, elburu zuzena bear dute izan. Asmo garbia. Jendeak ikus dezan emandako limosnak ez du Jainkoaren aurrean baliorik. Bañan asmo ona bakarrik ez da naikoa, bide okerraz baliatuko ba'giña. Lapurretan egindako diruz limosnak egiteak ez du balio. Giza-moraltasunak bi gauza eskatzen ditu: asmo garbia eta bide zuzena. Orregatik, gure Jainkoak, egiten dan gauzari baño, erabilli dan asmoari geiago begiratzen diola esan oi da.

## **INTERSUBJETIVIDAD (Intersubjectivite/Intersubjectivit) ELKAR-GOGOIA**

Askotan, gizona zer dan adierazteko berari buruz mintzatzen gera, nolako inguru giroa daukan kontuan artu gabe. Descartes'ek berak bere barruari bakarrik begiratzen dio ("cogito ergo sum" esanez) filosofiaren ateak zabaltzeko. Barrukoi xamarrek gera gerenez, ori ezin uka, eta ezin diteke joera ori oker danik esan. Bañan ez degu gizonaren elkar-naia aaztu bear. Elkartasun zale da berez, gizona, eta zearo kazkartuko litzake eziñezko bakardade utsean utziko ba'gendu. Gaurko pentsalari askoren iritziz (ikus liburu ontan "phenomenon" zaleen eskola), gero ta garrantzi aundiagoa eman bear zaio gizonak lagun-arterako duan senari. Gizartean bizitzeko jaiok gera, izan ere, eta bakar-zalerik aundienak ere elkartea maite dute. Elkarren arteko adiskide solasak bear dituzte, osasungarrizko barren-pakea izateko. Jainkoa eta lagun-urkoa, biak batean dituz gizonaren goi-elburu oso.

## **IRRACIONALISMO (Irrationalisme/Irrationalism) ADIMEN AURKAKO ESKOLA**

"Irracional" esan oi zaio gazteleraz, "arrazoi gabeko" edota "arrazoi kontrato" gauzari. "Irracionalismo" berriz, adimenaren balioa gutxi-esten duan filosofi eskolan. Mail ezberdiñeko jaun asko sar ditezke pentsabide ontan. Batetik, adimena baño irudimena aberatsagoa dala uste dutenak. Bestetik, elerti gaietan "erromantiku" uts diranak. Ala berean, bioloji gauzetan adimena irudimenaren morroi biurten dutenak. Eta, azkenik, "nihilismo" itsuaren joeraz, adimenaren nagusitasunari fedea ukatzen diotenak.

Ezeren zalantzarik gabe aitortu bearra da, noski, irudimen biziak asko ta asko laguntzen diola gizonaren eragin-indarrari. Dala elerti gaietan, dala egi billa egiten diran saioetan, irudimena du gizonak adiskiderik zintzoen. Bañan orrek ez du esan nai, adimena (giza-barrengo argi nagusia) beste gogo-almenen serbitzari uts danik. Bakoitza bere eginkizunean, adimena argi egiten eta irudimena senti-gai xamurrik sortzen, biak dirade elkar-osagai, batean bizitzeko egiñak.

## **LIBERTARIO (Libertaire/Libertarian) LEGE-GABEKO**

"Anarquismo" deritzan politika dotriñak, legea giza-askatasunaren etsai dala-koan, aginte modu guztiak zukutu nai lituzke. Eta, jaiok ere, komunismoaren beraren erraietan jaiok dala esan genezake. Mundu guztiko aurren gerra bukatu zanean, urrilleko matxinada aundia sortu zan Errusian bertan eta, andik bereala, bederatzi milloki ukrainiar altxa ziran Maknno gaztearen esanera agintari sovieta-rren kontra, langilleen Errepublika eraiki naiean. Bañan Trosky'ren gudaroste gorriak arras zapaldu zituan. Maknno'ren Errepublika izan zan, beraz, (1918-1919) lege-gabekoen aurreneko iraul-alegiña, azkar asko itoa. Andik bi urtera, 1921'ko epaillean asaldatu ziran Lenin'en aurka Kronstadt buruzagiaren jarraitza-leak, bañan alperrik orain ere. Budapest'en agertzen dira geroago, 1956'an, pentsa-tankera ontako zenbait langille batzorde; eta, azken urte auetan, lege-gabekoen ikurrin beltza ikusi oi da Berlin'en, Erroma'n eta batez ere Paris'en.

## **LIBIDO (Libide/Libide) SEKSO-INDARRA**

Gizadiaren iraungarri dan sekso-indarrak ba-du bere garrantzi, sendagilleek diotenez, "psicoanalysis" deritzan gogo-ikerketa egiteko. Sigmund Freud (1856-1939) eta Carl Gustav Jungg (1875-1961) biak dira oso izen aundikoak, gai ontan egin zituzten azter-lan ugariengatik. Bañan, "psicoanalysis" orlan bertan ez datoz bat maisua eta ikaslea. Ikasle suizarraren ustez, Freud'ek ez du arretaz neurtzen, eta geiegi goraiatzten du sekso-indarra, "neurosis" diralako buru-gaitzen sendaketarako. Dana sekso biurtzen ornen du; eta, Jungg'ek dionez, beste mailletako grifa asko omen dira giza-izatearen baitan, sendagilleen arreta merezi dutenak. Aipagarriak dira gai oni buruz, Freud austriarrak izendatzen dituan "Eros" (irrits sena) eta "Thanatos" (erio sena).

## **LINGUISTICA (Linguistique/Linguistics) IZKELARITZA**

Ferdinand de Saussure suizarra izan zan, noski, izkelaritza edo ele-jakintza deritzan ikasgaiaren sortzalea (1857-1913): Emeretzigarren mende orlan, izkelaritza bezela, beste jakintza berria batzuk ere agertzen dira: gizarte eta giza-oiuturerei buruz, batik bat. Ikasgai oiek aldapen aundia izan dute oraingo mende ontan, teknika berrien eragin-indarrez. Denbora bateko gramatika-zaleek naikoa zuten zenbait liburu gai ontaz ezagutzea, ele-jakintza osoan maisu izateko; gaur ordea, gramatikaz gainera, izkelaritzak beste gai desberdin asko ikuzten ditu, ongi ikas bearrekoak: "cálculo de probabilidades" deritzan "gerta-legeen neurketa", izkuntza zaarren joskera, gizarte oiturak, abots legeak, mezu-bideen edaketa eta abar. Elkar katigaturik bait daude gizatasunari buruzko jakintza guztiak. Oso famatua da Saussure jaunaren "Cours de linguistique general" liburua (Paris, 1954).

## **LOGICISMO (Logicisme/Logicism) LOJIKA-ESKOLA**

Matematikak lojika-legez eraberritu ote ditezke? Zenbaterañoiko arremana dute bi jakintza auek? Sartu ote ditezke matematikak lojikaren moldeetan? Baiezko ustean saiatu dira eskola ontako bi maisu ospetsuenak: Alfred North Whitehead (1861-1947) eta Bertrano Arthur William Russell (1872-1970). Biak inglesak, bien artean idatzi zuten "Principia Mathematica" liburua. Ba-dirudi lojika legeak matematika biurtzen dituztela, eta ez da ori gutxi; bañan nolana ere, jakintsu geienek diotenez, matematikak ezin ditezke lojika egin.

## **LOGISTICA (Logistique/Logistic) LOJIKA BERRI**

Lojika-zaleen billera nagusia egin zan Ginebra'n, 1909'garren urtean, "logistica"ren esan naia aldatuaz. Ordu arte kalkulo-iztiari esan oi zitzaion "logistica", eta zenbaki-iztiari "aritmetica". Orain, an erabaki zanez, logisticari LOJIKA BERRI deritzaio. Viena'ko Carnap Tersky, Wittgenstein pentsalariak eta Bertrand Rusell anglo-sajondarra izan dira lojika berri onen indartzalleak. Lojika onek ez dio zaarriari garrantzirik kentzen, bañan ikasbide berriak eskeintzen dizkigu, gaurko fisikaríen aurrerapenen arabera.

## **LOGO**

Griegozko "logos" itzak berezko bi zentzu ditu. Bata "adimena" edo "arrazoia", eta bestea "arrazoiketa" edo "pentsa-modu" txukuna. Zuzen oldoztutakoa era egokiz adierazi, orixe izan zan, orain 2400 urte, grezitarren "logos", jakin-elbururik opatuena. "Logos" ortan elkartzen bait ziran buru-argitasuna eta mintzaera atsegiña. Lojikaren bide ortatik zijoan grezitarren jakin-zaletasuna. Eta

"logos" itza, menderik mende, jakinduri eta zentzu onaren adierazgarri bezela geratu zaigu.

### **MAOISMO (Maoisme/Maoism) MAO-ESKOLA**

Mao Tse Tung (1893- ) Erdi-Aldeko Txinan jaioa, nekazari beartsuen seme izan zan. Amabost urtekin etxetik alde egin, eta eskean bizitu omen zan, ikasketak egiteko modua Pekin'en izan zuan arte. Beste lagun batzuekin Alderdi Komunista eraiki zuan, eta aurrenean Chian Kai Chek buruzagiari lagundu zion; bañan, onengandik igesi nairik, 10.000 kilometroko ibillialdia egin zuan Txina barruan, 368 egunean gelditu gabe. Andik bereala, Txina'ko komunista guztien buru azaltzen da. Orduko gobernuaren alde diardu, japonarren gerra bitartean; bañan, aiekiko pakeak egin ziranean, bera altxa zan guda bizian Chan Kai Chek'en aurka, berau Formosa'ko ugartera bialdu arte. Ipar Amerika'ko Laterri Elkartuen militar-laguntza guztiak alperrik izan ziran, eta Mao geratu zan iya Txina osoaren jabe. 1946'garren urtean gertatzen zan ori. Gorabera pranko igaro ondoren, Mao Tse Tung altsuak egundañoko kultur-iraulketa antolatu zuan, 1966'an. Ortarako "Liburuska Gorria" idatzirik, bost gauza maitatu bear dirala agintzen du: Komunismoa, jaioterria, jakintza edo kultura, esku-lana eta erri-jabe-goa. Ala berean, lau elburu ipintzen dizkio Txina osoari: langilleen besoa indartzea, eskuz egindako lana goratzea, erria maite izatea, eta Jaungoikorik gabeko gizarte bizitza ontzat artzea. Agindu oietan arkitzen zala, zion, iraultzaren bidez gizon berria eratuko zuan ikaskizuna. "Diktadore" txit arroa izan da Mao, bañan au ere il zan, eta zearo aldatu dira aren politika bideak.

### **MARXISMO (Marxisme/Marxism) MARX-ESKOLA**

Carlos Marx (1818-1883) alemana Treveris'en jaio zan. Guraso judutarrak zituan. Aberatsak. Protestante egiñak. Zortzi senideetan bigarrena, Bonn eta Berlin'go Unibersidadeetan egin zituan legedi, antropoloji, filosofi eta histori ikasketak. Ala berean, poesi ta literatura zale ere omen zan. Treveris'ko Jenny von Westphalen andregai aundikiarekin ezkontzen da, eta bost seme-alaba izaten ditu. Senar-emazteak, Alemania 1843'ko urrillean utzi, eta Paris'era dijoaz. Emen bi urte egin, eta Bruselas'era aldatzen dira, bañan 1848'ko epaillean Belgika'tik bialtzen dituzte, politika gauzetan sartu zirala-ta. Azkenean, Paris'en beste egonaldi laburra egin, eta Londres'era dijoaz, beren bizi guztirako. Marx Londres'en, diru kontuan estu xamar dabilelarik, bertako izparringi zabalduenetako idazle biurtzen da. Eta, bere idaz-lanak egunkari batera eta bestera eskeiñiaz, naiko nekez bizi izan ornen zan. Engels adiskide zintzoak luzaroan laguntzen dio, eta, laguntza oni esker, Marx'ek bere azken urteak "El Capital" idazten igaro zituan, bañan bigarren eta irugarren zatiak ezin burutu eta argitaratu izan zituan bere naiara.

Marx'en filosofi eskola ez zan bat-batean sortu. Amaika aldero egiña bait zan aren pentsakera, iraul-lanetan asi zanetik. Aurrenean Paris'en liberal ezkertiar agertzen zaigu. Geroago, 1844'ko "Anales franco-alemanes" aldizkarian, Moses Hess, Henri Heine, eta Hegel'en ondoan dabil. Urrena, oiekin guztiakin asarretu, eta Worwärts" izeneko aldizkari borrokazalean idazten du, pausoak komunismo aldera eramanki. Gero ta sutsuago, eta geldi egon eziñik, Nazio Arteko Batzorde Komunistak antolatzen ditu, langilleen iraul-kemena alik eta sendoen oiñarritu nairik. 1848'an "Alderdi Komunistaren Agiria" argitaratzen du, eta une ortatik lepo-leporaño sartzen da orduko iraul-ixkamilletan. Komunisten arteko asarreak legundu nairik, guztien maisu ta gidari biurtzen da, aiekiko pakeak egiñez.

Marx'ek laneko ekonomi arremanak aztertu nai ditu, eta egiñal ortan moldatzen du bere pentsakera ekonomi, politika eta filosofi gaietan. Ekonomiari buruz,



lanari ematen dio aurreneko toki ondasun-sortze kontuan. "Plusvalia" deritzaion Gain-Balioak pillakutzen ditu, aren ustez, dirudunen irabaziak. Politikaren aldetik, langilleen ordezeko errigobernua opatzen du; eta, filosofi alorrean, giza-bizitzaren goraberak beti indar gogorraren legepean ikusten ditu. Eztabaida latzaren burrukapean. Profetarena egiñik, langille ta aberatzen arteko ezin-konponduan, aurki zala zion dirudunen ondamena eta erri xearren garaitza; bañan, egia egi, gauzak ez dira asko aldatu, sozialismoak ez du errietara zorionik ekarri, eta Marx'en itzak aizeak eraman dituala dirudi. Jainkorik aitortzen ez dan eskolan pakezko etorkizun gozorik ez.

### **METAFIGISICA (Métaphysique/Metaphysics) METAFISIKA**

"Metafisica", Aristoteles eta eskolastikoen izkeran, "fisica"ren ondotik (au da, "cosmologia"ren ondotik) zetorren ikasgaia zan, garai artako ikastaroetan. Metafisika da, zalantzarik gabe, filosofiaren goigallurik erpiñena eta azpi-ondorik sakonena, ala berean. Metafisikak, bere gaiaz, beste giza-jakintza guztiak gaintzen ditu, filosofi alorrean. Eta, zuzen-zuzenean, izaki guztien oiñarri dan IZATEAZ mintzatzen zaigu. Izateari buruzko gaiak, jakiña, ez dira zentzuen bidez atxikitzen. Ez dira, fisika-gaien erara, mugatzen, eta ezin ditezke neur-mailleko gaien artean ipiñi. Bañan, gizonaren galdekizunik sakonenak erantzunik gabe geldituko ez ba'dira, txit bearrezkoa da metafisikaren barruan murgiltzea. Nola ulertu bes-tela gure gogo-ondasunik ballotsuenak diran askatasuna, izatasuna, maitasuna eta abar? Giza-filosofiaren edestiari begiratu ezker, metafisikaren alor ortan dabiltzala ikusiko degu pentsalari nagusien benetako arazo larriak; egiaren inguruan, alegia, batasunaren inguruan, onaren inguruan; esate baterako, ONTASUN, BATASUN eta EGI berbera dan JAUNGOIKOAREN inguruan.

### **METALOGICA (Métalogique/Metalogics) GAIN-LOJIKA**

Sarri erabiltzen dira gaurko filosofian "meta" itzakiko deiturak: "metalengua", "metamatemática", "metalógica" eta abar. Griegozko "meta" itzak ARUNTZAGO esan nai du; eta "metafisika" fisika ondoren edo fisikatik aruntzago dan bezela, "metalogica" lojikatik aruntz edo GAIN-LOJIKA esan diteke. Lojika osoa aztertzen duan jakintzari esaten bait zaio GAIN-LOJIKA.

### **METODOLOGIA (Méthodologie/Metology) ANTOLA-IZTIA**

Giza-jakintza bakoitzak bere gaia erabiltzen du. Bakoitzak berea sakontzen. Eta, gai desberdiñak izanik, aien barruraño iristeko bideak ere ezin berberak izan. Bide aukeratze ori dezu, nolana ere "metodología" edo ANTOLA-Iztiaren egitekoa. Jakintza bakoitzarako azter-biderik egokienak aukeratu.

### **MITEMA, IPUI-ESAKUNTZA**

Etnoloji-zaleek diotenez, "mito" deritzaien erri-ipuiak, giza-espirtuak bere gixa sortuak dira, iñungo loturarik gabe. Erri guztiek izan dituzte beren mito-ipui bereziak, eta ipui bera ez da askotan era berean kontatzen. Nola ulertu bear dira ipui oiek? Zer adierazten digute ipui bakoitzeko itzek? Zer, ipui artako itz-joskera bereziek? Zer, ipui osoak? Eta zer, ipuien arteko berdintsutasunak? Musikako paperak bezela irakurri bear ornen dira erri-ipuiak. Orlan saiatzen dira etnologoak, eta iñoiz mito berari esan-nai ezberdiña arkitzen diote. Ipuietako osagaiak (ez aaztu erri-ipuiak aoz-ao etorriak dirala) lau eratako izan ditezke: ABOTSIAK (erderaz "fonemas") izkera barruan beren doñu berezia duten izkiak; ITZ JOSIAK (erderaz "morfemas") tankera beretsuko aditz-bukaerak, aurrizkiak, lokarritzak

eta abar; IZENAK (erderaz "semantemas") iztegia arkitzen diranak, aditz-sustraiak eta izen-lagunak; eta ESAKUNTZAK (erderaz "mitemas"), ipuiak ulertzeko abots, itz josi, izen eta osagai guztien bilduma. Etnologo bakoitzak, mito-ipuiaren esan-naia arakatzean, bere "mitema" edo IPUI-ESAKUNTZAK erabili oi ditu; eta, irakurri ere, zenbait etnologo jaunen itzulketak irakurri eta elkar-alderatu bear ornen dira, ipui askoren zentzu jatorra jaso aal izateko.

### **MONISMO (Monisme/Monism) BAKAR-IZATASUN**

Filosofi eskola onek dionez, munduko izaki guztiak izate bat beraren ixurtze edo iza-modu bereziak omen dira. Dan guztia gauza bera omen da, eta ez omen diteke esan korputza eta anima bi diranik, zer bakarra bi eratan agertua baizik. Jarraitzalle gutxi dituan eskola da.

### **MONOSEMIA (Monosémie/Monosemy) ZENTZU BAKAR**

Esan-nai bat bakarra duten itz eta ikur edo irudiei "monosemia" esan oi zaie, gaurko filosofiaren izkeran. Lojika eta matematika oso "monosemia" zale dira. Naiz itz, naiz ikur bakoitzak ez bait duan zentzu bat besterik. Izkuntza guztietan, berriz, itz batek bi eta iru zentzu izan dezazke. Euskeraz, adibidez, EGI "gezur ez dana" eta "mendi egala" dezu; eta ELDU aditza "marduldu", "iritxi" eta "atxiki" izan diteke.

### **MUTACIONISMO (Mutationisme/Mutationism) ALDAKUNT LEGEAK**

Bioloji gaietan "mutacionismo" edo "gorabera" esan oi zaio, bizidunen mail batean uste gabez gertatzen dan aldarteari. Gai ontan azter-lan politak egin dira. Denak lumadun diran olloen artean, bat lepagorri jaiio. Orra or uste gabeko "gorabera". Bañan lepagorritasun ori odolez-odol berrirotzen da ondorengoetan; eta ez nolana, lege batzuen arauera baizik. Zer dala-ta sortu da ollotegian gorabera ori? Aldemeneko bizi-giroaren indarrak eraginda? Ez dirudi. Guztiek giro berdiña bait dute. Gañera, odolez-odol eta lege jakiñen arauera berrirotze ori ez da errez ulertzen. Ez ote arraultzan bertan izango gorabera orren sorburua? Ala baldin ba'da, nun geratzen dira Lamark eta Darwin'en irispeideak izakien aldalegeari buruz? Bi oiek, Juan Bautista Lamark (1744-1829) eta Carlos Roberto Darwin (1809-1882) "transformismo" deritzan alda-legeen erakusle dira; bañan funtsik gabe (asmakeriz) sortutako lege oiek ez datoz bat beste bioloji-zaleen saio-proba ugariekin. Garrantzi aundikoa da, gai ontan, Hugo de Wries bioloji-zale holandarra (1848-1920). Amar urtean aritu zan "onagra" izeneko landareak zaintzen, zein eta nolako goraberak gertatzen ziran kontuan arturik; eta, alako egonarriz eta jakinduriz egindako azterketa oien ondoreri lurrera dijoaz alda-zale itsuen lillurak. Juan Gregorio Mendel (1822-1884) praille agustindar jakintsua ere, Wries'en iritzi berekoa izan zan. Ikus onen saio-lanak liburu onen "genética", JATORRIZTI atalean.

### **NATURALISMO (Naturalisme/Naturalism) IZADIKERI**

Izadia da, gure begien aurrean, Jainkoak jarri digun ikuskizunik arrigarriena; eta ispillu ortan antz-eman genezake, nolabait ere, zein goresgarria dan gu guztion Egillea. Orregatik izadi-zaletasuna, egiazko "naturalismo" zuzena, guztiz txalogarria da. Margolari, olerkari eta mota guztietako. eder-zaleak eta santu geienak izadi-zale sutsuak izan dira. Bañan ba-dira tamalez, Jainkoaz aaztu, eta mundua Jainko biurtu nai duten fikosofoak. Mundua dute gidari, mundua maisu, mundua bizi, mundua jainko. Eta, denbora bateko estoatarrak eta epikur-zaleak bezela,

izadiko ondasun eta atseginkeriz lilluratuta bizi dira, goruntz begiak jasotzeko barne-kemenik gabe. Oien zoramen itsuari IZADIKERI dei genezaioke.

### **NEGATIVIDAD (Negativité/Negativity) EZEZKERIA**

Georg Wilhelm Friedrich (1770-1831) filosofo alemana aipatu bearra degu, "negatividad" zer dan adierazteko. Aren mintzaeran asko agertzen dan itza da; bañan, Hegel-zale berak diotenez, oso zailla omen da aren idaz-lanak beste izkuntzetara itzultzea. BAI eta EZ elkartu nai izaten ditu. Gauza eta aren EZA. Ortik dator Hegel'en IRUKOTE famatua. NI izateko, dio berak, EZ-NI edo NERE EZA jarri bear omen da. Eta EZEZKO bide ortan ornen dago NERE izatearen osoa. Bide orri "negatividad" deritzaio.

### **NEGENTROPIA (Negentropic/Negentropy) ENTROPI-EZA**

Leon Brillouin fisikariak darabilki "negentropia" itza, bere "Le science et la théorie de l'information" liburuan (Paris 1959), eta EZEZKO ENTROPIA edo entropiaren alderantzia esan nai du. "Entropia" itza aipatzen genduanean (ikus aurreraxeago itzori), BERO-BERDINTZE edo indar-galtze zala genion, eta "termodinámica" iztiaren bigarren legea. Lege ori berdin betetzen da oraingo "informática" edo BERRIBIDE-IZTIAN. Albiste emate bakoitza, izan ere, indar botatzea da; eta soñu illunetik izpar argi biurtzen diran indarrak bereala akitzen dira, beren leengo era illunera itzuliaz. Dana dala, ez da noski munduan "informatika"ren pareko aurrerapenik sortu. Teknikaren aldeko millaka asmakizunen bilduma da. Ez-jaketetik ezaguerara igotzearen antzeko pizkundera. Orregatik, berri-zabalketaren bizitasuna, itxurak diranez, ondamen-lege dan "entropia"ren aldeantzia dala esan diteke, "Negentropia" alegia.

### **NIHILISMO (Nihilisme/Nihilism) EZERREZKERIA**

"Nihilismo" latinezko "nihil" (EZERREZ) utzetik dator; eta EZERREZ DALA ON dio eskola onek. Ezerrez GAI. Ezerrez BALIOTSU. Jainkoa ukatuz gañera, Aren ordezeko giza-asmakizunak ere UTSAREN UTS dirala. Ortaz, eta gure sartalde ontako pentsalarien kristau-kutsuak ito nairik, dana ankaz gora irauli bear dala dio. Ez familian, ez gizartean, ez munduan, ez nor bakoitzaren barruan, ez duala ezerk zutik iraun bear. Eskola onek, egia esan, ero baten burutapen dala ematen du, eta alaxe izan zala esan genezake. Friedrich Nietzsche prusitarra (1844-1900), bost urtekin aitarik gabe geratua, Schopenhauer'en liburu irakurketan murgiltzen da, anima filosofi illunetan asetzeraño. Ogei ta lau urtekin griego erakusten ari da Basilea'n; bañan, ogei ta amabost urtekin gaixotu, eta erriz erri dabil Italia'n, bere bizibideko eginkizun guztiak alde batera utzirik. Batzutan Niza'n bizi da, eta bestetan Alemania'n. Bere azkeneko amaika urte osoak, 1889'tik il zan arte, burutik nastuta egin zituan. Akabera au izan zuan mundu ontan, Jainkoa il zala zion gizagajoak.

### **NOOSFERA (Noosphère/Noosphere) GOGAI-MAILLA**

Jesusen Lagundiko Teilhard de Chardin filosofo ospetsuak, "biosfera" itza oroitzean genionez, iru iza-mail aitortzen ditu lurbiran: BIOSFERA (bizi-mailla), GEOSFERA (gaidun izaki ez-bizien mailla) eta NOOSFERA (gogaien mailla). Gogaien mundua, dio berak, biziaren mundua baño aberatsagoa da. Jantziagoa. Arrigariagoa. Bere barruan artzen du bizi-mail osoa, biziaz ornitzen da, eta bizi-maillatik goruntz dijoakigu. Eta irurak (gai utsa, bizia eta gogoeta) batasun berean elkartzen dira.


## **ONTOLOGIA (Ontologie/Ontology) IZATIZTIA**

"Ontologia", ain zuzen ere, "metafisika" guztiaren erdi-erdiko ikasgaia dala esan ditekete. Beraren muin mamia. Ontoloji-zaleen mintzaeran, dan guztiari IZAKI deritzaio; eta izaki bakoitzean bi alderdi oroi ditezke: gauza ZER dan, edo ZER-IZATEA, eta ZER orren IZATASUNA. Biak bat diran ala ez, orra or ontoloji-zaleen iritzi desberdiñak pizten dituan galdera. Batzuentzat "distinctio realis" arkitzen da bietan egitazko berezkuntza; eta besteentzat "distinctio rationis", buru utsezko banaketa bakarrik. IZATIZTIAK, bere izenak berak dionez ("izate iztia"), izatearen legeak aztertzen ditu, izaki bakoitzari dagokion maila agertuaz. Ez bait dira berdiñak "ens a se" (izamenduna edo berez dana) eta "ens ab alio" (izamenik gabea edo besteri esker dana); "futurum" (izakizuna edo izango dana) eta "futuribile" (izan ditekena bañan izango ez dana). Izadia (izaki guztien multzoa) BAT da, EGITAN da, eta ONA da. Batasuna, egia eta ontasuna "convertuntur", esan oi da Ontologian, gauza bera datoz. Ezer dan guztia bere izatean BAT da, bere izatean EGI, eta bere izatean ON. Dana BAT, dan EGI, eta dana ON. Izan ere, izaki oro BEREZ DANAREN errañu da. IZAMENDUNAK egiña, alegia. O zein errez igo gindezken bide ontatik Jainkoagana! Eta zein zearo urtutzen diran, goiferdik ez dutenen kezkek eta illunbe samingarriak!

## **ORGANICISMO (Organicisme/Organicism) ATAL-IÑARKUNTZA**

Aspaldiko sendagille batzuen iritzian, gaitz guztiak korputzeko atalen baten zauridura ziran, eta uste orri "organicismo" esan oi zitzaion. Gaur itz orri beste zentzu au ematen diote bioloji-zaleek: Gorpuzki biziak, dala animalia, dala landare, dala giza-soin batez ere, eginkizun jakiñeko zati-atalak ditu. Atal bakoitzak bere egiteko berezia izanik, ordea, ez dira sakabanatzen. Denak batasun berean elkartzen dira; eta, atalen arteko antolabide orri "organicismo" edo ATAL-TEORI deritzaio.

**Luis Egia**





# BIXENTE LATIEGI'REN ELIZAREN HISTORIA EUN URTEZ (11) 1814.1914

**PIO IX**  
(1846-1878)

Erriaren maitasuna galduta il zan Gregorio XVI'garrena, integrista agertu zalako eta politika arloan garratzasuna erabilli zuelako. Konklabean 60 kardenal. Kezkarik aundiena, Eliz-latterrien askatasuna. Bi taldeetan banatu ziran: biguñak eta gogorrak. Goxotasuna nai zutenak irabazi zuten eta Masai kardenala aukeratu zuten. Pio IX'garrena artu zuan izan.

Irikia eta biotz-zabala izan ornen zan gizon ura; gotzai zala, demokrazizaleekin ederki etorria. Baiña, Laterriaren Jaurlaritzarako oiturarik gabea. Gizon ona, eraspenkoia edo debotoa, animen osasunaren maitale zintzoa, Elizaren serbitzari leiala, txiroen laguna, biotz zabaleko apaiz atsegiña eta itzlari jaioa. Aldi larrietan sendotasuna agertu zigun. Erregetza sendoki defenditu zuan Elizarentzat, bearrezkoa zala usten zuelako, ez bait zuan beste amesik Elizaren askatasuna gordetzea baizik. Askatasuna autokraziarekin batzen zuan, liberaltasuna, naitanaiez, Elizaren askatasunaren aurkakoa izan bear zuala, iruditzen zitzaiolako.

Bere akatsik aundienak ortik sortu zitzaizkion, laguntzaille integristez inguraturik zebillen-eta. Jokaera orren bidez, Aginte guztiak bere aurka ipiñi zitun eta kulturaz jantzitako jendea, sekulan baiño geiago urrundu zitzaion...

Alaz ere, kristau-erriaren barne-bizitzaren susperketa, apaizen sendokuntza, Mixioen indartzea eta eraso gogorrenetatik Eliza bizkorrago irtetea, oiek danak, Pio (X'garrenak egindago lanaren frutuak dituzu.

Sekulan baiño urbillago izan zuan Eliza osoa bere inguruan; ospe arrigarria lortu zuan, txit maitatua izanik. Maitasun ori izarretaraiño igo zan italiarrek tiroka erregetza kendu ziotenean. Martirien antzeko santu gurutzatu baten itxura artu zuan kristautasunaren aurrean.

Pozaldiak ere izan zitun bere Aitasantu-bizitza luzean (32 urie) Laterri Batuetan katolikoek artutako indarrarekin, 208 eliz-barruti berriak munduan zear eraikitzean, Aitasantuaren Utzeziña eta Ama Birjiña Sortzez Garbia'ren dogmekin; au erri-kristauek eskatutako dogma izan zan eta 1854'ko Abenduaren 5'ean erabaki zan Eliza osoarentzako.

Ama Birjiñaren eraspénakin batera aunditzen zijoan Aitasuarenganako erriaren maitasuna eta onen autoritatea sendotzen.

(Ondoren Latiegi'k Pio IX'garrenak Mixioen alde egindako lanak eta liberaltasunaren aurkakoak; baita Frantzia'ko gertakizunak eta Risorgimento italiarrenak ere bai, Aitasantuaren erregetzaren amaiarekin. I Batikan konzilioaren berri ematen digu luze, bertan aldarrikatu ziran dogmerek: Aitasantuaren Utzeziña eta Ama Birjiñaren Sortzez Garbitasuna).

Konzilioa 1869'ko Abenduaren 8'an asi zan. 7 illebere eta 11 egun iraun zuan. 2.100 kongresistetatik 700 bakarrik bildu ziran; geienak italiarrak izanik, benetan esanenezake Italia'ren Konzilioa izan zala. Eskema guztiak Aitasantuaren eskuetatik pasa ziran eta laister Aitasantuaren Utzeziña artu zuten eztabaidarako gai. Aizkenean muga bat ipiñi zioten: "Ex Cathedra" itz egiten zuanean bakarrik zala utzeziña. Aitasantuak berak eman zien baimena eta 1870'eko Uztailaren 18'an aldarrikatu zuten, ekaitz aundi baten erdian...

Berealaxe artu zuten Italiar-batasunekoek Erroma eta Konzilioa bertan-bera utzi zuan Aitasantuak garai obe baterako. Konzilio onartu ez zuan gotzai bat ere izan zan, Doellinger, eta onen ikasleek "Katoliko Zaarren" eliza zismatikoa sortu zuten. Oraindik ere bizi dira, baiña sekulan 30.000'tik gora ez dira iritxi.

Oar onekin amaitzen du Bixentek Pio XI'garrenaren bizitza luzea: Ezin litekela gaurko begiez, atzoko gertakizunik ondo ikusi. Berak Demokrazi liberalaren orduko okerrak eta akatsak ikusten zitun eta aiek begien aurrean zitula, ezin zitekean ez ulertu eta ez onartu orrelako demokraziarik.

Baiña, barne-bizitz kristaua bizkortu zuan.

Aitasantuaren maixutasuna ondo sendotuta utzi zuan.

Mixioeri arretaz lagundu zien eta 33 Bikariotza eta 10 Prefeturitza sortuta joan zan beste mundura.

17 Konkordato ere egin zitun Laterriekin.

|| zanean Eliza batasunean sendo eta osasunez indartzu zegoen; baiña, munduko arazoetatik urrun eta, ibillean geldi, zaartuta bezala. Konturatua zegoen giroa aldatuta zegola; lan ori aurrera eramateko, ordea, adorerik ez bere buruaren zaartzarogaitik. Urrungoentzat utzi zuan lan ori.

\* \* \* \*

### LEON XIII

Aitasantu berri, Pecci kardenala aukeratu zuten iru egunen buruan. Erregetza galdu arren, iñoiz baiño indar aundiagoa zeukan Aitasantuak. Leon XIII'garren artu zuan izen. Kardenal zalarik iru Laterrietan ibilli zan Aitasantuaren ordezkari bezala. Bere jokaera liberalegia zalako, ez zuten eskubitarrek gogoko. Baztertua eduki zuan Pio'k, beronen azken-aldian, Kamarlengo aukeratu zuan arte. Kargo ori zuenak agintzen zuan Konklabe garaian.

Ez zan ez ezkertiar, ez liberal; baiña, bai kultura zabalekoa eta bere buruaren jabetasunik galtzen ez zuana. Begi zorrotza zuan gartakizunetan axala mamitik bereizteko. Integristez inguraturik zegonez, ez zitzaion gauza erreza izan laguntzaille onak aukeratzea. Azkenik, ordea, Rampolla kardenala aukera zuan aukera-koa. Estadutzarako Idazkari izendat zuan.

\* \* \* \*

Bere enziklika "Inmortale Dei", Laterri eta elizaren artuemanak onela garbitzen ditu: "Bakoitza bere arloan nagusi da..." baiña, Elizarena da "Aalmenik Garaiena" Potestas Suprema. Ori esaten zuan tesis bezala; baiña, lanerako hipotesis bezala, zeru orretatik lurrera jexti bear zan, gaur eta emen nola lana eratu liteken,

jakiteko. Pio IX'garrena tesis-zero orretatik lurrena jeisten ez zekien; aitasantu onek, ordea, bai, garrantzi aundirik ez zuten gauzetan, amor emanaz. Rampolla kardenalak laguntzen zion orretan. Laterrien uste ona irabazteko, Laterri guztien, katoliko izan edo ez, Jaurlaritzek onartu zituzten eta, anarkiaren aurkako sendagai onena Eliza zala, adierazi, eta, babesik ziurrena. Espero zuan Leon'ek Laterri oien laguntzarekin eskuratuko zuela berriro bere Laterriaren Erregetza.

Aizkeneko bi Aitasantu auek Totalismoaren okerkerien susmoa artuta zeuden: Laterrien aalmenak osotu ezker, erriaren kaltean izango zirala, alegia. Estutasunak izan zitun Erroma'n Itali'ko Jaurlaritzarekin erabilli zitun joeren erruz, matxinadak kalean agertu ziranean "Aitasantua urkamendira" garraxi egiñez. Iges egiteko ere ibilli zan.

\* \* \*

### **Langilleen Aitasantu**

Bere aintzarik aundiena Elizari sozioloji-bideak irikitzea izan zan. Egia da izan zirala katoliko asko, Elizak proletaritzaren alde jokatu bear zuala, igarri zutenak, eta, arazoa ez zala bakarrik karitate-arazoa, zuzentasunarena baizik. Ikusi degu nola langilleriak fedea galdu eta mixio-lur gertatu dan.

1760'tik 1820'ra bitartean ola galantak jaso ziran eta beuroen inguruan, abereak lez, langille-talde ugariak. Proletaria izenak Marx'ek atera zuan jende aientzat. Prole itzak ume esan nai du, umeak nai bait zituzten lanerako ola-jaunek ume langille billa jotzen zuten zoko guztietara, umezurtegi guztiak ikertuz. Umeak beti billatzen zuten lana, naiz-eta gurasoak lanik gabe egon.

Lantegietan egiten zuten jan da lo. Egunez eta gauzez, txandaka, egiten zuten lan, 6 edo 8 ordu, adiñaren neurrian, eta beti kontramaixuaren zigorpean. "Ez du merezi bizitzerik, lau urteko adiñean bere bizia irabasteko gai ez dan umeak" idatzita utzi zigun Edgar Poe jaunak.

Langille zarragoek 12 edo 14 ordu egiten zituzten lanean egunerero. Sindikatoen lenengo eskaria 10 orduko lana izan zan eta umeen ariketa lege zuzenen bidez goxatzeko... Ameriketako eskabidea da; Europa'n beranduago egin zuten.

\* \* \*

Lan-saria bizitzeko aiña bearrezkoa zana, besterik ez. Ortik berakoa zanean, langilleria iltzen zan ugari eta, langille-ezean, saria jasotzen zuten. Saria jasota langilleak sortzen ziran nekazaritik eta orduan saria jetxitzen zan. Berriro korapilba, berriro saria jaso, berriro jeisteko... Liberalek ziotenez ekonomiak berak eta berez zuzentzen ditu berak sortutako okerrak.

Langilleria gaizki bizi zan, baita nekazariak ere, mundu guztia bezala. Ugasaben bizikera aldatu ez ba'litz, ez zan agian munduan soziologizko arazo ain larri eta gogorrik sortuko; baña, beuroen bizitza, geroz eta aberatsagoa, nabarmenki aldatutzen zijoan... Langilleak oartzen asita zeuden, aberastasun aiek ez zirala diruaren emaitza bakarrik; euren lanak ere bazuela zer ikusirik... Ortik asarrea eta egoera ura irauli nai izatea... Langilleak alkartzen asi ziranean agintariekin eraso zieten pisti amorratu batzuen aurka bezala... Anarkistak asi ziran lenen, agintzaritza kendu bear zala aldarrikatzen; agintariekin batera, baita Jainkoa ere... Gizar-tea agintaritzarik gabe... Guztia danena eta ezerez bakoitzena...

\*\* \*\*

Frantzia'ko Iraultza burgeskeriaren serbitzuan zegoen; langilleak, berriz, legearen aurrean aske ziran, baiña ekonimiaren aldetik leen bezin esklabu... Urten zuten kalera eta zapaldu zituzten... Langilleen gidariekin konturatu ziran, berdintasuna lortzeko, bide gogorrak erabiltzera beartuta zeudela...

Gerora dator Marx; bere pentsakeraren ardatza borroka eta iraultza dira. Iraultzaille guztiek langelleari bere eskubidetzaz itz egiten diote. Elizako gizonak ikusi ere ez eskubide oiek. Zoritxarrez-dio Bixentek-ez zan orduan gaurko "Teología de la Liberación" orren antzekorik agertu.

\* \* \*

## Marx

Judutarra, sinisgabea eta materialista utsa. Burgesa eta anarkista. Ez zan zientzia-gizona, berak bere Sozialismoari Zientifikoa esan arren. Marx filosofad eta naiko erromantikoa da. Lojika mardula darabil. Oñarri bat ipintzen duanean, lojika osoaz, jasoko du aren gaiñean jaso bear duena; baiña, oñarria ona ala txarra dan begiratzeke. Ez dio begiratzan materialari, egi edo gezur dan; etxea eraitzeko balio ba'du, berdiña da bat ala bestea, egia edo gezurra.

Ona bere ideolojiaren zutabe nagusiak:

lzate guztiak materia uts dira.

Gizakumea ere materia uts da: bere elburua, materia berria sortzea=produkzioa.

—Orregaitik ekonomia da historia osoaren ardatza. Ori da gizadiaren infraestruktura edo azpi-erakundea; beste guztiak supraestruktura edo gain-erakundeak dira. Eta, nolako azpi-erakundea, olakoak izango dira azpi-erakunde orri dagozkion gain-erakundeak ere.

Gizakumearen lana da, produkzioa obeagotuz, Historiari aurrera bultzatzen diona. Langilledia da, beraz, munduaren salbatzaillea.

Gaur egun, ordea, ori ez zaio langillediari ezagutzen. Langilleen bizkarretik bizi dan kapitalismoa da nagusi.

Kapitalismoak produkzioaren baliotik jasotzen duana, lapurreta bizia da. Gauza bat egitean erabiltzen da lana, orixe da gauza orren balioa, eta, besterik ez.

Kapitalismoa erortzera dijoo eta laister eroriko da. Ona zergaitik:

a) Kapitalisten arteko konpetentzi latzak eta alkarren arteko burrukak, geienak mixerira botako ditu eta gutxi batzuek geldituko dira eta mundu osoa langille izango da. Orduan, gutxi batzuetan oiñarritutako gizartea, piramide baten antzeko izango da; baiña, alderantziz ipiñita, punta base bezela eta base zabala aidean. Orrelako piramide batek ezin lezake luzaroan iraun, jausi gabe.

b) Naitanaiez, Izadiaren legeek beartuta, kapitalismoa laister ezereztuko da.

\* \* \*

Hegel'en ikasle izan zan Marx. Asmakizun berriak nola sortzen diran gure barruan argitzeko onela dio Hegel'en teoriak:

Gogapen "baiezkoa" sortzen danean, orduan beste "ezezkoa" ere sortzen da. Biak alkar jotzen dutenean, gogapen berri bat sortzen da. Lenengoa da TESIS, bigarrena ANTITESIS, irugarrena SINTEISIS.

Marx'ek asmakizun ori bere erara egokitu zuan:

TESIS da kapitalismoa; ANTITESIS, proletaritzta eta biak alkar joko dutenean sortuko SINTEISIS dan Komunismoa, langillediaren paradisia.

\* \* \*

Ori bereala sortuko zala uste zuan Marx'ek. Iraultzak bi une izango ditu: borroka odoltzua eta langilleen diktadura. Ondoren kapitalistei lantegi guztiak kendu eta Laterriari eman eta gero gizartearen eskuetara pasa.

Orrekin desagertuko dira Kapitalismoa, Proletaritzta, Gizarteko maillak eta Late-



rria. Laterriakin batera Jaurlaritza ere bai, Agintaritza, Legeak, legeak emateko Aalmena. Eta, ori izango da KOMUNISMOA.

Dogma oiek dira "Sozialismo Zientifikoa"ren bizkar-ezurra. Baña, Proletaritzaren Diktadura eta onen ondorengo Komunismoa **nola** eratu bearke dan ez dizu Marx'ek esango. Diktadura Rousseau'ren bitartekotasunik gabeko demokrazia izan bear du; baña Demokrazia Direkta ori **nola** eratu daiteken ez dizu esango.

\*\*

Ez zan Marx langilleak salbatzeagaitik komunista egin, kapitalisten ganako zeukan gorrotoa asetzeko baizik. Egunkari kapitalista baten (Reinische Zeitung) zuzendaritzaetik bota zuten. Berak ez zuan komunismorik ezagutzen eta orduan asi zan sakonetik ikasten.

Marx'en erabaki onek garrantzi aundia du sozioloji-arazorako, langilleria bere inguruan bildu bait zan, beste guztiek baiño organizalari ohea zalako. Ideolojia bat eratu zion langilleriari eta gudarozte bat ere bai burrukarako, Internazionala. Gaiñera zerbait izateko itxaropena ere eskeiñi zion Proletarien Diktadura eskeintzean.

Ez zuan bere bizitzan zorion aundirik izan bere lagun Engels kapitalista aberatsak lagundu zion arte. Iru alaba izan zitun eta sasikume bat: baña ez zion bere izenik eman.

\*\*

Anarkista izanik, gorrotoa zion aundia erlijioari, lo-belarra eta alienazio dalako; zerura begira dauden artean, mundu onetako arazoak aztu. Orrelako esanak ikerketa baten bidez sendotu bear litzazke "zientifikoak" izateko; baiña, Marx'ek ez zuan ikerketarik egin, bera zientifiko ez zalako, filosofolari, baizik.

Bere esakizunak borobil-borobil botatzen ditu probarik gabe, arrazoibiderik gabe, filosofi aldetik bezala zientzia aldetik ere. Gizarteko erakunde guztien infrastruktura ekonomia da. Esatea egiztatzea baiño errezagoa da. Marx'ek ez zuan ezer egin egiztatzeko; esan, besterik ez. Badira gaur esaten dutenak, erakunde guztien infrastruktura, eta ekonomiarena bereiziki, erlijio dala (Werber): gizarte bakoitzak nolako erlijioa, alako ekonomia. Ortan emen dago, esate bate-rako, judutar eta arabiar arteko desberdintasuna.

\*\*

Marx eta Engels aburu batekoak ziran eta bien artean, 1848'an, argiratu zuten, ordurarteko sozialist-anarkist-komunisten aburuak bilduaz, "Alderdi Komunistaren Azalpena" eta aren ikur-itzak auetxek izan ziran: "Mundu Guziko Proletariok batu zaitezte".

Bien artean argitaratu zuten "Das Kapital" liburua 1867'an.

\* \* \*

### **Soziogille katolikoek**

Eten gabe ari ziran lanean Europa osoan, karitate arloan batez ere. (Izenak eta ekintzak aitatzen ditu ondoren). "Baña, ideolojiaren arloan, ez zan kristauen artean-dio Bixentek-Marx'en aurka egin zion pentsalaririk sortu..." "Ez ziran bear-kizun ortaz konturatu". Anarkistek kezka geiago ematen zien. Marxismoak, berez, ez zuan iraultzarik sortzen, onartu baizik. Iraultza berez sortzen zan...

Gero Bixentek Keteler gotzaiaren ekintzak aitatzen ditu luze, soziokoji arloan egiñak... Langillearen alde lanik geien egin zuan gizona... Alemania'ko Parlamen-

tuan lege bikañak eman ziran gai onetan Keteler'eri esker... Jarraitzailleek izan zitun Alemania'n bertan, Frantzia'n, Austria'n eta abarren. Beste askoren artean Albert de Mun eta René de la Tour du Pin datoz; luze auek ere. Geroago Leon Harmel famatua; bere ekintzak Frantzi guztian zabaldu ziran erlijio, sozioloji eta ekonomiaren alorrean...

Beljika'n ere lanerako giroa bazegoen Lobaina'ko Unibersitatean, Manilas'ko Batzarra elkartean eta abar... Ingalanderra'ko Manning kardenala, Estatu Batuetako Gibbons gotzaia, famatuak izan ziran beste askoren artean...

Leon XIII'garrena beti ibilli zan gizarte arazoetan kaskatzu; baiña, Italia'n, 1871'garren urteko Iraultzararte, abaro gozoan egon ziran... Karitate egille ospetsu asko: Don Bosco, Cotolengo eta abar; egiazko soziologorik, ordea, ez zan agertu... Bonomelli gotzaia asi zan sozioloji-bidean eta Toniolo'k segi zion langilleen apostolu bezala. Onela dio Bixentek:

"Oso-oso dabilz oker, emeretzigarren mendean soziolojiaren eta ekonomiaren arloan katolikoek ezer egin ez zutela pentsatzen dutenak. Izugarria izan zan katolikoaren egidura. Ezin zenbatu daitezke arlo ontan ari izan ziran gizakumeak: jakintsuak, izlariak, idazleak, izparringilariak, ekintza-gizonak... Ezin dezakegu aipatu ere sortu ziran liburuak, izparringiak, billerak, alkarteak, bazkunak, kofradiak, aureski-kutzak, babes-lagundiak, korporazioak..." (365 or.)

España zijoan arazo onetan atzeratuen. "Gaitz aundia egin zion España'ri karlisten guduek". Ondo desegiña utzi zuten beintzat Euskalerrria. "Gure olagintza ere gudu oiek bukatzean asi zan, ots, gure Lege Zarra ezereztua izan zanean. Orregaitik, Euskalerrriko kapitalismoa ez zan sortu eusko-legediaren altzoan, España'ko legedi liberalaren altzoan baizik. Eta orregaitik ain zuzen, euskaldunoi esperientzi kilikagarri bat faltatu zaigu: Lege zarraren altzoan euskodemokraziak kapitalismoari zer erantzun emango zion jakin aal izatea". (366 or)


\*\*\*


"Rerum Novarum" enziklikaren aurretik bazan, ikusi degunez, sozio-ekintza kristauen artean, eta bizkorra gaiñera. Akatasak ere bazitun: Beranduegi... Geiena sekular aberatsen eta apaizen lana... Ez zan langilleen ekintza.. Paternalista... Motzegia... Kooperatiba-lana...

Bi talde zeuden: Eskubiagokoak esaten zuten Lateria eta Eliza ez zirala sartu bear ekonomi arazoetan... Beste taldeak, baietz, sartu bear zutela...

\*\*\*

**Anes Arrinda**





## NI NAIZ ETA 1 AIZ

Batzar baten IKA mintzatzen garanean ETORRI NAUK esatea aldrebeskeri bat dala esan nuan, eta ETORRI NAIZ esan bear genukela. Itxuraz batzarkide guztiek nere iritzia astakeritzat jo zuden. Orduan orrelako euskeraz idatziak badirala, eta urrengo baterako ale batzu bilduko nituala esan nuan. Aginduari erantzuteko ona sortatxo bat ekarri.

Auzia ontan datza: *etorri nauk* euskera gaiztoa da, *etorri* aditzaren laguntzaillea izan baita, eta ez *edun*. *Ekarri nauk eta ekarri aut* bai, ongi dagode, *ekarri* aditzaren laguntzaillea *edun* baita. Baiña *etorri aut* eziñ esan ditekete, izan'en ordez *edun* sartzea baita.

Nere esanek *edun* zuden arrera ikusirik'badirudi euskaltzain guztiak Mikoleta'ren iritzikoak dirala, eta euskeraz norbait il dala adiarazteko iru esakera ditugula; il *da* (zuka), il *dok* (itatoka), il *dona* (itanoka). Baiña il *dok* eta il *dona* beste zerbait dira: IK il *duk* eta IK il *dun*. Beraz mintzatzen natzaionari iltzaille dala sakatu nai ezpadiot *il da* esan bear diot. *Etorri nauk* ere gaizki esana da; bestek ni *ekarri* egin nezake, baiña *etorri* iñork ezin nezake *etorri*: izatekotan ere ni neroni *etorriko naiz*. Orlan euskerak prantzesaren eta alemanaren antzera jokatzen du, eta ez gaztelarak bezela: *etorri naiz, je suis venu, ich bin gekommen*; gaztelaniaz (*yo*) soy venido ezta esaten, ha venido baizik. Ingeleseaz bietara: *I am come (aquí estoy) eta I have come to tell you...* (he venido para decirles...) (Pavia, Gramática, p. 280).

Ona beraz nere sortatxoa:  
Azkue, Canc. V., 607:

(Otaño'ren jatorrizko itzak, CV.E.-21a)

Len seme bat *badet* nik  
nunbait Amerika'n  
ogei urte *badira*  
jun zala emendikan;  
*ik* ara billatutzen  
*badek* biderikan  
*esaiok aita* bizi  
dala oraindikan.

Lenago-re seme bat  
*badet* Amerika'n  
amar bat urte *dira*  
juan zala emendikan:  
topatzen *badek* iñoiz  
aren aztarnikan  
*esaiok aita* bizi  
dala oraindikan.

Berterretxe'ren khantoria:

(Salaberri, 214a)  
Bütanobi gaztia,  
ene anafe maitia:

(Kantu, kanta, khantore, 143a)  
Buztanobi gaztia,  
Ene anaie maitia,

*hitzaz hunik ezpalinbada*  
ene semia jua*n da*.  
Arreba, *ago* ixilik,  
ez othoi egin nigarrrik:  
*hire* semia bizi *balinbada*  
mentüraz Mauliala da.

*Hitzaz hunik ez balinbada*  
ene semia jua*n da*.  
Arreba, *ago* ixilik:  
Ez othoi egin nigarrrik  
*Hire* semia bizi *bada*  
Mauliala *dün* jua*nik*.

Etxahun (Topet):

Ahargo eta Kanbillu,  
ardura *da* hetan lanhu:  
aspaldin ebili *hiza*  
dendariaren ondun?  
Gantza, gaixua, hasi *ziok*  
loditzen sabel-ondun.

Ixkerraren zamaria (Salaberri, 348a):

*Etziok* xeha arthorik  
ahuan *ezpeitiü* armarik;  
harentako *ezta* jiten  
España'tik olhorik;  
Ixkerra'k hartüz geroztik  
*eztaki* asiaren berririk.  
Ixkerra, *enaintek* mintza,  
zamariak balü bixta;

C.V. 87

¡A! Mar! Migel! ¿nun *dona* arkandorie?  
¡A! Mari Migel! ¿nun *dona* katue?  
Zapi ta Zapi esanagaitik / *eztona* kentzen katue:  
sekula bere *eztot* ikusi / onelan neure burue.

479

Anton, jo *zak* tronpeta;  
Txomin, nun *dek* konketa?  
Edaririk ezpaldin *bada*  
ekarrik beteta.

Peregrinuak *datoz*  
Santiago'tikan:  
*iriki zak atea*  
ikusteatikan.

809

Orra or goien artalde,  
txakurrik bere *eztauke*:  
gaurr or gora yoa*n gure badok*  
txikiro-parea *baeuke*.

861

Kristok Pedrori ots egin zion:  
Norekin *ago* orrela?  
Anima gaixo'at emen eldu da  
barnera bear duela.  
*Ezta* lekurik, *ezta* lekurik  
doaiela infernura ortik.

886 **Pedro norekin ari** *aiz* orrela

Yauna, emen arima bat da  
zerura nai lukeala.  
*Ezta* lekurik, *ezta* lekurik  
doaiela inpernura ortik.

Badakit bertsoeri zer sakatu oi zaien: bertsolarien tranpak. Ona beraz bestelakoak.

Refranes y Sentencias:

- 33 *Badagik* suatean ipirdia uzkarti, zejan berba *dai eugaiti*. (Gogoratu 34: Zaran bat *dagianak*, bi *dai*) (dagi (ke?).  
203 Lapurrak on *dau* ukoa: *ukairikek*, gaxtoa.  
208 Odol bearbagea, agirtuko *da* egia *eurea*.  
227 Il *eikek ta il aye*, *ta* ire erallea il *daye*.  
422 *Autso*, Txordon, artz orri, ta nik iñes *daida* / (dagida).  
468 Katuak daroean okelea geyago *da* berea ze ez *eurea*.

Oihanarte:

Argia deritzanari: *hireki ezpaniz*  
itsu hutsa *niz*,  
zeren *bai hiz* en'argia.  
*Hirekil* aldiz  
bazter lekutan baturik  
nonbait *banago*  
*nun* bozenago  
ez errege gertaturik.

Beltxaranari: zer probetxu edertasuna  
*da hire* gorputzean  
tink bihotzean  
*badatxen* gogortazuna.

Lhande-Lafitte'ren iztegian:

DEINA, din... Ez othe *niz* bada *hire* deina?

Leizarraga. (Euskal protestantismoa zer zen)

87a *Bada*, *gauza hauk bata bertzearen ondoan eta luzakiago deklaratu ahal ditezentzat*, *zin da hik erran dituan* puntuetatik lehena?

91a Horrez erran nahi *duk*, ezen eztela inkonbenientik batre, baldin dibinitate bakhoitze batetan komprehenditzen *baditugu* hirur pertsona hauk distinkto, eta halakotz Jainkoa eztela partitzen.

96a Zerik *da hik diokan* Erresuma hori?

101a Zergatik *eztuk* simpleki erraiten hitz batez hil izan dela, baina are Pontzio Pilatez ere mentzone *egiten duk*, zeinen azpian hil izan *baita*?

113a Baina *hik* Elizari atribuitzen *draukoan* saindutasun hori, perfeto *da* oraino?

Duvoisin, Bible saindua:

Eksodoa

VII-17 Hau dio beraz Jaunak: Huntarik jakinen *duk* Jauna naizela: huna non joko *dudan* zigorraz hibayeko ura, eta odoletara bihurtuten da.

18 Eta hibayean diren arrainak ere hilen *dira eta* urak ustelduko, eta hibayeko uretik edanen duten Egiptoarrak erituko *dira*.

VIII-1 Jaunak erran zioen berriz Moisi: Sar zaite Faraonen gana, eta errozu:

Hau dio Jaunak: *Utzak* ene populua goatera, niri sakrifizio bat egin *dezadan*.

2 Bainen *ez badituk* utzi nahi, hire eremu guziak betheko *ditiat* igelez.

3 Eta hibaya igelez irakituko *da: eta* igelak goiti atheratuko *dira*, sarthuko *dira hire* etxean, eta *hire* etzateko gelan, eta *hire* ohean, eta *hire* zerbitzarien etxeetan, eta *hire* jatekoen ondarratan.

- 4 Eta igelak sarthuko *dira hire* gana eta *hire* populuaren gana, eta *hire* zerbitzarien gana.
- 20 Jaunak berriz erran zioen Moisi: Jaiki zaite argizirrintetik, eta zaudezi Faraonen bidean: ezen urera ilkhiko da, eta errozu: Hau dio Jaunak: Populua *utzak* niri sakrifizio baten egitera.
- 21 Baldinetaria uzten ez *baduk*, huna non igorriko *dudan hitara* eta *hire* zerbitzari, eta *hire* populu, eta *hire* etxeetara zer-nahi uli: eta uli mota guziez betheko *dira* Egiptoarren etxeak, eta hekiek izanen diren lurra-oro.
- 22 Eta egun hartan miresteko gauza eginen *diat* Jesengo lurrean, zeinetan *baita* ene populua; han ulirik izanen ez baita: eta jakin *dezakan* ni naizela Jauna lurraren erdian.
- 23 Eta zedarri bat ezarriko *diat* ene populuaren eta *hire* populuaren artean: bihar izanen *da* sendagaila hori.

IX-1 Bada Jaunak Moisi erran zioen: Ager zaite Faraonen aitzinera, eta errozu: Hau dio Hebrearren Jainko Jaunak: *Utzak* populua sakrifikatzeri niri.

- 2 Baldinetaria oraino ukhona egiten *baduk eta* atxikitzen *badituk*.
- 3 Huna non ere eskua izanen den *hire* landen gainean: eta izurrite latz bat *hire* zaldi, eta asto, eta kamelu, eta idi eta ardien gainean.
- 4 Eta miresgarri dena eginen *du* Jaunak Israelen izantzen eta Egiptoarren izantzen artean, Israelen semeenak direnetarik ez *baita* deusere galduko.
- 5 Eta Jaunak ordua berezi *du*, dioelarik: Jaunak bihar obratuko *du* hitz hori lurraren gainean.
- 13 Ea Jaunak erran zioen Moisi: Goizik jeiki zaite, eta Faraonen aitzinean eman, eta erranen diozu: Hau dio Hebrearren Jainko Jaunak: *Utzak* ene populua niri sakrifikatzeri.
- 14 Ezen aldi huntan ene zauriak oro igorriren *ditut hire* bihotzaren gainera, eta *hire* zerbitzari, eta *hire* populuaren gainera: jakin *dezakan* ene idurikorik ez dela lur guzian.
- 15 Ezen orai eskua hedatzen dudalarik, izurritz joko *haut hi eta hire* populua ere, eta lurretik ezeztaturen *haiz*.
- 16 Zeren-eta *hi* ezarri izan *baihaut*, ene indarra ager dadientzat *hire* gainean, eta ene izena lur guzian aipha *dadientzat*.
- 17 Idukitzen *duk* oraino ene populua, eta ez *duk* utzi nahi goatera?
- 18 Huna non bihar, oren huntan berean erorraraziko *dudan harri-abar* bat gaitza, nolakorik Egiptoan izan ez *baita*, Egiptoa Egipto denetik egungo eguna artean.
- 19 Igor *zak* beraz orai berean *hire* azienden eta kampoan *ditukan* guzien biltzera: ezen gizon eta azienda, eta kampoan atzemanak izanen *diren* guziak, landetarik bildu-gabe, harria eroriko *zayote* gainera, eta hilen *dira*.

X-3 Moise eta Aaron sarthu ziren beraz Faraonen aitzinera, eta erran zioten: Hau *dio* Hebrearren Jainko Jaunak: Noiz arteo ez *darotak* amor eman nahiko? *utzak* goatera ene populua niri sakrifizio baten egitera.

- 4 Bainan gogor-egiten *baduk, eta* hura ez *baduk* utzi nahi, huna non bihar xartala sarraraziko *dudan hire* eremuetan.
- 5 Estaliko *du* lurraren gaina, deusik ageriko ez *den* bezala, eta harriak utziak janen *ditu*: ezen iretsiko *ditu* bazterretan heldu *diren* zuhamu guziak.

6 Eta betheko *dituzte hire etxeak*, eta hire zerbitzarietak, eta Egip-  
toar guzietan: *hire aitek ez arbasoek halakorik ez baitute* ikhusi  
lurrera sorthuz geroztik egungo eguna arteo...

XX-2 Ni *naiz hire* Jainko Jauna, Egiptoko lurretik, gathibutasuneko etxetik  
ilkhi *hautana*.

5 Ez *ditut* hekiek adoratuko, ezetare zerbitzatuko: ni *naiz hire* Jainko  
Jaun hazkarra, bekhaizkorra, aiten gaixtaginkeria bilhatzen *dudana*  
semeetan, ni gaitzirizkotan nadukatenen hirugarren eta laugarren  
belhauneko haurretan.

7 Ez *duk* alferki erabiliko *hire* Jainko Jaunaren izena; Jaunak ezen ez  
*du* hobengabe idukiko haren izena gauza hutsetan erabiliko *duena*.

Pittin bat pentsatzen badugu' aipatu ditudan geienak bestela eziñ idatzi zitez-  
keala garbi ikusiko dugu. Izan ere egin dezagun nik aita naizela adierazi nai  
dudala. Edonori esatekotan' *alta naiz* esan beariko dut. Norbaiti *alta nauk* esatea  
*semea aut* esatea bezelaxe da, eta *aita naun* esatea *alaba aut* esatea bezela.  
Beraz nere seme naiz alaba eztanari *aita naiz* esatea beste biderik ez tut. *Ni alta*  
*naiz eta i semea aiz* edozein gizasemeri esan nezaioke, orrela mintzaturik ezpai-  
tut *nere* seme danik adierazten.

Norbaiti Aita Santua il dala adierazteko *Aita Santua il duk* esango banio' agian  
*nik ez tut inor ill* erantzungo lidake. Orduan *Aita Santua ill egin dala esan nai*  
*nian, ez ik il dekanik*, esan beariko nioke. Bigarren aldian esan beariko niokena  
lenengo aldian esatea obe dala iruditzen zait: *Alta Santua ill egin da*. Orrela ezta-  
go gaizki aditzerik.


Bigarren aldian beti ongi esaten dugu; zergatik ez lenengo aldian ere ongi  
esan? Esate baterako:

Liburu bat ekarri diat. ¿Zer'?— Liburu bat ekarri dudala.

*Liburu bat ekarri dut esatea* obe zitekean. Baiña liburua beste orrentzat ekarri  
baldin badut orduan ongi legoke: *Liburua bat ekarri diat*. —¿Zer'?— Liburu bat  
ekarri diadala.

Bi adierazpen dira, eta euskerak bakoitzarentzat bere esate-modu berezia  
badu; ¿zergatik bakarra erabili?

**Zatarain'dar Ambrosi'k**







keraz erderaz bezain ondo ez dakila geitzen baldin badiogu, sekulako ajolagabe-  
keria sortzen da). Batuaz letzen dedanero, onexezaz jabetzen naiz:

la-ia ez dago H'rik bageko esaldirik. Txoro zailtasun oiek orain-da-betiko ken-  
du bearko lirake. Nere eskuko beatez konta nezazke H jartzen dakiten nere  
adiñeko gazteak. Zer esanik ez gazteagoak diranak. Oso erreza bait da H jar-  
tzen alegintzeko itza artzea, oso erreza HB idazten, baiña gero iñor gutxi saia-  
tzen da "H"arekin.

"H" a dala-ta, aberri onetan euskeraz ondoena itz-egiten dutenak baztarto  
dituzte. "H"rik jartzen ez duana "analfabetoa" da, eta orren aurka doana, euske-  
raren (edo "euskAraren", egoaldeko progreek esan eta besteoi esan-arazten  
diguten modura) "kontra" onen doa.

Batzuek eskubitartzat artuko naute; oieri bi azalpen eman nai nizkieke:

Lenen gauza, politikak ontan ez luke berezikeririk sortu bear. Bai eskubitarrek,  
bai ezkertarrek, danek egin bear luteke euskeraren aldeko lana.


Bigarrena, beste lurralde batzuetan, ezkerrek geienetan izkuntzan enparatuan  
edo sobran zeuden gauza batzuk kendu izan ditu. Errusia'n bertan ere, esaten  
ez zan izki bat kendu zuten, bearrezko ez ziran zailtasunak kentzeagatik.

"H" kentzeagatik ez degu uste bear izkuntza gaitzetik sendatuta dagoanik,  
baiña bai pozkida eta aurrerapide ederrak ekarriko litukeala. Arnasa eman gene-  
zaioke erdi itoka dabillen euskerari.

Izan ere, iparrekoek ere "H"ak beren modura jartzen dituzte, ez batuak dioan  
bezela.

**Asier Etxaburua, "Ametsaundi"**

**17 urte**



# AKATSAK


## ETA ERDERAKADAK

- 1.—"Arraultze jaurtiketa DAGO Udaletxe zaarrean" (EITB, 1990'ko-I-19'an).
- 2.—"Donostiako martxa 1863'an konposatu zela... (EITB, 1990'ko-I-19'an).
- 3.—"Euskaldunok normalizazio linguistikoa lortu izan bagenu... exijentzia sozio-kulturala moldatu izan balitz... (C. V. 90-1-30'n Rufino Iraola).
- 4.—"Teorian eskluienteak dirudite, baina badirudi praxiak besterik diola".
- 5.—"... galdu zuen funtzio periodistikoa edo dibulgatzailea". (Zer-nolako "funtzioa" ote: elizakoa ala... Ostegunetakoa?).
- 6.—"Ideologiaren gainean teorizatzeke ez du serbitzen bertsoak".
- 7.—"Notizia, komunikabideek tratatu ez duten aldetik... landu behar du".
- 8.—"Umorea probokatzen eta gauzen komizitatea bilatzen ahalegindu...".
- 9.—"Bertsolariak politiko bat edo beste pertsonaia ridikuliza eta karikatuz lezake, baina, beti ere, bere papera umorista batena dela, eta ez ideologoarena, garbi utziz". (Rufino Iraola, D. V. 1990-1-30'ean).
- 10.—Guztien artean esaldirik bitxiena, arri-bitxiak eta urre gorria baiño balioitsuagoa da onako au, idazlan berean Rufino Iraola'k idatzia: "...tradizio oralak izango al zukeen gaur daukan indarririk? **Bertsolaritza EXISTITUKO ZATEKEEN?**" Bejondeiola goieritar orri!
- 11.—"Solamente, primadera eta udazkena omen dira suiziodiorik gehien gertatzen diren garaiak. Gure konstituzio fisiologiko eta siko-somatikoak badute, nonbait, urtaro, eguraldi edo ingurugiroarekin zerikusirik".
  - a) Erdal-itzen kopurua ez da nola-naikoa. Bearrezkoak?
  - b) Euskera-irakasleak, iñork ba'da, jakin bear luke, agian, "EDO" zuzen erabiltzen, eguraldia ta ingurugiroa ez bai-dira berdin.
  - d) "Siko-somatiko" erdal-itzei, gutxienez ere -EK erantsi bear zien irakasleak, zuzen idaztekotan, eta ez -AK.
- 12.—"Nire bromak gorabehera, fenomeno meteorologikoez hitzegitea justifikaturik dago".
- 13.—"Gaur beste kanon batzuk agintzen dute. Hemen dena dago razionatu ta razionaldu beharra. Uraren kontsumoa ere bai".

Azkenengo iru arri-bitxi auek ere Rufino Iraola irakaslearenak dira, D. V. egunkarian 1990' Epailaren 20'an agertu zan idazlanetik artuak.

Esan dezagun, ba'da ez ba'da ere, gaztelarak ba-dituala itz geiago, orrelakoak barra-barra erabilliz euskera aberasten ari dirala uste baldin ba'dute. Urrerengorako, edozein liburu-dendatan esango diote zein dan erdal-itzik geien dituen iztegia.

Gaztañaga'tar Jesus'ek



# AETZEN USKARAS

## 1

Izen laguna,  
Oianeko,

izena  
otso

adjetiboa,  
aundi

atzizkia  
endako

Atzizkia beti eskuineko hitzari atxiki behar zaio.

Oiana

Oianeko

Oianeko otsoarendako

Oianeko otso aundiarendako

Oianeko otso aundi eta beltzaendako

Izenaren aurrean doazen hitzak.

1. (r)en eta ko atzizkiez sorturiko izen lagunak:

etxeko patxarana eta ez patxaran etxekoa

oianeko axaria eta ez axari oianekoa

Ariako erria eta ez erri Ariakoa

otsoaren ortzak eta ez ortzak otsoarenak

### 2. zenbakiak, bat eta bida ezik.

zakur bat

bida burtxintxak, baita etxe bida

irur mare

laur kukuso

bortz txori

eta era berean beste guztiak

### 3. zenbaki ordinalak... garren.

lemexiko aldiz

bigarren taldea

irugarren etxea

laugarren xoxa

azken artza

### 4. dun atzizkiaz sorturiko adjetiboak

makiladun gizona

bizardun emaztekoa

### 5. zenbait adjetibo mugagabe

gonenbertze, goinbertze, geinbertze, zenbeit eta abar.

### 6. galdekariak.

zer tokitan?

zein etxetan?

zebat erritan?

### 7. (t)ar atzizkia daramaten hitzak

Orbaextar apeza.

Izen berezia denean atzean jartzen da: Mikel Orbaextarra.

### Izenaren ondotik (eskuinean) elemento hauek joan daitezke:

1. artikulua, a, ak.

etxe, etxea, etxeak

2. erakusleak: gau, gori, gura.

etxe gari, borda gau, oian gura; eta era berean beren deklinabide osoan bai singularrean, bai pluralean.

3. bat zenbakia.

etxe bat, gizon bat.

bida zenbakia ere:

bida etxe, bida ogi.

### 4. adjetiboak.

etxe aundia. Oian zabala.

### 5. adjetibo mugagabe batzuk:

aur gutiren

etxe anitzetan, baita anitz etxetan ere.

Numeroa

Bakarra

anitza

mugagabea

gizona

gizonak

gizon

### Noiz erabili mugagabea:

1. adjetibo mugagabeekin:

etxe guti ikusi nue.

zerenda o goinbertze egur?

2. galdekarien ondorenean:

zer oron da?

zemat aur etorri zeigu?

3. zenbakariekin:

bida etxe, irur axari, laur bei, ogei gizon.

### Noiz erabili (BAKARRA ETA ANITZA) mugatuak eta noiz mugagabea.

1. Mugatuak erabiltzen dira errandako izena ezaguna delarik.

gure etxea                      gure etxea saldu dugu.

gure etxeak                     gure etxeak saldu tugu.

Ikus daitekenez "etxea, etxeak" elementuak guztiok ezagutzen ditugu, ba dakigu zein etxe den, gurea, gureak, duguna edo ditugunak.

2. Mugagabea erabiltzen da esandako izena ezezaguna delarik:

**gure etxe bat etxe bat saldu dugu.**

"gure etxe bat" edo "etxe bat" esatean ez dakigu zehazki zein den aipaturiko etxea. Ditugun etxe guztietatik bat da, baina zein den eztaigu.

Adjetibo Mugagabeak

anitz, guti, zerbeit, batzu, bertze, geiago, gutiago, aski, zenbeit, edozein, goinbertze, geinbertze, norbeit...

Erran dugunez Mugagabe hauetako batzuk izenaren aurretik doaz, besteak atzetik.

**Aurretik doazenean, atzizkiak izenari atxikitzen zaizkio zenbeit etxetan, atzetik edo soilik doazenean, atzizkia adjetibo mugagabeari atxikitzen zaio: etxe guti.**

**Bereizten da Aezkoako uskaraz naiz erran behar den: anitz, guti, eta noiz aundi, txiki, biziki, ezti, gogor, azkar eta gainontzeko adjetiboak, horrela:**

su, argi, egarri, gogo, alke, otz, beldur... izanen dira, txikiak, aundiak, biziak eta alx su aundia; su azkarra, su bizia, su ezta..

su anitz izanen da su batzuk, toki desberdinetan piztuak.

Nona hemen adjetibo mugagabeen deklinabidea:

anitz	zenbeit	bertze
anitzek	zenbeitek	berizek
anitzei	zenbeiti	bertzeri
anitzen	zenbeiten	bertzenen
anitzendako	zenbeitendako	bertzenendako
anitzengatik	zenbeitengatik	bertzenengatik
anitzeki(n)	zenbeitekin(n)	bertzenki(n)
anitzetako	zenbeitetako	bertzetako
anitzetan	zenbeitetan	bertzetan
anitzetra	zenbeitra	bertzeren(gan) (beitan)
anitzetreino	zen beitreino	bertzenengana
anitzeteik (Rik)	zenbeiteik (rik)	bertzerengeino
anitzen(gan) (beitan)	zenbeiten(gan) (beitan)	bertzerenganik
anitzengana	zenbeitengana	bertzetra
anitzengeino	zenbeitengeino	bertzetreino
anitzenganik	zenbeitenganik	bertzeteik
guti	batzu	norbeit
butik	batzuk	norbeitek
gutiri	batzuri	norbeiti
gutiren	batzuren	norbeiten
gutirendako	batzurendako	norbeitendako
gutirengatik	batzurengatik	norbeitengatik
gutireki(n)	batzureki(n)	norbeiteki(n)
gutiko	batzutako	
gutitan	batzutan	norbeiten(gan) (beitan)
gutitra	batzutra	norbeitengan
gutitreino	batzutreino	norbeitengeino
gutitik (rik)	batzuren(gan) (beitan)	norbeitenganik
gutiren(gan) (beitan)	batzurengana	
gutirengana	batzurengeneino	
gutirengeino	batzurenganik	
gutirenganik		

Zenbeit, geienetan "zeneit" erraten da, eta era berean bere deklinabide guzia.

Jeneroa

Aezkoako uskaran ez da hitzen geihengoan jenerorik, baina seksu bereizketa agertzen zaigu hitz batzutan.

1. Aberetan, arra eta emea adierazteko orotsa eta urritxa erraten da, nahiz eta kasu batzutan hitz desberdinak erabili, ondorengoetan bezala:

marro, artzantza, aria	ardia
borro, aker, bake	auntza
ordots, aketz	aardi
zezen	bei
gereño	bior
txakur	txakuroilaka
oilar	oilo

Irendutako abereak:

ZALDI  
IDI  
ZIKIRO

2. Pertsonetan, beti arra edo emea hitzak erabiltzen dira eta aditz jokaeran k, a, ta gizezkoak  
n, na emakumezkoak adierazteko agertzen dira baita ondorengo hitzetan ere:

gizon	emazteki
senar	emazte
xein	andre
mutiko	neskako
mutil	neska
aita	ama
suin	errein
seme	alaba
apitxi	amiña
aitatxi	amatxi
anaia anea	arreba, aizpa

### **Izen arrunten deklinabidea.**

Hiru sailetan zatika ditzakegu izen arruntak beren deklinabiderako:

1. Bizidunak: bokalez bukatzen direnak, eta kontsonantez bukatutakoak.
2. Bizigabeak: bokalezkoak eta kontsonantezkoak.
3. ai, ei, oi, diptongozkoak.

Ikus ditzagun deklinabiak.

Bizidunak (bokalezkoak)

Mugagabe	Bakarra	Anitza
zaldi	zaldia	zaldiak
zaldik	zaldiak	zaldiek
zaldiri	zaldiari	zaldiei

zaldiren	zaldiaREN (ein, aen)	zaldien
zaldirendako	zaldiarendako (AENDAko)	zaldiendako
zaldirengatik	zaldiarengatik (aengatik)	zaldiengatik
zaldireki(n)	zaldiareki(n) (aekin)	zaldiekin(n)
zaldiz	zaldiaz	zaldiez
zaldirengan	zaldiarengan (aengan)	zaldiengan
zaldirengana	zaldiarengana (AENGANA)	zaldiengana
zaldirengeino	zaldiarengeneino (aengeino)	zaldiengeneino
zaldirenganik	zaldiarenganik (aenganik)	zaldienganik

Geienetan erraten da zalditra, biorretra.

#### Bizidunak (kontsonantezkoak)

Mugagabe	Bakarra	Anitza
mutil	mutila	mutilak
mutilek	mutilak	mutilek
mutili	mutilari	mutilei
mutilen	mutilaen (AREN) (ein)	mutilen
mutilendako	mutilaendako (arend.)	mutilendako
mutilengatik	mutilarengatik (aengatik)	mutilengatik
mutileki(n)	mutilareki(n) (aeki)	mutileki(n)
mutilen(gan) beitan	mutilaren(gan) (aengan)	beitanmutilen(gan) beitan
mutilengana	mutilarengana (aengana)	mutilengana
mutilengeneino	mutilarengeneino (aengen.)	mutilengeneino
mutilenganik	mutilarenganik (aenganik)	mutilenganik
mutila(r)ik		

#### Bizigabeak (bokalezkoak)

Mugagabe	Bakarra	Anitza
zubi	zubia	zubiak
zubik	zubiak	zubiek
zubiri	zubiri	zubiei
zubiren	zubiaren (aen)	zubien
zu bi ren dako	zubiarendako (AENDAko)	zubiendako
zubirengatik	zubiarengatik (AENGATIK)	zubiengatik
zubireki(n)	zubiareki(n) (AEKI)	zubieki(n)
zubiz	zubiaz	zubiez
zubitako	zubiko	zubietako
zubitan	zubian	zubietan
zubitra	zubira	zubietra
zubitreino	zubiareino	zubietreino
zubiteik	zubitik (rik)	zubietek

#### Bizigabeak (kontsonantezkoak)

Mugagabe	Bakarra	Aritza
lan	lana	lanak
lanek	lanak	lanek
lani	lanari	lanei

lanen	lanaren (LANEIN)	lañen
lanendako	lanarendako (aendako)	lanendako
lanengatik	lanarengatik (AENGATIK)	Ianengatik
Ianekí(n)	lanareki(n) (aeki(n))	laneki(n)
Janez	lanaz	lanez
lanetako	laneko	lanetako
lanetan	lanean	lanetan
lanetra	lanera	lanetra
lanetreino	lanereino	lanetreino
laneteik	lanetik	laneteik
lanik		

#### Ai, Ei, Oi, diptongozkoak

zelei	zele a	zeleiak
zeleik	zeleiak	zeleiek
zeleiri	zeleiri	zeleiei
zeleiren	zeleiazen (aen)	zeleien
zeleirendako	zeleiarendako (AEND.)	zeleirendako
zeleirengatik	zeleiarengatik (aeng.)	zeleirengatik
zeleireki(n)	zeleiareki(n) (aeki)	zeleireki(n)
zeleiz	zeleiaz	zeleiez
zeleಿತako	zeleik	zeleietako
zeleitan	zeleian	zeleietan
zeleitra	zele ana	zeleietan
zeleitreino	zeleiareino	zeleietreino
zeleiteik	zeleitik	zeleieteik
zeleirik		

#### Izen Berezien deklinabidea

1. Pertson izenak: bokalezkoak eta kontsonantetzkoak.
2. Toki izenak: bokalezkoak eta kontsonantetzkoak.

#### Pertson izenak (bokalezkoak)

#### (kontsonantetzkoak)

Iñigo	Isabel
Inigok	Isabelek
Iñigori	Isabeli
Iñigoín (Iñigoren)	Isabelen
Iñigoindako (Iñigorendako)	Isabelendako
Iñigoekí(n)	Isabeleki(n)
Iñigoz	Isabelez
Iñigoren(gan) (Iñigoen(gan) beitan)	Isabelen(gan) beitan
Iñigoengana (Iñigorengana)	Isabelengana
Iñigoengeneino	Isabelengeneino
Iñigoenganik	Isabelenganik

#### Toki izenak

#### Bokalezkoak

#### Kontsonantetzkoak

Berrendi  
Berrendik

Itolatz  
Itolatzek



Berrendiri  
Berrendi(r)en  
Berrendi(r)endako  
Berrendi(r)engatik  
Berrendi(r)ekin(n)  
Berrendiz  
Berrendiko  
Berrendin  
Berrendira  
Berrendireino  
Berrenditik (rik)  
Berrendirako

Itolatzi  
Itolatzen  
Itolatzendako  
Itolatzengatik  
Itolatzeki(n)  
Itolatzez  
Itolatzeko  
Itolatzen  
Itolatzera  
Itolatzeko  
Itolatzetik (rik)  
Itolatzera

Erri izenak

Bokalezkoak

Aria  
Ariako  
Arian  
Ariara  
Ariareino  
Ariatik (rik)  
Ariaz  
Ariarako

Kontsonantekoak

Oroz  
Orozeko  
Orozen  
Orozero  
Orozereino  
Orozetik (rik)  
Orozez  
Orozerako

Donibane  
Donibaneko  
Donibanen  
Donibanera  
Donibanereino  
Donibanetik (rik)  
Donibanez  
Donibanerako

Mauleon  
Mauleongo  
Mauleonen  
Mauleonera  
Mauleonereino  
Mauleonetik (rik)  
Mauleonez  
Mauleonerako

Orbaizta  
Orbaiztako  
Orbaiztan  
Orbaiztra  
Orbaiztareino  
Orbaiztareino  
Orbaiztatik (rik)  
Orbaiztaz  
Orbaiztarako

### **Galdekariak eta zenbakariak**

Galdekariak hauek dira:

Nor, zer, zein, non, noiz, nola, zemat.

Hauetatik edozen, edozein, edonon, zerbeit, norbeit, noizbeit nolabeit eta abar sortzen dira.

Hona hemen gaidekarien deklinabidea:

nor  
nork  
nori

zer  
zerk  
zeri

zein  
zeinek  
zeíni

noren, noin  
norendako, noindako  
norengatik, noingatik  
noreki(n)  
nortaz  
norengan noingan  
norengana noingana  
norengeneino  
norenganik noinganik

zeren  
zerendako  
zerengatik  
zereki(n)  
zertaz  
zertako  
zertan  
zertra  
zentreino  
zerteik  
zerik

zeinen  
zeinendako  
zeinengatik  
zeineki(n)  
zeintaz  
zeintako  
zeintan  
zeintra  
zeintreino  
zeinteik  
zeinengan  
zeinengana  
zeinengeneino  
zeinenganik

non  
nongo  
nora  
noreino  
nondik

nola  
nolako

noiz  
noizko  
noiztik  
noiz artio

zemat  
zematek  
zemati  
zematén  
zematendako  
zematengatik  
zematéki(n)  
zematez  
zematetako  
zematetan  
zematetra  
zematetreino  
zemateteik  
zematengan  
zematengana  
zematengeneino  
zematenganik

edozein  
edozeinek  
edozeini (neri)  
edozeinen  
edozeinendako  
edozeinengatik  
edozeineki(n)  
edozeintaz  
edozeintako  
edozeintan  
edozeintra  
edozeintreino  
edozeinteik  
edozeinengan  
edozeinengana  
edozeingeneino  
edozeinenganik

#### Zenbakariak

bat  
bida  
irur  
laur  
bortz  
sei  
zazpi  
zorizi  
bedratzi  
amar  
ameka  
amabi(da)  
amairur

amalaur  
amabortz  
amasei  
amazazpi  
emezortzi  
emeretzi  
ogei  
ogeitamar  
bidetan ogei, berrogei.  
iruretan ogei, irurogei  
lauretan ogei, laurogei  
eun  
mila

Bat, beti atzetik doa; Bida, bai atzetik bai aurretik.  
Bertze guztiak aurretik.

## Deklinabideari buruzko soarrak

"z" instrumentala "s" entzuten da. begies, guzietas, bearries, agoas, sudurres, eskues...

"n" ki akatzen diren eleak: "ik" artzen dute partitiboan: egieik, biarrik, bertzeik "tzat" edo "tzako" atzizkiak gen "tako" izaten dira, aitatako, semetako, alabatako "arekiko" atzizkia: aekikako edo eikikako da Ayetzen agoetan: aiteikikako, aiteki-kako (pl.)

zek, eta bere deklinabidea ere:

zei, zeen, zendako, zengatik, zetas...

bizien juzgatzer, ogiaena eitra, gabaen luzea...

biziak juzgatzer, ogia egitera, gaba luzea ren ordez.

## Ordinalak

Lemexiko	Aste
bigarren	
iru(r)garren	Astelena
lau(r)garren	Asteartea
bozgarren	Asteazkena
seigarren	Ortzeguna
zazpigarren	Ortzilare
zortzigarren	larunbata
eta era berean bertze guztiak.	Igandea

## Egunak nola ematen diren.

VI 15. garagarzaroen amabortza.

|| 20. otseilaen ogeia.

Xei egun

Lan egun

## Ikus ditzagun urtaroak eta ilabeteak.

Urte

||abete

Negu

Udaste, primadera.

Uda

Larrazken

1. Izotzila

2. Otseila

3. Martxoa

4. Aprila

Aste sandua

5. Maiatza

Bazkoa

6. Garagarzaroa

7. Garila

8. Agorrila, abuztua

9. Urria


10. Azaroa

11. Abendua, lemesiko abendua

Subilaro, Eguberri, Urte zan gaba

12. Biabendua, bigarren abendua

**Josu Cabodevilla Lusarreta**



# -KO, -RAKO, -TARAKO NOIZ ETA NOLA ERABILLI

Gaia mugatuko dut lenengotik. Emen ez dut jorratuko -KO, ta -EN edo -REN noiz nola erabilli. Beste auzi bat da ori. Eta buruausterik aski emango digu bestela ere -KO atzizkiak berak, onako alor mugatu ontan nola erabilli izan duten eta nola erabiltzea litzakean egokiena, aztertzen: noiz -KO bera bere orlan soillik, noiz -RAKO ta noiz -TARAKO.

Beste auek ere kanpora uzten ditut jardun ontan: NORA? ta NORAKO? galde-itzei dagozkien erantzunak aztertzea, alegia, kanpora gelditzen da.

NORA? Erantzunak: MendiRA, gure erriko mendiETARA, edozein mendiTARA.

NORAKO? Erantzunak: AuzoRAKO, edozein auzoTARAKO, gure etxeETARA-KO bidea...

\* \* \* \*

Asiera beretik egin dezagun beste bereizketa bat argi ta garbi, zati bi ez-berdiñak izango bai-ditu saiakera edo jarduketa onek:

Lenengoa: ZER? ZERTAN? ZERTARA? ZERTARAKO? ta ZERTAKO? galde-itzak eta beraien erantzunak izango dira zati onen ardatz, edo zati ontan aztertu-ko ditudanak.

Bigarrena: Noizkoari edo aldi ez-berdiñei dagozkien aditz-lagunak jorratuko ditut bigarren zatian: NOIZ? NOIZKO?, GAUR, BIAR, ATZO, ETZI, GERO, BETI, eta berauen erabilkerak ere bai noski.

\* \* \*

## 1. ZATIA: ZER? ZERTARA? ZERTARAKO?

"Galde-itza" esanez adieraziko dut ZER? ori. Eta galde-itz onen jokaera bere osoan, onela da noski: ZER? ZER-K? ZER-I? ZER-EN? ZER-GATIK? ZER-ENGATIK? ZER-eKIN? ZER-ENTZAT? ZER-taZ? ZER-tAN? (ZER-taKO?) ZER-tARA? ZER-tARAKO? ZER-tARAIÑO? ZER-tARAIÑOKOA? ZE(R)-LAKOA?

Arrotzen ari naizen auziari dagozkionak bakarrik bereiziko ditut emen. Eta galdera mugatu oiei dagozkien erantzunak ere aztergai izango dira.

1.—ZER-tAN? Galde-itza bere osoan, ZERTAN? dugu, eta ez da ZETAN?, zenbaitetik esan ez-ezezirik, idatzi ere ZETAN? idaztea gertatu ba'da ere.

ZER-tAN zaude? Erantzunak:

Begira nago... Erdi-lotan nago... Egoten nago.

ZER-tAN etorri zera, seme? Erantzuna:

Larri nengolako etorri naiz. Onela erabili izan dute izketan, eta orduan "Zer-gatik?" ba'litz bezala edo antzera gertatzen da.

ZER-tAN eserita zaude? Erantzuna:

Aulkian eserita nago... Aginte-aulki onTAN eserita nago.

2.—ZER-taRA? Bere osoan ZERTARA? dugu, eta ez ZERTAA, izketan onela esaten ba'dugu ere zenbaitetan.

ZER-taRA?

ZERTARA etorri zera azokara? Erantzunak:

Barazkiak saltzera, etorri naiz. OntaRA etorri naiz, erosketak egitera etorri naiz. Erosketara etorri naiz azokara.

Egia esateko, bi auetan ez dago inñolako arazo aundirik, ezta auzi zaillik ere, guztiok onela idazten ditugulako.

3.—ZER-taRAKO?

Bijoaz erantzunak zenbait mailla ez-berdiñetan.

a) Izenordeak erabilliz

ZER-taRAKO duzu liburua? ONTARAKO, ORTARAKO, ARTARAKO dut liburua.

b) Aditza jokatzuz emandako erantzunak.

ZER-taRAKO duzu aizkora? Egurrak txikitzeke dut aizkora.

ZER-taRAKO duzu burua? Illeak eukitzeke bakarrik ez, pentsatzeko dut bai-zik burua.

d) Izenak jokatzuz emandako erantzunak.

ZER-taRAKO da garia? IriñetaRAKO, ogitaRAKO da garia.

ZER-taRAKO da egurra? SutaRAKO, zurgintzaRAKO, ooletaRAKO da egu a.

ZER-taRAKO dira txalak? AurreRAKO, beitaRAKO, esnetARAKO, aragitaRAKO, okeletaRAKO dira txalak.

ZER-taRAKO eramaten ditugu ogia ta ardoa Mezatan? OparitaRAKO eramenten ditugu ogi-ardoak Mezatan.

Galde-itza ta erantzunak beren osoan, orrela izan arren, egia da bai, izketan beintzat beste era ontan erabiltzen ditugula: ZERTAKO? ONTAKO, ORTAKO, ARTAKO, esneTAKO, iriñeTAKO, ogiTAKO, suTAKO, oparitAKO...

Ala ere gogoan izatekoa da gauza bat: -TAKO ori ez dugula orrela soil-soilki erabiltzen, TAA luzatuz baizik, era ontan: ontAAko, ogitAAko, oparitAAko, sutAAko... Zer adierazten du A luzatze orrek? Zerbait jaten dugula izketan ari ganean: RA jaten dugula ta orren orde, AA bikoiztu edo gutxienez luzatu egiten dugula. Orregatik, bada, idazten dugunean beintzat -RAKO idatzi bear dugu bere osoan.

## Idazleen aitorpenak

Idazleek ere antziñatik bestela erabili izan dutela? Ezin ukatu. Baiña... bietara erabili izan dute; era bietako aitorpenak eta argibideak dauzkagu idazleen lanetan, bereala ikusiko dugunez.

UBILOS idazleak 1785'gn urtean argitaratu zuan liburuan, "Christau Doctriñ berri-ecarlea" izenekoan, askotan dauzka ONTACO, ARTACO, CERTACO.

Baiña beste era ontara ere idatzi zituan. Adibidez: "orretaRACO eguiña da guizona" (5'gn orrialdean) eta "orreTARACO behar zán ura edo ugoldea" (15'gn orrialdean).

MOGEL aundiak ere geienik erabiltzen dituanak, —ezin ukatu— auek edo onelakoak dirala: CERTACO, ORRETACO, e.a. Geiago oraindik: NORAKO bide?

galderari erantzutekoan ere laburturk dakar askotan: "becaTUCO BIDE, becaTUCO ocasio". Garbi-garbi becatuRACO bide, becatuRACO ocasio bear duanean ere RA jaten baldin ba'du, zenbatez aixago jango du besteetan?

Baiña MOGEL ospetsuak beste era aukeratuak ere erabili zituan, "CONFESIO ta COMUNIOCO... ERACASTEAK" liburu ezagunetan. Ona emen adibideak.

"Confesio generala, ta artaRACO, dempora guci artaco becatu guci..." (9'gn or.). Ageri denez, ederki bereizten ditu ARTARACO ta dempora guci ARTACO. Eta 86'gn orrialdean onela: "Baña itz eguitera dihoanak badaqui emango diola becatuRACO vide, orduan itz eguitera da becatuRACO ocasioa", naiz-ta emen ZERTARAKO galderari ez-baiña NORAKO bidea? galderari erantzuten dion.

AGIRRE Asteasu'koak ere ERACUSALDIAK bere liburuetan, besteak beste, aitorten aukeratuak badauzka bere idaztietan, bestelakoak ukatu gabe. ZAZPI SAKRAMENTUAK gai artuta idatzirik liburuan, aitorten aukeratuak aurkitu ditut: "CertaRACO aibeste egarrirequin... (335, 337 ta 339 orrialdeetan). "OrretaRACO ipiñi nai izan zuan Sacramentu miragarri au" (335'gn or.). "OnetaRACO bear dan lenvico gauza da garbitzea anima" (449). "Orregatic venaz utzi bear ditugu oetaRACO gogoetac" (450). "AetaRACO vorondatea ta gogoa" (451). "Eta onetaRACO sortu bear degu beraren ondasunac iristeco gose..." (451).

Eta "JAUNGOICOAREN AMAR AGUINTEEN GAIÑEAN ERACUSALDIAC" liburuan beste adibide aukeratuak beintzat: "OnetaRACO mutillai eman bear zate, aldaba, escola ona" (82). "OnetaRACO alabaiña eguin cinduan Jaunac" (90). "Venaz eguin bear du aleguiña onetaRACO..." (98).

Eta NORAKO bidea? galderari erantzutean, MOGEL'ek zenbaitetan "becatuco bidea" idazten ba'du ere, AGIRRE'k beti BEKATURAKO BIDEA idazten du, eta askotan idatzi ere.

Eta AXULAR aundiak zer erabiltzen ote zuan? Ezin ukatu, geien-geienik, -TAKO erabiltzen zuala, baiña zenbaitetan baita -TARAKOTZAT ere. Egia da ZERTAKO ta ARTAKO askotan erabiltzen dituala, adibidez: "Zertako eginak baitira, hartan..." (Lekuona'ren argitalpeneko 10'gn or.). Baita beste aukeratuak ere: "Gizona sortzen da trabailuko, eta egaztina aireKO" (10). "Oialaren parte bat neurtzen eta ordenatzen dugu kapaTAKO, bertze parte bat iakaTAKO" (34).

Baiña beste aukeratuak dira benetako argigarri egokiak. "Erregek hartaRAKOTZAT hautatu eta izendatu zinituela" (XXXVII). "HartaRAKOTZAT edireiten da bertze bat..." (77). "HartaRAKOTZAT indarrik asko..." (150). "Eta hartaRAKOTZAT uztaiz bezala baita gurekin" (368). "Eta hartaRAKOTZAT frogaz dezagun lehenik..." (358).

Ari berari jarraituz, izketan esaten dugunez, egiTEKOAN idatz zezakean, baiña AXULAR gorenak onela dauka: "Untziaren egiteRAKOAN, erran zerauen Iainkoak" (76).

Argibide aukeratuak guztiek naikoa garbi aitortzen digute, alajaiña!, ez dala gaurko zenbait berrizalderen asmaketa; ez dala itzak luzatu bearra ere. Antziñako idazle trebeenetakoek askotan erabili izan zituzten -RAKO ta -TARAKO itz-amaierak. Eta adibide ugari oien argira, garbi dago noski, aukeratuak ez dirala oker asmatuak eta alperrikako luzagarriak. Alderantziz baizik: besteak dirala, izketari lotuegi erabilliz-edo, neurritz gora laburtuak, eta -RAKO ta -TARAKO itz-amaieretatik -RA janda, -KO ta -TAKO biurtuak.

### Akesolo jaunaren iritziak

Besterik uste du Akesolo euskal-jakintsuak, baiña jakintsuenak ere ez dezake beti ta guztietan arrazoi osoa berak izan. EUSKERAZAINTZA aldizkarian (IX'gn' aleko 1-3 orrialdeetan) bestelako argibide ta adibide batzuk argitaratu zituan Aita Lino gure maisuak. Baiña argibide batzuek beintzat nerretzat ez dute balio geiegi-rik.

Lenengo, Zapirain bertsolariarena: "Agur, Balentina, **betiko**, ez egun bat eta

**biko**". Gogoan izan, bertsoa dala, eta bertsolariak itzak luzatu ta laburtu egin bear izaten dituala, neurriak beartuta. Neretzat ez du indarririk.

Bigarren, ERRO'ko SERMOIA, 363 dalakotik artutako itzak: "Jaungoikoak autatzen badu edo berezten badu bat ofizio **bateko**, estadu **bateko** ero **beste-ko**, ematen tio ofizio **artako** ero estado **artako** beartuen kalidade guziak".

Esaldi ontako ERO, EMATEN TIO ta BEARTUEN idaztea, ez du noski Akesolo jaunak eredutzat jarriko. Izan ere, ERO ez-baiña EDO bear zukean, "ematen TIO" ez-baiña, "EMATEN DIZKIO" eta "BEARTUEN" ez-baiña "BEAR DITUEN" dira idazkera egokiak eta beren osoan emanik.

Orrela beraz, ERO, TIO ta BEARTUEN ontzat artzerik ez dagoan bezala, ezta BATEKO, BESTEKO ta ARTAKO ere ez dago beren ortan ontzat artzerik. Eta oien orde, BATERAKO, BESTERAKO ta ARTARAKO idatzi bear zituhan, eta ditugu. Eta bestela, BATEKO, BESTEKO ta ARTAKO onartzekotan, ERO, EMATEN TIO ta BEARTUEN ere beren ortan, idazkera egokitzen eman bearke genituzke. Eta ori ez. Garbi bai-dago or, batzuk laburtu dituanak, besteak ere laburtu egin dituala izketako eran jarraituz edo aren eragifñez.

#### 4.—ZER-taKO?

ZER? "galde-itza" jokatuta ipiñi dut goian. Garbiro ageri da an gauza bat: ZER-taRA? eta ZER-taRAKO? biak ere onela jokatuta, ondo daudela galdera bietan, eta ondorioz, erantzunak ere era berean emanda, zuzen eta jator daudela. Era ortan erabiltzeari ez dago iñolako akatsik eta aitzakiarik ateratzeko arrazoi egokirik.

Ala ere, bai izketan eta bai idatzietan, erabiltzen dugula "ZER-taKO?" itza? Bai noski. Baiña nola? Eta zer esan nai du?

a) ZER-taKO? "ZER-taKO etorri zera, seme, ain goiz?", adibidezko galdera.

Eta erantzuna onelatsu: Aita, zu zain larri egongo zifnalakoan etorri naiz ain goiz.

Eta onelatsuko galdera danean, ZERGATIK? ba'litz bezala artzen dugu ta neurri bereko erantzuna ematen, ageri danez. Zuzenki erabillia? Ez dakit. Gaizki dagoanik ere ez nuke esango. Gaiñera, berdin galde genezake "ZER-taRAKO etorri zera, seme, ain goiz?". Eta berdiña izango litzake erantzuna.

b) Beste era ontara ere erabiltzen dugu: "ZER-taKO liburua da au?".

Eta orduan onelatsu izan daitezke erantzunak: "MezaTAKO liburua da, bertso-TAKO liburua, irakurkeTAKO liburua da..."

Onelakoetan, ordea, ez du gerorako esanairik, ZER-taKO galderak duan bezala. Gutxi gora-beera auxe esan nai luke: "ZER-taKO liburua?, edo berdin dana, ZER TAN erabiltzen duguna? Eta erantzunak ari berean bear du: "Mezatan erabiltzen duguna, bertso-lanean edo bertsogintzan, erabiltzen duguna... irakurtzen ikasteko erabiltzen dugun liburua..."

Era berean galde genezake: "ZER-taKO jantziak dira auek?" eta onelatsu erantzun: "Lan-eKo jantziak dira... lanean erabiltzen ditudanak..."

Gauzak onela, gauza bi ez-berdiñak dira nere iritzirako, batetik ZER-taKO? eta bestetik ZER-taRAKO?, bi galdera diranez, eta ez-berdiñak dira ematen dizkiegun erantzunak ere. Orregatik, BIAK ongi daude, era egokian erabiltzen ditugunean.

"Lapurdi aldeko batek ez dau iñoi z**ertarako** galderarik egingo", idatzi zuan Akesolo jaunak. Eta Lapurdi'koa dalako, beste gabe, ongi ta eredugarri al da? Ziur nago, "ZERTARA ekarri nauzu mendira?" esaten dutela. Beraz, ZERTARA erabiltzen dutenek ez daukate arrazoirik eta ez daukate eziñik, ZERTARAKO ez erabiltzeko. Eta, ZERTARA ere erabiltzen ez ba'dute, ala ere orrek ez du adierazten, ez gaizki daudenik eta guk idatzi bear ez ditugunik.

(Jarraitzekotan)

**Gaztañaga'tar Jesus'ek**



# TXOMIN AGIRREGAZ ITXAS GIROAN

Ondarroa'n Txomin Agirre-ren jaiotzatiko 125 urtegarrena ospatu da.

Merezi dau "Kresala" eta "Garoa" ren egilleak bera gogoratzea.

Niri "arranondotar" lez, ba dagokit zerbait esatea.

"Kresala"ri buruz "azal-azaleko" ikutu batzuk.

Ain aberatsa dan Ondarroa'ko erri euskeratik Txomin'ek igarri barik, berez jasotzen zitun berba batzuk gogoratu nai dodaz. Batzuk bizirik dagoz, besteak ez dira il, baiña su ondorengo ke azpian lez gordeta aizea bear txingarra sortu arazteko.

"Kresala" tik atara daiguzan batzuk. Auxe izango da bere omenik biziena.

Danok dakigu itxastarrak zaratatsuak dirala. Ala diñosku Txomin'ek: "Gizonen gozategi ta arangelak nun dagozan beriala igarri leike, ostro bedarrik ikusi ezaren; naiko da zaratarik andiena nun dagon entzuten geratzea".

"Ketan eta deadarrez beti". ... "arrantzaleak, izketa zakarrekoak..."

Kalean **makillaka** ibiliko dira mutillak, itxastarrak **agaka**. "Agaka norbaiteri burua auzi..." Txalopetako agak gogoratuten dauskuz orrek.

## Arraiñak

Arrain bakoitzari bere izatea ataraten daki.

"Itxas **aingira** lakoxe treñeruak..." (Luzeak).

"Amarratza (olagarrua) lez erpak lotuta".

"Atuna baiño azkarrago..." "Atuntsu onagaz zorrak kittutu..."

Besigua.— "Neguan izaten da besigutea".

Izurdak.— "Izurdien eraso aldiak"... "Izurdak azpitik gora eta kaivak goitik bera..." "Aren lepo lodi baltzak izurdearen antz pixkat ba dauka..." "Urdai zatia-gaz, krusaillu orioagaz eta izurdearen zaiñagaz noizean bein bigundu oi zirean naruzko oiñetakuak". Kitolis'en gertaeran noiz ittoko semea zelan ibili zan adierazoteko "ordu bi ibili zala, diño, atuna baiño azkarrago, izurdea baiño gogorrago, balea baiño adoretzuago..."

Mielga.— "Mielga ustel gosekilla".

Txibia.— "Txibiari laster jaten emongo leukioe oneik" (Itxasoan mariatzen dirane-kaitik).

**Zimarroia**.— "Zimarroi ustela".

"Milloi bat ba ei dauka zimarroi orrek.

"Milloiagaitik zimarroia edo izurde ustela artu bear da senartzat?"



Antxoa.—"Arrain otzaretan zidar urtua lez erionga". (Italiarrak, antxoa gazitua lantegietan eroatera etorten diranean, asko begiratzen dabe zidartsua dan (egunekoa ete dan) edo ta egunetakua, euren esanetan "ofuscada").

Beste ikuspegi bat: Ondarru itxascagaz gorputz eta arima izakeraduna da. "Besigu ta atun tatoakaz azi ta loditu ninduen..."

Eta beste arrain mota bat: "Euri arraiña", zer? Gogoratu len ain sarri errira etortzen ziran galiziar txorrotzaileak. Areik ziran "euri arraiñak".

ToIIa.—Tollanak emon. Kristonak emon, esaten da leku askotan. Emen tollanak. Tolla arrain sailla da iltzeko eta origaitik jo bear izaten dalako. Aitz-arraiña.— Aitzeko arraiña.

Arraiñak bere usaiña dauka. Arrain sunda, diño Txomin'ek.

Arrain saltzailleak: Antxiña "astodunak", errietara astoetan arraiña eroaten ebe-nak egoten ziralako.

Arraiñak amua bear dau: "Amoan ipinten daben jakiagaz bakarrik ez da jausi-ko"

Eta arrantzan patrioiak bear izaten dira, Txomin'ek sarri "atzekua" deitzen dau-so: "atzekuak eskuak besapean berotzen zitun bitartean..."

Arrantzan ontziak be bearrezko dira. Eta sarri atoian ibili bear, beste batek lotuta ekarri bear, ezbearrenategaitik. Txomin abadea zan eta ba dakiz orrelako berbak eleiztarrekaz erabiltzen: "Atoian legez eleizara"... "gure arrantzaleak "gorrira" baizen azkar eztira joaten txarteletara, eleizako ezkillatxoak dilin dilin luzarokoan ibiliarren.

Or dagoz bestetan ontziak, txalopak, killaz gora tirabira eginda. Txomiñek azpikoz gora esaten dau.

Eta danok dakigu txalopen azpiak ondo garbitzeak garrantzi aundia eukiten daua. "Atunetara baiño len azpiak ondo garbitu..." Esakera ori erabiltzen da baita be gizonak, aragikeriz, andrazkoen etxetara joaten diranean: Azpiak garbitzera joan dira.

Eta mariñela arrua da edo ez?

Txomin'ek arrotasuna nun egon leiken adieraztean au diño: "Oial barri ederrekaz euren gorputza apaindurik daroenen biotzean legez bizi da arrotasuna txapel zar koipez da ezkata edo eskamaz betetakoaren azpian..."

Artalakatza.—Sareak erabilten dabenan kortxoei, Txomin'ek artalakatza deitzen dautse.

Baga (Olatua)

Txomiñek maite dau berba au.

Azkue'k olatu sakon, andiari emoten dautsa izen onen nortasuna. "Ola profunda" diño berak.

"Kresala"n onelakoak irakurten dira: "Baga ta olatuen orruak..."

"Baga zuri...". "Etxeak aiñako baga zuri sendoen artetik...". "Baga ausarditsuak ataraten dituan balde, tosta, panel, toldo..." "Baga batek burutik bera kendu euskun txalupa esku artetik". "Baga indartsuen gaiñean, gora ta bera, barrukoen bildurrez..." "Baga indartsuak arkaitz gogorreka burruka bizian..."

Balea.—"Balea baiño adoretuago..." Balia baizen indarisua, erramulari errimea.

Baltz.—Berba garratza da arrantzalien esaeretan.

"Negu baltza", "ipar baltza"... "Betondo baltza ipiñi ekatxari..."

Bitsa.—"Bitsa dariola". "Bitsezko ari zuri luze biurri bat itxiáz".

Arrantzaleak sarri erabilten dabe berba au arrokeri orde: "Arek lagaten daben bitsa...!"

Bisuts.— Aize lakarra. "Bisutsak estaldurik eukan..."

Brast.—"Aizeak lenengo brastada arpegian emon..." "Brast joten gaitu aize bumbada batek eta itxasora, txalupa barruko arrain..."

Brix.—Aizearen ezaugarri. Bere pertsonaia bat da. Brix aizetsua. Errekaize egunetan umiak kaletan zarataka ezagutzen dira: Errekaizeak brix, errekaizeak brix! deadarka.

Bare.—"Kantauriko itsas bardingabea agiri da bere betiko edertasunez apalndurik, ain laster urdin, bare ta baketsu urertzean txiplitxaplaka jolasean dagoala..." "Bare-bare egoan". "Olatu bare-barea..."

Deizalea.—Deia joten dabeneri Agirre'k deizalea deitzen dautsa. Oiturazko zangizonen bidez itxasorako arrantzaliei deitzea gau edo goizaldean. Txomin'ek bere kartetako baten diño, ez dauala ezagutzen besterik izen ori darabilanik.

Dsaust.— Uretara indarrez sartzea, "Dsaust danok itxasora, txalupa barruko arrain, otzara, sare ta tresna guztiekaz".

Durdo.—Arraiña. Aitzetan ibiltzen dana. "Durdo bi ta iru karraspio..." "Ezpanak durdo-durdo, agiñak zuri-zuri, ta kiskur kiskur ulea".

Ekatxa.—Berba larriak erabilten daki ekaitzaren aurrean: "Ekatzaren il soñu garratza..." "Ekatzaren orrua..." "Ekatxa etorri zan, baltza, zematزالlea, ikaragarritzkoa..."

Eztul.—Arrantzale zarrak garrantzi andia emoten eutsen eztuleri. Arrotasun laktzat ezagutu eztulik ez egitea. Batez be sermolarien aldetik. "Mutilla, esaten daue, piperra baño gorriago ta buruko ule guztiak tente dituela elizatik urtetean, —axe da eztarria, eztul bat be eztau egin".

Erramu-Erramulari.—"Orain ogetamalau urte arek erramuari ataraten eutsan grakadea etzan bertanberakua..." "Erramua zala ta etzala beste txalopa batekoekaz asarretu giñan..." "Erramuak eskuetatik itxi barik, begiak ernai ta besoak irme..." "Erabili euezan erramuak zoli ta biziro..." "...erramuetea galdu zanean, gertau zan arrigarritasuna sinistu ezinda" "...erritar erramulariak garaitu zituan txalopako agintari gizagaixoa ito zanean..." "Erramuari tenga ta tenga..."

Gorria.—(Itxas zabalean igarten dan arrain multsoa) "Antxoba talde ugaria urgañean ikusita, itxasora begira dabiltzanak gorria! gorria! deituten dabengan, Arranondoko saretxalopak arraña dagoan tokira eruaten dabeng abiadea ta aparra benetan izaten da begiragarritzkoa"... "Botaten deutsa txalopa orrek, azkar, jira guztian bere sarea "gorriari" ta eztago zer esanik, txalopa arena da irabazi guztia.

Grakadea.—(Erramu ta toletari utsita dagon estrapu arteko estuartzea). "...erramuari ataraten eutsan grakadea etzan bertanberakua".

Iparra.—Bizkaian Iparra ez da erderazko No re, Nordeste baiño. "Iparraldeko aize otz eta meiak..."

**Ipargoia.**—Au da erderazko Norteri dagokiona. "Ipargoiko aizea, geiago barik, bat batera ta guztizko asarre amorratuan sartu zan Arranondoko erritxoan".

"...Ipargoitik etorren aizeak lenengo brastadea arpegian emon deuskunean, ala mutillak deadar egin dau atzekoak..."

**Itxas...**—Itxas itza oiñarri dala, ainbateri bidea emoten daki Agirrek.

**Itxas-ate.**—Kaietarako sarrera, erderazko barra.

**Itxas arro.**—Olatuz beteriko itxasoa.

**Itxas-apartsu.**—Bitsez betetako itxasoa.

**Itxas-amorratu.**—"Itxasoari amorru ta apar guztiak joan artean..."

**Itxas kiskur.**—Itxasoa gustiz egoan arro, bere zabaltasun danean kiskur, bizi ta apartsu...

**Itxas-irakin.**—Itxas larri beroa. "Itxas berde, baltzeran, irakindua..." "Arrantzale batzuk, oraindiño, igari egin eben zerbait itxas irakin esnetuaren gaiñean..."

**Itxas-barru.**—(Itxas barrenaldi).

**Itxas-bide.**—..."urteten dabe itxas bidera.."

**Itxas-itxi.**—"Itxaso guztia itxi dau bereala (aizeak) ta or etorri gara gu, oker, Jaungoikoak daki zelan".

**Itxas-gaña.**—Itxasoaren goi-aldea.

**Itxaski.**—(Ekaitza). "Jagi zan, nondik eta zelan eztaikit, an nonbaiten ezkuturik bere orduaren zain egoan erruki bagako itxaski amorratua..."

**Itxas-triko.**—"An bertan sortuten dira (atxetan) lapak eta mutxilloiak, marraskulu, lanperna ta itxastriku edo morkotzak..."

**Itxasorate.**—Itxasora arrantzara urten aldia.

### **Itxas-alde**

### **Itxas-kate**

**Kalak.**—Itxasoan dagozan arrain tokiak. Izen bereziak eukiten dabez.

**Kostarren-kala, Ixkote, Kalabelarri, tribis-kala eta abar.** Ba dira txoriak be zabaltasun baten kalatxori lez ezagutzen diranak, kaio eta abar, Ondarroan mitxeletak be kala-izena daroe: kalapitxiak.

**Arrantzarako gaikietan bardin:** Kala-berun (plomoa), kala-potin (kalaetara eldu al izateko txalopak eta abar).

**Koasta.**—(Erderazko kodaste, itxasontziei eutsigarri lez aurretik asita ipinten jakoen egur edo burdiña) Ortik gizonei sudur orde, koasta berba erabiltea: Berbarik egiten ba dozu, koasta len be ausita daukazu gero!

**Karel.**—Itxasontzien egala. "Karel ondoan..." "Karel gañertzean..."

**Lanbasa.**—Txalopetako ura legortzeko, ertz baten trapu zarrak eta txatalak lotu eta erabilten dan makilla. (Gaurko "frogona").

Lapa.—Itsaskia. "Lapak atxari baño gogorrago eutsi..."

**Laño.**—"Ur lañozko estalkia..." (Itxas lainoa)

Legor.—Lurralde. Legorra jo, legorrera joan... Legorreko aizea. (Terrala).

**Legortu.**—(Zikatu) "Ondar gorria gañera boteaz, soñeko bustia etxera baño lenago legortu naiean..."

Loro.—Itxastarrak arrain andietako aparixuetan erabilten daberen lokarri meia.

Mallastu.—Artoaren tukurra. "Mallastua baiño meiago..."

**Maluta.**—Artaburuen estalkia. "Bakean da geldirik egozan kale bazterretako paper, zotz, zakar, lasto, buruko ule ta maluta galdu guztiak...". (Lengo arrantza joketetan, txalupak atunetara joaten ziranean, maluta oneik erabilten zituen amuetan, atunari, janaria zalakoan, beregana urreratu eragiteko).

**Manxuba.**—(Manjuba). Arrain moltsoa.

"Kresala'n", jaietan, andra-gizonen arteko "mandxuba" irakurten da: "Urriñetik begiratu ezker, enparantzako billereak moltso zabal bat zirudian, legorreko mandxuba gorri bat, izurde ta guzti; ta inguru guztian tente begira egozan atso, agure ta neskatilla gatzbakoak egiten ebien uztai andia, sareztat artu eikean.

**Marboilla.**—Odei ertza.

**Masia.**—(Macizo, raba) "Masia bearako da or, masia!"

**Maste.**—Belak jasoteko aga. "Txalopa maste". "Maste nausia" ta abar.

**Mokoloi.**—Itxas berbetan = nastea, soka ta amuen artean. "Aurreko egunean itxasotik ekarritako mokoloiak askatu, arildu ta urkuletan sartzen ebezan...".

**Must-egin.**—Ur-azpian igarian ibili.

**Nasa.**—Itxasontziak bearrezko tresnak artu edo atarateko urreratzen diran molla. "Nasara sartu zala potin bat..."

**Nausi.**—Arrantzialien artean bela edo agari buruz erabilten zan deitura. "Nausian dakarren izarrean..."

**Odoldi.**—Ooldi, goroldi.

**Olezko zapatak.**—Txokloak. Traskuak.

**Ondar-mai.**—Ondar zelaia.

**Ondartu.**—Ondarrez igortzi, bete. "Soñeko barrenak ondartu..." Berba au Azkue'k ontzi batek ondarra jo ta bertan geratze orde erabilten dau.

**Ondatu.**—Galdu. "Kantauriko ondarretan ondatu".

**Orru.**—Zarata itzala. "Itxasoaren orrua baño sendoago". "Itxasoak orru egin", "Olatuen orruak".

Ontzi-gidari

Ontzi-buru.—Esan onein kideko dira: Atzekoa, patroia, lemazaiña, zarra...

Otzara.—Otarra. "Arrain otzaretan erionga..." (Arraiña, otzaretan ura dariola).

Ondartza.—Plaiia. "Itxasoak bere goraldietan besuak zabaltzeko bear daben ondartzea..."

Ostarku. Ostilika.—Arco Irisa.

Popa.—Atzea. Ondarroan ez da erabilten, gitxi baiño, ipurdi itzik. Ala Txomin'ek be: "Popan joten ba zaitut..." "Entzuizu, Traman zabala, atso popandia..." "Ingu-ratu giñan igarian popaz gora egoan txalopara".

Sare-txalopak.—Saregaz arrantzara joaten diranak. "Sare-txalopa bi, itxas aingira lakoxeak".

Soka.—Lokarria. Korda. "Gerriko tendeltxu bat mokor gañean, ontzu sola lodi sendoaren antzera biurtua..." "Ibai ertz bietan, gizate soka lodi trinkoa.

Sokalea.—Lebatzetarako erabilten dan soka mota.

Suezta.—Urik artzen ez dauan txanoa, txapela, burukoa. "Suezta beste aterperik eztaukiela..."

Sunda.—Arrain sunda. Usaiña. "Au ezta guri esan dauskuen erria, zirautsen. Arrainsundadun uri koskor bat zala ta.."

Taketa.—Egur zatia. "Gizonak, taketa baiño gogorrago..."

Tantza.—(Pita)

Tatarrez.—"Txalopa guztiak tatarrez".

Tato.—(Zati bat) "Atun tatoakaz loditu ninduen".

Toleta.—Ontziak, karel gañean sartuta eukiten daben egur ziria, estrapua bitarte dala, erramuak bertan eutsita erabilteko.

Tosta.—Txalopa bateko jarrilekua. Tosta oneik, aurretik atzera, izen oneik eroaten dabez Ondarroan: Aurre; Kontrailla; Konrabara; espaldako; Kontraspalda; sagaltoki; tanbuleta; berniela; masteta; treintoki; ankako tostartea.

"Tostapera jaurti..."

Treotzara.—Egurrezko ol zapal bat, tretzat erabilteko, tolestuta, naste barik, zapalean.

Traola.—Lau zati edo listoikin egindako lauki bat, aparixuak bertan batzeko.

Trinko.—Lodi. "Soka lodi trinkoa"...

Triketa.—Txalopa aurreko bela.

Truxu.—Euri zaparrada. "Truxu ta bisuts". (Chaparron y ventisca), "Aizearen atzetik etorri zan truxua..."

Treñeruak.—Treñagaz itxasora joaten diran txalopak. "Zirauna legezko sare-txalopa eta treñeruak...".

Txibikorain.—Txibiak arrapateko eroaten dan amu ugariz inguratutako koraintxo.

Tunda.—Sua biztuteko su-arriagaz erabilten dan kordoi zatía. "Tunda zarra txapelean gordeta..."

Arrantzale zarrak orrelaxe erabilten eben, askotan patrikararik ez eukelako, txapel barruan tabaku orria eta tundia.

Umant.—Gizon andi. Heroia. "Baña Jose Maria Zubia-ri ezer kendu barik esan geinke, bere gisako beste umant asko dirala Euskalerrian, gure itxas errietan gizonik aña umant dirala".

Uragea.—Erramua. Arrauna.

Ujoldea.—Uriola.

Urandiko arraiña.—Itxas-andiko arraiña.

Gizon artean nortasun berezien bat daukanagaitik esaten da. "Ni ez naz izan Peru eta Mikol legez, urandiko arraiña..."

Ur-zelaia.—Itxasoa. "...urdirin urdirin, bare bare ta baketsu ur zelai galant ederra..."

Ur-bizi.—Itxas jasoa.

Ur-laiño.—Ur ondoko laiñoa. "...Bildurgarrizkoa egoan Kantauriko itxasoa. Ur-laiñozko estalki andi bat jarri jakon gain alde guztian..."

Ur-txakurrak.—Itxas ontzietan erabilten zituen txakurrak, gizona laguntzen ekienak, sare-txikotak igarian eroaten, batu eta abar egiten. "Ur-txakurrak nagusiaren aurrean baiño urduriago..." Amuetatik soltatzen ziran arraiñak txalopa ondora eroaten be ba ekien.

Urkula.—Sareak errezago jasoteko erabilten ziran aga urkulatsuak.

Bai eta aparixuak naastu barik amuak urkulako adar baten finkatuaz erabilteko be.

Zabune.—Batera ta besterako mogimentua. "Txaloparen zabunetan..."

Zaña.—Arrain koipea. Gantza.

Ziliboka.—Atzipeti. "Ziliboka ta atzipeti".

Ziskoetan.—Jantzien sakeletan. "Ez yakoen gauza andirik ziskoetan gelditu..."

Zezial.—Gatzetan jarritako lebatza.

Ainbat tartean laga doguz. Itzez itz, berbaz-berba, "Kresala"ren aberastasuna arrigarria da.

Arrantza izkuntza, itxastarren berbeta, bere biotz eta gogoan bizi eta iraunkor gordeten ebala, erraz igarten da.

Giartsu da batzutan, soil-soil berbak erabiliz. Erromantiku bestetan, itzekaz

jolastuten lez; Biozkor urrengoan, errukitsu. "Kitolis" en esanaldia mundu guztiko literatur saillean lotsa barik atara leiken jarduna dala esaten eban Jose Artetxe'k.

Irudietatik at, bere alkar izketak, bizi-biziak dira, gatz !odia dauke, Arranondoko atso popandiak urtu barik darabilen gatz lodi iraunkorra.

Laburtu eta amaitzeko: Itxasoa gora datorrenean ibaiko ura geitu egiten dan legez, itxastarren ezaupidean Txomin Agirre bitartez zenbat eta sakonago sartu, euskerari gatz lodiago emoten jakola, esango dogu. Or dogu, lekuko, KRESALA.

A. Zubikarai

---

# GARMENDIA-KORTADI-TAR JON


## "ZELETA"

Askok ezagutzen zuen ta askok zuen maite, 1989 urtean mundu ontatik bestera joandako Zeleta. Au da: Garmendia-tar Jon, Zeleta izenordea ain ospetsua egin zuan jauna. Euskal-idazle, antzerkigille ta izlari sutsua izana. Idazten gazterik asi zan bai egunkari ta, aldizkarietan: "Argia", "Euzkadi", "EL DIA" "Euzko Gogoia", "Zeruko Argia", "Egan", "Karmel", "Olerti", "Aranzazu", "Goiz Argi", "AGUR" besteak beste, dira aren idazkortz argiaren zingarri ta lekuko. Zeleta'z gañera, beste, izenorde batzuk ere erabili izan zituan. Adibidez, "Jeltzale" eta "Berrixki".

Dakigunez, Antzerti saillekoak auek ditugu: "Itxutasun madarikatua", "Joxantonen Eriotza", ta "Pello Kirten"; saioetan "Euskeraren iraupen eta, Euskal literaturaren aurrerapena", ta, "Lasarte-Aurtzaroko Oroipenak". aldizkarietan Zeleta'ren idazlan eder asko daukikeguz: "Euskera Naparroan", "Orixe" zanaren iritiz, "Leratetik karmeletan", batzuk aipatzearen. Zeleta euskeltzale bioztun, zintzoenetako bat gendun ta, euskerea nun goraldtu ta aintzaldtu an agertuko zan maitasunez, gogo onezbera iritziak eta abar, euskeltzaletasunaren gogotasunak ageraziz. Zeleta Zornotza'ko Larrea'ko karmeldar lekaidetxera an urtero ospatzen da urteroko OLERTI-Eguna deritxon izenaz ain ospetsu egin zaigun jai-aldi edo olerkari batzarretara. A. Onaindiaren itzalpean ainbat urteren jarraian biziok an adizkidetasun biotzgarritz alkar laztandu ta besarkatzen giñan ta, ori, urtez urte, gaurko egunetaraño, euskerea biotean daroagun guztion pozerako. Urtero, zorigaitz edo beste nolabaiteko eragozpenik izan ezik, beste euskalkide eta olerkide askorekin batean an alkartzen ta agurtzen giñan bai, anaitasunezko ta aberkide-tasunezko errikoitasun bioztasun poztgarritz. Gaur ere, zorionez ala darrai.

Zeleta'k beti irakurtzen zigun bertsoeri buruzko zerbait-ta, Olerii aldizkarian. Ona emen batzuk: "Bertsolariaren Notasuna" (1959), "Bertsolariaren nortasuna" (1960), "Bertsolariaren Nortasuna" (1960-II), "Bertsolariaren Noriasuna" (1963), "Olerkiak" (1961), "Bertsolarien txapelketaz" (1961), "Gure bertsolariak": "Xenpelar, Uztapide, Basarri" Bertsolaritzaren nortasuna deritxon idazlanean (1960-IV) eredutzat artzen du Enbeita-tar Balendin, bertsolarfen txapeldunak, guk itz-lauz adierazi genezakegun bezin egoki edo egokiago bertsoz adierazten.

Muniategi'tar Sabin



# **MANTEROLA'tar GABIREL'eri (Zeanuri'n, 1990.3.17)**

## **GERTAKUNTZA**

EUSKERAZAINTZA (Euskerearen Erri-Akademia)'k eta EUSKERAZALEAK Omenaldia gertatu dautsoe Manterola'tar Gabirel idazleari bere jaiotzetik eungarren urtea beteten dan egun beratan.

Gauza egokia zan omenaldi au gertatzea. Gabirel Euskaltzaindiko bazkide urgazlea izan zan, baiña beti agertzen eban Euskaltzaindiaren jokabide okerrak bere barruan sortzen eban miña eta ez eban utsik egiten Kardaberaz'tarren Bazarretara eta artu-emon biziak izaten ebazan Bilbo'ko Euskerazaleak Alkartea-gaz, baita onen ekintzetan biotz zabalez eta gogo onez bere laguntza emon be. Ez eban bere bizitan EUSKERAZAINTZA sortuta ikusi, baiña sortzeko bideetan ur-urrean ibilli bai.

## **EGITARAU**

Sasoiz eta ardura aundiz gertatu eben EUSKERAZAINTZA'k eta EUSKERAZALEAK omenaldi onetarako egitaraua eta Zeanuri'ko Udala, Bilbo'ko Aldundia eta Eusko Jaurlaritza be laguntzeko gertu agertu jakezan. Augustin Zubikarai izan zan gertakuntza onetan arduradun eta gogo-emoille.

Egitarauak lau ekiñaldi izan ebazan: Lenengo Zeanuri'ko eleizan, bigarrena Albako'ko eskoletan, irugarrena Arregia'ko plazan eta laugarren Zulaibar'eko Lan-Ikastegian.

Eta lau ekiñaldi onetan lan pozgarria eta ederra egin eben Zeanuri'ko Udalak ipiñi ebazan Dantza Taldeak, Bertsolariak (Pujana'tar Basilio ta Ertxebarria'tar Faustino) ta erriko txistulariak.

\*~\*~\*

## **ELEIZAN**

Zeanuri'ko Eleiza aundi eta ederra beterik egoan goizeko amaiketarako eta ordu orretan agertu ziran amabi abade altarera. Angoitia neska organulariak asi eban aundikiro lenengo abestia alkartasunaren poza agertuz. Idaz-lan au izen-



petzen dauanak egin ebazan oarrak eta mezako berbaldia eta meza-emoillen buru Gabirel'en lobeia dan Materola'tar Ander izan zan. ZER onen beste orri baten eskintzen dogu berbaldiaren laburpena.

\* \* \*

## JAKINTZA-EKIÑALDIA

Erriko eskolak ederrak eta egokiak dira. Oraintsu apaindu, zabaldu eta edertuak. Gogoan daukagu eskolak batzeko jakabidea agertu zanean zelako alegiñak egin ziran erriko eskolak ez kentzeko. Eta lortu be egin zan. Izan be ume-bako erria erri ituna da.

Albakoan dagoz eskola eder orreik eta aurre-erdian idazki au dauke: Laterri-Ikastolak. Idazki au Gabirel'eri eritxia eskatuta ipiñi zan demokrazi-aldia baiño lenago. Gaiñera len alde baten beste geigarri au eukan "Mutiltxoak" eta bestean "Neskatxoak". Eskolen barrizatzea egin zanean, itz bi onek kendu egin bear izan ziran, neska-mutilen eziketa batera egiten dalako.

Lengo ikas-gela zarrak izan ziran lekuan areto ederra dauke eskola oneik eta antxe izan zan jakintza ekiñaldia.

Lenengo Sabin Intxaurrea alkate jaunak emon euskun ondo etorria eta labur egin eban ekiñaldiaren aurkezpena.

Gero Ander Manterola'k egin eban lenengo itzaldia, Gabirel'en bizitza osoa azalduz. Berbaldi oso egokia eta, batez be, benetan ikusgarriak argibidezko argazkiak. Argazki oneik Gabirel'en bizitza guztikoak ziran. Umetan asi eta zartzarora arte. Izlariak esan eban lez, beste berbaldietarako euskarri izan zan lenengo itzaldi au.

Gero Aita Santi Onaindia'k Zeanuri'n izan diran idazleen barria emon euskun, baita Gabirel'en idaz-lanena be, baiña amar minutu baiño ez eukazan ezkerro, ezin dana irakurri. ZER'en agertzen da bere itzaldia.

Urrengo izlaria Eibar'en abade dan Zelai'tar Pedro izan zan. Onek bizkaiera eder eta garbian bizitasun aundiaz agertu eban Eibar'ek Gabirel'eri eutson zorra eta agertzen dautson maitasuna, baita berak un aretan egin ebazan lanak eta izan eban giro gozoa.

Laugarren berbaldian Belaustegigoitia'tar Maitena'k Ume erbesteratuen arazoa agertu euskun eta arazo orren barruan Gabirel'ek egin eban lan garratza, samin-tasunezkoa, España'tarren aldeko giroan bizi zan erri arengandik artzen eben erantzun mingotsa, naizta aIde egon ziranak be izan.

Maitena bera be erbesteko umeakaz Frantzia'n izana dogu. Egun beratan, itxas-ontzi baten izan ez arren, urten eben erbestera beronek eta Gabirel'egaz egon ziran umeak. Orregaitik, bizi-bizi agertu eban arazoa eta itzaldi au be ZER'en agertzen dogu.

\* \* \*

## GABIREL'EN ETXE-AURREAN

Albako'ko eskoletatik Arregia'ko plazara joan giñan. Antxe aurkitzen da Gabirel bizi izan zan etxea, eta antxe bizi dira gaur be Delbin bere lobeia, azken-orduana bera zaintzeko ainbeste lan egin eben Miren lobeia ta Kontxi Delbin'en emaztea eta onein sendikoak.

Bertsolariak euren ekiñaldia egin ondoren, EUSKERAZAINTZA'ren Lendakari dogun AKESOLO'tar Liño aitak ormako oroi-ikurraren estalkia kendu eban eta erriak txistulariakaz batera euskerearen ereserki bat abestu eban. Urrengo dantzaldi ederra ta jatorra emon euskuen Zeanuri'tarrak, gitxitan ikusiak diran dantzak, eta egokiro dantzatuak.

## ZEANURI'KO ZULAIBAR LAN-IKASTEGIAN

Egun eder eta gogoangarri au amaitzeko, erri-giroko bazkaria egin genduan Zulaibar'eko Lan-Ikastegian. Bazkaria gozoa, egokia, sasoz eta ondo mairatua.


Akeitaren sasoiara eldu gintzazanean, olako egunetan utsik egiten ez dauan Solozabal'dar Paulin olerkari ezagunak abestu euskuzan bere olerkiak eta Bertsolariak erantzun eutsoen. Paulin'en bertsoak be ZER'en argitaratzen doguz.

Gero Gontzal Mendibil, Zeanuri'ko gazte abeslari ezagunak abestu eban. Abestiaren esaldiak, Gabirel Manterola'k berak emonak zirala esan euskun.

Orrelan amaitu genduan egun pozgarri ori, amaitu edo guk beintzat urten-bearra izan genduan geure lanetara sartzeko eta an geratu ziran maikideak giro onean.

Gabirel izan dakigula eredu euskal-lana egitean eta bere ikur-esaldia bete daitela gure bizitzan: "EKIN ETA JARRAI". Izan be EKIN zan berak ainbeste lan eginda, Jaungoiko-Zale alkartean ateraten eban aldizkaria, eta Ander'ek bere berbaldian esan eban lez or isilleko mezu bat dago. EKIN atzekoz aurrera irakurri ezkeru "NIKE" da eta nike gerkeraz "Garaipena".

**Gamiz'ek**



# ZELETA

Oi, zu, agur zuri! gipuzkoako lasartear  
Zeleta, errikoseme gogoangarriari;  
agur, bertsolarien goresle maitatiar,  
idazle bicztun ta, gizaseme zintzoari!

Gogoan zaitugu. maitez, zure lagunkide,  
aldi gogor batean, euskaldunetzko pozean,  
ibilli giñanok euskerearen alorrean  
utsaren truke, beti, erri-mintzoaren alde.

Zure idazlan egiti ta jakingarriak,  
maitasunetzko gogai sakonez oretuta,  
benetan ziran eder ta, irakurgarriak,  
erriaren azkatasun guraz biotzeratuta.

Euskal burujabetzarako neke ta pozak  
egunik egunerako lanbide nekezez,  
erri-mintzoz edatzen ziran gure abotsak  
jeltzaletasunetzko gogo, itzaropenez.

Bidegite latza etsai-sastraka artean  
esidurazko ain zerupe baltz, gogorrean,  
euskal argia, eskuz kanpo zegoanean,  
atzeritar ain usain txarreko gizartean.

Euskaldunetzko bizi-nai lazgarri orretan  
zure argi-lorrazak dizdikari or dagoz  
garai artako euskal senezko idatzietan  
idaz-lerroak aintzaldu zaituzte betiko.

Gure arrobiko gizon apal ta zintzoa,  
Zeleta bertsozale argi onek ez aldu  
merezi euskal erritar ororen txaloa  
ez al da izango gure etorki elburu?

Euskal langille aspergaitz, bertsolaritzaren  
gorele ta íztun erredukor... Agur zuri!  
Xenpelar, Txirrita, Uztapide, Basarriren  
ta, beste askoren goresle maitekor orri!

Urrezko erri-abots orren abots ori  
ez dedilla ur-ekaitz zirimolpean suntsi,  
ez dedilla ez iñoiz gure erruz erori,  
iñoiz ere ta, ezerk ez dedilla iruntzi.

Aren antzera gogotsu darraigun guk ere,  
iñoiz ere ez dedin gure erruz or jausi  
gure maitetasunaren biotzeko goi-lora  
Euzkadiren berarizko gogo bizi ori!!

Osasundu bediz bai, gure biotzak neurtitzez  
agoz-agozko ta, itz-lauzko errigintzaren  
anai-arte sendo ta betiraungarriaren  
benetako Euskal-errien gogo ta biotzez.


Zure antzerako bidez gabiltzanok gara  
erri-aldezko biotz-irakindura laztanez,  
oñezkari apal ta arruntak eder-ikara,  
eskuz-esku zuzen jarraitzeko, euskaldunetz.

Muniategi'tar Sabin

EUSKERAZAINTZA

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition. Bilbao



**MANTEROLA TA URIGOITIA TAR  
GABIREL ABAD E IDAZLEAKI!  
ZEANURI'N**

